


HIRI ANTOLAMENDUKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA

ATAUN

HIRIA ANTOLATZEKO PLAN OROKORRA



AURRERAPEN AGIRIA

2024ko maiatza



LANTALDE IDAZLEA

ANTOLAMENDURAKO ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPENA

AURRERAPEN AGIRIA

2014ko maiatza

LANTALDE IDAZLEA

IDAZLEAK:

ASTAZALDI ARK S.L.P.

- Hektor Espin Larreta. Arkitektoa
- Eñaut Muñoa Artola. Arkitektoa

AHOLKULARITZA JURIDIKOA:

- Aitor Iztueta Garaikoetxea.

INGURUMEN AHOLKULARITZA:

EKOLUR, S.L.

GENERO AHOLKULARITZA/

ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA/

HERRITARREN PARTEHARTZEA:

AZTIKER KOOP.

AURKIBIDEA: A DOKUMENTUA. MEMORIA		Orrl.
A1	INFORMAZIO ETA JUSTIFIKAZIO MEMORIA	7
A1.0	SARRERA ETA AURREKARIAK	7
A1.1	ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPEN ESPEDIENTEAREN XEDEA	8
A1.2	PROIEKTUAREN LURRALDE EREMUA ETA EREMU MATERIALA	8
A1.3	ARAU SUBSIDIARIOAK BERRIKUSTEKO AUKERA ETA KOMENIGARRITASUNA	10
A1.4	AURRERAPEN AGIRIAREN XEDEA. IZAPIDETZEA ETA EDUKIA	13
A1.5	PROIEKTUA BURUTZEKO MARKO OROKORRA	15
A2	PARTE- HARTZE DIAGNOSIA	19
A2.0	SARRERA	19
A2.1	DIAGNOSI TEKNIKOAREN SINTESIA	19
A2.2	HERRITARREN PARTEHARTZEA: <i>ATAUN EGIN ELKARREKIN. HERRI PLANA</i>	41
A2.3	PLAN OROKORRAREN FORMULAZIOARI TXOSTENAK	53
	Ondare Historiko-artistikoko Zerbitzuaren txostena	55
	Landa Garapeneko eta Lurralde Oreko Zerbitzuaren txostena	61
	Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzaren txostena	69
	Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren eta Euskal Kultura Ondarearen Zentroaren txostena	73
A3	INDARREKO ANTOLAMENDUA. GARAPEN MAILA	87
A3.0	SARRERA	87
A3.1	AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA PROGRAMAREN GARAPENA	89
A3.2	JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUAREN AURREIKUSPENEN GARAPENA	91
A3.3	ESPazio LIBREEN ETA EKIPAMENDUEN GARAPENA	93
A3.4	KOMUNIKABIDE-SISTEMA OROKORREN GARAPENA	96
A4	ESKU-HARTZEAREN HELBURU ETA IRIZPIDE OROKORRAK	97
A4.0	ALDERDI OROKORRAK	97
A4.1	INGURUMEN ETA INGURUNE FISIKOAREN ALDERDIAK	100
A4.2	NUKLEO LANDATARRAK	101
A4.3	EREMU HIRITARRA	102
A4.4	BIZITEGI LURZORUA	103
A4.5	JARDUERA EKONOMIKOAK	104
A4.6	EKIPAMENDUAK ETA EREMU PUBLIKOAK	105
A4.7	GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA	106
A4.8	AZPIEGITURAK ETA ZERBITZU SAREAK	107
A4.9	ONDAREA	108
A5	BIZITEGI-AHALMENAREN KUANTIFIKAZIOA	109
A6	ANTOLAMENDU PROPOSAMENAK ETA ALTERNATIBAK	111
A6.0	SARRERA	111
A6.1	PROPOSAMENAK ETA ALTERNATIBAK HIRI-LURZORUAN ETA URBANIZAGARRIAN	112
A6.2	PROPOSAMENAK ETA ALTERNATIBAK LURZORU EZ URBANIZAGARRIAN	121
A6.3	ANTOLAMENDU ALTERNATIBEN LABURPEN KONPARATIBOA	126

A6.4	ONDAREAREN KATALOGO IREKIA	128
A7	GARAPEN ETA EXEKUZIO BALDINTZAK	133
A7.0	SARRERA	133
A7.1	HAPOAREN GARAPENERAKO HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAREN ZEHAZTAPENA	133
A7.2	HIRIGINTZA EXEKUZIOA	133
A7.3	HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAREN PROGRAMAZIO NEURRIAK	134
A8	PROIEKTUA ETA HAREN INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA	135
A9	AZKEN ONDORIOAK. AURRERAPENAREN LABURPEN OROKORRA	137

AURKIBIDEA: B DOKUMENTUA. PLANOAK**Eskala****B1 INFORMAZIOA**

B1.1	UDALERRIAREN MARKO GEOGRAFIKOA	1:100.000
B1.2	LURRALDEAREN EGITURA ORGANIKOA	1:20.000
B1.3	LURRALDE PLANGINTZA	1:20.000
B1.4a	BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK. ARRISKU NATURALAK	1:20.000
B1.4b	BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK. AZPIEGITURA BERDEA	1:20.000
B1.4c	BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK. BESTE BALDINTZATZAILEAK	1:20.000

B2 PROPOSAMENA

B2.1a	LANDA EREMUAREN ANTOLAKETA. 0 ALTERNATIBA	1:20.000
B2.1b	LANDA EREMUAREN ANTOLAKETA. 1 ALTERNATIBA	1:20.000
B2.2a	EREMU HIRITARRAREN EGITURA OROKORRA. 0 ETA 1 ALTERNATIBAK	1:5.000
B2.2b	EREMU HIRITARRAREN EGITURA OROKORRA. 2 ETA 3 ALTERNATIBAK	1:5.000

A DOKUMENTUA. MEMORIA

A1. INFORMAZIO ETA JUSTIFIKAZIO MEMORIA

A1.0 SARRERA ETA AURREKARIAK

Ataungo Udalak, 2022ko urriaren 13ko Alkatetza Dekretu bidez, erabaki zuen “ATAUNGO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA IDAZTEKO ZERBITZUA BEHIN BETIRAKO ASTAZALDI ARK, SLP enpresari esleitzea”, eta erabaki honi zegokion kontratua 2022ko abenduaren 15ean formalizatu zen.

Aurrerapen hau landu aurretik, 2023ko otsaila eta abendua bitartean, idazketa taldeak udalerriko hirigintza, ingurugiro eta egoera sozio-ekonomikoaren diagnosi integral bat osatu du, *DIAGNOSI PARTEKATUA* deritzona, lehen azterketa tekniko bat hartara deituriko *ATAUN EGIN ELKARREKIN. HERRI PLANA* prozesu parte-hartzailean Ataungo herritarrekin ebaluatua, eztabaidatua, zuzendua eta berretsia izan baita. *DIAGNOSI PARTEKATUA* agiriaren sintesia Aurrerapen agiri honetan txertatu da, nahiz eta bere osotasunean Udaletxean aurrez aurre edo <https://atauneginelkarrekin.eus/> orrialdean telematikoki kontsultatua izan daitekeen.

Beranduago, 2024ko otsailaren 7ko bilkuran, Ataungo Udaltzako Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren formulazioa onartu zuen aho batez, eta babes zibilean, kultura ondarean eta inguru naturalean eskumenak dituzten Eusko Jaurlaritzako eta Gipuzkoako Foru Aldundiko organoei gaur egungo arriskuen eta ingurumeneko baldintzatzaileen, zein kultura ondarearen eta ingurune naturalaren babesaren gaineko informazioa eskatzea, plangintzak errespetatu behar dituen heinean.

Ordutik igarotako epean lau txosten eskuratu dira, dokumentu honetako A2.3 atalean irakurgai daudenak. Hauek dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuko Ondare Historiko-artistikoko Zerbitzuak helarazi duena, 2024ko apirilaren 10ean sinatua (2024-000001961).
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapeneko eta Lurralde Oreko Zerbitzuak helarazi duena, 2024ko apirilaren 11ean Lurralde Oreka Berdeko Foru Diputatuak sinatua.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak helarazi duena, 2024ko apirilaren 24an sinatua (3HI-016/24-N35).
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak eta Euskal Kultura Ondarearen Zentroak helarazi dutena, hurrenez hurren, 2024ko maiatzaren 16an eta 15ean sinatua.

A1.1 ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSPEN ESPEDIENTEAREN XEDEA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2005eko urriaren 18an onartu zuen behin betiko egun indarrean dagoen «Ataungo Hiri Antolaketako Arauen Testu Bategina», GAOn 2005eko abenduaren 26an argitaratu zena.

Onartu zenetik dokumentu honek ezarri du indarreko hirigintza erregimen orokorra, eta beraz, Ataungo udalerrri osoko hirigintzaren jarraibide arautzaileak.

«Ataungo Hiri Antolaketako Arauen Testu Bategina» indarrean sartu zenetik, ekonomia zein hirigintza alorretan zinez denboraldi aztoratua izan den ia 20 urteko epea igarota, eta plangintzak izan duen garapen eskasa ikusita, Ataungo Udalak udalerrriko antolamendu orokorraren osoko berrikuspenari ekitea erabaki zuen 2022. urtean.

Ez hori bakarrik, udal antolamendua indarraldi berean aldaketa garrantzitsuak izan dituen hirigintza legedira eta sektore zein lurralde antolamendura egokitzeko beharra dago.

Berrikuspen hau, beraz, ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 LEGEaren 102.1 artikuluan jasotako balizkoen artean kokatzen da, non:

“Hirigintza-planek ezarritako antolamendua eta, nolahi ere, plan orokorren egiturazko antolamendua erabat berraztertzeke, beharrezkoa izango da antolamendu hori berrikustea. Antolamendua berrikusi beharra izango da, orobat, lurralde- plangintzak hiri garapen berrietarako hala eskatzen duenean eta garapen berriek funtsezko eragina dutenean egiturazko antolamenduan.”

Testuinguru honetan landua, arau subsidiarioen berrikuspenaren helburua Ataungo Hiri Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) idaztea da, indarrean dagoen legedira egokitua, aldaketa sozio- ekonomikoei erantzun eta etorkizuneko erronkei aurre egin diezaiokeena eta udalerrriak bizirauteko garrantzitsua izango dena.

Zehazki, dokumentu hau **Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren Aurrerapenari** dagokio.

A1.2 PROIEKTUAREN LURRALDE EREMUA ETA EREMU MATERIALA

HAPO honen lurralde eremua Ataungo udal barruti osoa da. Ataungo udalerrria Gipuzkoako hegoaldean kokatzen da, Goierri eskualdean (*Goierriko Eremu Funtzionala*) eta muga egiten du Nafarroako Foru Erkideagorekin.

Udalerrriak 58,36 km² inguruko azalera du (5.836 Ha), Gipuzkoako 5. udalerrri handiena da, eta 10x10 km-ko UTM lau lauki hauen artean aurkitzen da: 30T WN66, 30T WN 76, 30T WN65 eta 30T WN 75. Edonola, Ataungo udalerriko azaleraren %76,23 (44,49 km²) Aralarko Parke Naturalaren barnean aurkitzen da, zeinaren adierazpena apirilaren 26ko 169/1994 Dekretuan eman zen.

Ataunek Lazkao eta Zaldibiako udalerriekin partekatzen ditu mugak iparraldean; mendebaldean Idiazabalekin egiten du muga; ekialdean Enirio-Aralarrekin; hego-mendebaldean Gipuzkoako Partzuergo Txikiarekin; eta hegoaldean, berriz, Nafarroako Foru Erkidegoko udalerrri hauekin: Altsasua, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku eta Etxarri Aranatz.

Bere eremu materialari dagokionez, Ataungo HAPO Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 59.1.a artikulua zehaztutako egiturazko antolamendu planetan kokatzen da, eta beronen edukia aipatu Legearen 61. eta 62. artikuluetan xedatutakoari egokituko zaio, beraz:

61. artikulua. Plan orokorraren eduki sustantiboa.

Antolaketa dela eta, hiria antolatzeke plan orokorrak zehaztaperen hauek finkatzen ditu:

a) Gutxienez, udalerrri osoaren egiturazko antolamendua eta plan orokorrak hiri- lurzoru finkatua sartzeko duen hiri- lurzoruaren antolamendu xehatua.

b) Nahi izanez gero, lurzoru urbanizagarri sektorizatuaren eta plan orokorrean hiri- lurzoru finkatuaren kategorian sartu gabeko hiri- lurzoruaren antolamendu xehatua. Antolamendu hori, nolana ere, antolamendu xehatuko plangintza arautzeko utz daiteke.

62. artikulua. Agiriak

1.- Plan orokorraren edukia agiri hauetan formalizatuko da gutxienez:

a) Memoria informatiboa eta justifikatiboa. Plangintza- ahalmena baliatzeko beharrezko irizpen- elementuak dakartzan informazio guztia jaso behar du; zehazki, erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesuaren azalpena, herritarrek egindako alegazioen, iradokizunen eta erreklamazioen azterketa, eta aukeratutako soluzioen justifikazioa.

b) Ingurumen- kalteari buruzko aurretiazko txostena betetzearen memoria justifikatiboa. Memoria horretan, gainera, garapen eramangarriaren ikuspuntutik arrazoitu behar da hautatutako antolamendua, eta lurzoruak planean aurreikusitakoa betetzeko duen hartze- gaitasuna ere kontuan izan.

c) Informazio-planoak.

d) Egiturazko antolamenduaren planoak.

e) Antolamendu xehatuaren planoak.

f) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.

A1.3 ARAU SUBSIDIARIOEN BERRIKUSTE AUKERA ETA KOMENIGARRITASUNA

Arestian adierazi bezala, «Ataungo Hiri Antolaketako Arauen Testu Bategina» 2005eko urriaren 18an onartu zuen behin betiko Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, eta 2005eko abenduaren 26an argitaratu zen GAOn (243. zenbakia).

Arau Subsidiarioen indarraldian egin diren Aldaketa Puntualak ondorengoak dira:

- 2006ko urriaren 3an Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartutako «Ataungo 7, 8, 20, 21, 23 eta 25. Hirigintzako Esku Hartze Areei, Ergoiena eta Arinberriaga landa guneei eta ekipamendu sistemari dagokien Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa», Ergoiena landa gunearentzat ezarritako xedapenak etenda geratu ziren arren (2006ko urriaren 26ko GAO, 204. zenbakia).
- 2009ko abenduaren 15ean Diputatuen Kontseiluak behin betiko onartutako «Ergoiena landa herriguneko etenaldia bukatutzat emateko dokumentua (2008ko azarokoa)» (2010eko urtarrilaren 18ko GAO, 10. zenbakia).

Beraz, ia 20 urte igaro dira indarreko antolamendu orokorra indarrean sartu zenetik eta momentu egokia dirudi bere berrikuspenari ekiteko. Nolanahi ere, Arau Subsidiarioek, bere 6. artikuluan, ezartzen dituzte berrikuste horri ekiteko baldintzak:

6. artikulua. Arau Subsidiarioak berrikusteko baldintzak.

Bai legezko arrazoiengatik –legeria-aldaketak, lurralde-antolamendua, etab.–, bai egokitasunagatik/beharragatik, Udaltzak Arau Subsidiarioak berrikusteko erabaki ditzakeen ekimenak alde batera utzita, Arau Subsidiarioak ondoko kasu hauetan berrikusiko dira:

a) Ataungo biztanleriak proiektu honetan planteatutako aurreikuspenaren %15 gainditzen duenean.

b) Planifikatutako etxebizitza berrien %75etarako eraikuntza-lizentziak ematen direnean.

c) Etxebizitza hutsen %60tik gora okupatzea. Etxebizitza hutsak proiektu honetan bertan azaldutako irizpideen arabera ebaluatuko dira.

Zentzu horretan, Arau Subsidiarioek 1.500 eta 1.800 biztanle arteko tarte demografikoa aurreikusten zuten bere indarraldirako, eta egun udalerriko populazioa **1.698 biztanlera iritsi da**, hau da, aurreikusitako **hazkundera ez da gauzatu**.

Gainera, plangintzaren indarraldian (2006ko arau aldaketa puntuala barne) aurreikusitako bizitegi berrien programa 314koa da, eta 18 urteren buruan gauzatu den bizitegi kopurua **101 etxebizitzakoa**, hau da, **aurreikusitakoaren herena** baino gutxiago (%32,16).

Azkenik, **etxebizitza hutsen kopurua** txikitu beharrean handitu egin da, eta **237koa da** egun beraz, bistakoa da ez direla berrikuspena burutzeko Arau Subsidiarioetan jasotako egoera edo hipotesiak ematen.

Edozein kasutan, aurreikuspen horien betetze maila eta bilakaera eskasak, inboluzioa izan ez denean, errealitate sozio-ekonomikoaren erabateko transformazio bat ere iradoki dezake eta, ondorioz, indarrean dauden Arau Subsidiarioen gaitasun eza udalerriko gaur egungo beharrei erantzuteko.

Horrezaz gain, kontuan hartzekoak dira azken hamarkadetan hirigintza legedian eta lurralde zein arloko plangintzan onartu diren xedapen berriak ere, eta batik bat, ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 LEGEAK dioena:

Bigarren Xedapen Iragankorra. Hirigintza-antolamendurako planen eta bestelako tresnen indarraldia eta egokitzapena

1.- Plan orokorrak eta arau subsidiarioak.

Lege hau indarrean sartzean behin betiko onartuta dauden plan orokor eta arau subsidiarioek, eta orobat haien aldaketek eta berrikuspenek, indarrean jarraituko dute; nolana ere, bete beharrekoa izango da babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzaren eta zuzkidurazko bizitokien estandarrei buruz hurrengo lerroaldeetan eta aldi baterako xedapen hauetan ezarritakoa.

Dena den, egiturazko antolamenduko eta antolamendu xehatuko zehaztapenei buruz lege honetan ezarritako erregulazioa aplikatzekoa izango da, legea indarrean jartzen denetik aurrera, indarrean diren arau eta planetarako.

Behin betiko onartutako plan orokorrei eta arau subsidiarioei dagokienez, baldin eta lege honetan ezarritako gehienezko eta gutxieneko mugekin bat ez datozen hirigintza- eraikigarritasunak aurreikusten badituzte, muga horiei egokitutako geldituko dira automatikoki, betiere plan eta araudi buruz antolamendu xehaturik behin betiko onartu ez bada lege hau indarrean sartzean. Alabaina, udalak uste baldin badu neurri honen aplikazioa ezingo dela modu autonomoan egin aurretiaz bere plangintzaren egitura- antolamendua egokitu gabe, aldatu edo berrikusi-dagokiona- egingo du antolamendua.

Edozein kasutan, egokitzapen automatiko horrek eragindako hirigintza- eraikigarritasunaren handitzeak edo gutxitzeak ez du kalte- ordainik ekarriko ez ondare- erantzukizunik sorraraziko administrazioarentzat.

Bizitegirako lurzoria gorde beharra daukaten udalerriei dagokienez, baldin eta erabilera nagusia bizitegirakoa duten area eta sektoreetan, aurreko lerroaldean ezarritako erregela aplikatzeagatik, handitu egin bada hirigintza- eraikigarritasuna, lege honetan babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzak egoteko lurzori -estandarrek eta - kopuruak bete beharko ditu.

Plan orokorren eta arau subsidiarioen lehenengo berrikuspenari dagokionez, lege hau indarrean sartzean hasierako onespenerik ez baldin badu, legean aurreikusitakoari lotu beharko zaio. Aldaketa zehatz baterako eta berrikuspenerako espedientei dagokienez, ordea, baldin eta legea indarrean sartzean hasierako baina ez behin- behineko onespenera badute, udalak hautatuko du beren edukia eta zehaztapenak lege honetan aurreikusitakoari egokituko zaizkion, edo aurreko legeriaren eduki eta zehaztapenen arabera onartuko diren. Berrikuspena gorabehera, hiri- antolamenduko tresna orokorrak guztiz egokitu ahal izango zaizkie lege honetan ezarritako zehaztapenei eta edukiari, egokitzapen- espediente baten bidez. Espediente hori plan orokorra aldatzeko prozedurarekin izapidetuko da.

Aldaketa zehatz baterako eta berrikuspenerako espedientei dagokienez, baldin eta legea indarrean sartzean hasierako onspenera bai baina behin – behineko onspenera ez badute, behin betiko onartu ahal izango dira lege honetan aurreikusitako prozedurari lotuta.

Nolanahi ere, plan orokor eta arau subsidiario guztiak egokitu egin beharko zaizkie lege honen zehaztapenei, eta egokitzapenok behin betiko onartuko dira gehienez ere hamabost urteko epean.

(2/2014 Legea, urriaren 2koa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea aldatzekoa (GAO urriak 7) delakoaren artikulua bakarrak idatzitako bigarren xedapen iragankorreko 1. zenbakiko azken paragrafoa. Iraunaldia: 2014ko urriaren 8)

2/2006 Legea (EHAA 138. zbkia, 2006ko uztailaren 20koa) 2006ko irailaren 20an sartu zen indarrean eta beraz, plangintza orokor orok (plan orokorrak eta arau subsidiarioak) lege honen zehaztapenetara egokitu eta 2021eko irailaren 20a baino lehen behin betiko onspenera izan beharko zukeen.

Ondorioz, derrigortasunaren edo indarreko Arau Subsidiarioek 2/2006 Legearekiko duten betetze mailaren inguruko eztabaidak alde batera utzita, nabarmena da behingoz Ataungo plangintza orokorra aipatu Legearen zehaztapenetara egokitzearen beharra, eta horrela erakusten du gainera Plan Orokor berriaren formulazioa Udaltzak aho batez onartu izanak.

A1.4 AURRERAPEN AGIRIAREN XEDEA. IZAPIDEA ETA EDUKIA

Aurrerapen agiriaren xedea Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 87. artikuluan dator arautua:

87. artikulua – Hirigintzako plangintzaren aurrerapenak.

1.- Plan orokorrak egiteko eskumena duten herri administratiboek aurrerapenak izango dituzte, ezarri nahi duten antolamenduaren irizpideak, helburuak, alternatibak eta proposamen orokorrak zehazteko eta plan orokorra lehendabizikoz egiten denean edo indarrean dagoen bat guztiz edo partzialki berrikusi behar denean orientabide izateko. Aldaketa- kasuetan, aukerakoa izango da aurrerapena egitea.

2.- Aurreko paragrafoan aipatzen den aurrerapena onartzeak administrazio- eragina izango du, kasuan kasuko hirigintza- planaren idazketari begirakoa.

3.- Aurrerapenean, ingurumen- eraginaren baterako ebaluazioa egiten duen azterketa ere jasoko da. Arauz ezarritako edukia izango du.

Azken atal honi dagokionez, 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, ingurumen-ebaluazioari buruzkoa, eta EAeko 10/2021 LEGEA, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena, dira Ingurumen-ebaluazio Estrategikoaren derrigortasuna ezartzen dutenak, eta kontuan izan behar da 211/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena, ere.

Zentzu horretan, 21/2013 Legearen 18. artikulua honakoa xedatzen du:

18. artikulua. Ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera.

1. Plan edo programa abian jartzeko edo onesteko prozedura substantiboaren barruan, sustatzaileak ohiko ingurumen- ebaluazio estrategikoa hasteko eskaera aurkeztuko dio organo substantiboari, arloko legediak eskatutako dokumentuekin batera. Agiri horiez gainera, plan edo programaren zirriborroa aurkeztuko du, bai eta hasierako agiri estrategikoa ere, gutxienez honako informazio hau adierazita:

a) Plangintzaren helburuak.

b) Proposatutako plan edo programaren irismena eta edukia, eta teknikaren eta ingurumenaren aldetik bideragarriak diren arazoizko aukerak.

c) Planaren edo programaren garapen aurreikusia.

d) Ingurumen- inpaktu potentzialak, klima- aldaketa aintzat hartuta.

e) Arloko eta lurraldeko aldibereko planetan aurreikus daitezkeen eraginak.

Beraz, honako Aurrerapen agiriarekin batera Ingurumen-Ebaluazio Estrategikoaren (IEE) Hasierako Dokumentua aurkezten da, eta bere edukia bat etorriko da 211/2012 Dekretuko 8. artikuluekin.

Bi dokumentuok ingurumen-organoari igorriko zaizkio, kasu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiari, zeinak eragina duten Administrazio publikoen aurretiko kontsultak burututa eta legez ezarritako epean, ingurumen-azterketa estrategikoaren irismeneko dokumentua, edo erreferentziazko dokumentua, autonomiko araudiaren izendapenaren arabera, igorriko duen. Behin igorrita, irismeneko edo erreferentziazko dokumentua Aurrerapen honi gehituko zaio.

Bere aldetik, Aurrerapenaren izapidea 2/2006 Legeko 90. artikuluan arautzen da:

90. artikulua.- Plan orokorra egin eta izapidetzea.

3.- Aurrerapena egindakoan, udalak jendaurrean jarriko du bi hilabetez gutxienez, epe horretan iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko. Jendaurrean jarri behar denean, horren berri emango da lurralde historikoko aldizkari ofizialean eta lurraldean hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan. Aurrerapena udal mugakideetara bidaliko da ezagutu dezaten; eta, Arabako kasuan, baita administrazio- batzarretara ere, ezagutu dezaten eta proposatutako antolamenduaren oinarritzko alderdiei buruz txostena egin dezaten.

4.- Jendaurreko erakustaldiaren eta herritarren eta erakundeen parte- hartzearen emaitzak aztertuta, udalak plan orokorra idazteko oinarritzko irizpide eta helburuak zehaztuko ditu. Onartzen diren irizpide eta helburuak ingurumen- eraginaren baterako ebaluazioari buruzko txostenarekin bat ez datozenean, berariaz arrazoitu beharko da hartutako erabakia.

Beraz, bere xedea bete nahian, Ataungo HAPOren AURRERAPENA hurrengo agiriek osatzen dute:

A DOKUMENTUA. MEMORIA

A1. INFORMAZIO ETA JUSTIFIKAZIO MEMORIA

A2. PARTE-HARTZE DIAGNOSIA

A3. INDARREKO ANTOLAMENDUA. GARAPEN MAILA

A4. ESKU-HARTZEAREN HELBURU ETA IRIZPIDE OROKORRAK

A5. BIZITEGI KUANTIFIKAZIOA

A6. ANTOLAMENDU PROPOSAMENAK ETA ALTERNATIBAK

A7. GARAPEN ETA EXEKUZIO BALDINTZAK

A8. PROIEKTUA ETA INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIO ESTRATEGIKOA

A9. AZKEN ONDORIOAK. AURRERAPENAREN LABURPEN OROKORRA

B DOKUMENTUA. PLANOAK

B1. INFORMAZIOA

B1.1 UDALERRIAREN MARKO GEOGRAFIKOA

B1.2 LURRALDEAREN EGITURA ORGANIKOA

B1.3 LURRALDE PLANGINTZA

B1.04 BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK. ARRISKU NATURALAK

B1.05 BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK. AZPIEGITURA BERDEA

B1.06 BALDINTZATZAILE GAINJARRIAK. BESTE BALDINTZATZAILEAK

B2. PROPOSAMENA

B2.1a LANDA EREMUAREN ANTROLAKETA. 0 ALTERNATIBA

B2.1b LANDA EREMUAREN ANTROLAKETA. 1 ALTERNATIBA

B2.2a EREMU HIRITARRAREN EGITURA OROKORRA. 0 ETA 1 ALTERNATIBAK

B2.2b EREMU HIRITARRAREN EGITURA OROKORRA. 2 ETA 3 ALTERNATIBAK

A1.5 PROIEKTUA BURUTZEKO MARKO OROKORRA

Ataungo Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren idazketa eta izapidetze lanei, Aurrerapen dokumentu hau barne, izaera, ezaugarri, arau maila... ezberdineko xedapen, dokumentu eta proiektuek osatutako marko konplexu batetan ekiten zaie.

Une honetan, xedapen, dokumentu eta proiektu hauen adierazle moduan, honakoak aipatu behar dira:

1.- Lurralde, hirigintza edota lurzoru antolamenduak:

* Euskal Autonomi Erkidegoan sustatuak eta indarrean daudenak:

- Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Legea 2006ko ekainak 30ekoa (2/2006 Legea).
- 2008ko ekainaren 3ko premiazko neurriei buruzko Dekretua (105/2008), aurreko Legearen garapenerako sustatua, eta aurrerago aipatzen den 123/2012 Dekretuak partzialki indargabetua.
- 2008ko azaroaren 28ko Legea, non erkidegoak ekintza urbanistikoagatik sortutako gainbalioetan duen parte-hartzea aldatzen den.
- 2012ko ekainaren 3ko Dekretua, hirigintza estandarrei buruzkoa (123/2012 D.)

* Administrazio Zentralak sustatua, eta Autonomi Erkidego honetan indarrean:

- Real Decreto Legislativo 7/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Suelo y Rehabilitación Urbana.
- Esta norma incluye los contenidos de la Ley de Suelo de 2008 (R.D.L. 2/2008) y los referidos al ámbito de la rehabilitación, regeneración y renovación urbanas procedentes de la Ley 8/2013.
- Reglamento de valoraciones de la Ley del Suelo, aprobado mediante Real Decreto de 24 de octubre de 2011 (R.D. 1492/2011).

2.- Bestelako gaien inguruko indarreko xedapenak.

- Errepide gaietako indarreko xedapenak, besteren artean, 1989ko maiatzaren 30eko Legea, Euskadiko Errepideen Plan Orokorra arautzen duena, ondoren sarritan aldatu edo/eta osatu dena, eta 2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Araua.
- 7/1990 LEGEA, uztailaren 3koa, Euskal Kultur Ondareari Buruzkoa.
- 20/1997 LEGEA, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa, eta berau garatzeko sustatutako xedapenak.
- 3/1998 LEGEA, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra eta 211/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena.
- Kontutan hartzekoa da, era berean, Ley 21/2013, de 9 de diciembre, de evaluación ambiental, delakoa.
- Ley 37/2003, de 17 de noviembre, del Ruido delakoa eta 2005eko otsailaren 16ko eta 2007ko urriaren 19ko Errege Dekretuak, lehenak aipatu Legea ingurumen zarataren kudeaketa eta ebaluaketari dagokionean garatzen duelarik, eta bigarrenak, zonakatze akustikoa, kalitate-helburuak eta emisio akustikoei dagokionean.
- Xedapen horiei 213/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa gehitzea legoke.
- Ley 1/2005, de 4 de febrero, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo.
- Ley para la igualdad de mujeres y hombres, de 18 de febrero de 2005.
- Ley de Aguas, de 23 de junio de 2006.

- Eraikuntza gaietan indarrean dauden xedapenak, Ley de Ordenación de la Edificación, de 5 de noviembre de 1999, eta Código Técnico de la Edificación barne.
- Ley de Política Agraria y Alimentaria, de 23 de diciembre de 2008 (Ley 17/2008).
- Etxebizitza gaietan indarrean dauden xedapenak, babestutako etxebizitzak, udal etxebizitza tasatuak... arautzen dituztenak barne.

3.- Ataungo udalerririkiko eragina kontutan harturik, ondorengo lurralde-antolaketa tresnak aipatzea legoke:

- Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak. Behin-betiko onarpena: 1997ko otsailaren 11. Edonola, kontutan hartu beharko da halaber Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak berrikuspen izapidean daudela, 2018ko otsailaren 20eko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren AGINDU bidez haserako onarpena eman zaiolarik Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen Berrikuspenari buruzko dokumentuari.
- Aurretik baina, 4/2016 DEKRETUA, urtarrilaren 19koa, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak behin betiko onesten dituen Dekretua aldatzen baita, bizitegi-kuantifikazioari dagokionez, delakoa sartu zen indarrean, proiektu honetarako zalantzarik gabe berebiziko garrantzia duena.
- Beasain-Zumarragako (Goierrri) Eremu Funtzionaleko Lurraldearen Zatiko Plana (LZP) 2009ko irailaren 29an onartu zen behin betiko, 534/2009 Dekretuaren bitartez (2009ko urriaren 29ko EHAA, 208. zenbakia).
- Euskal Autonomia Erkidegoko ibai eta erreka ertzak antolatzeko LPS, Isurialde kantaularra (behin-betiko onarpena: 1998ko abenduaren 22an, ondoren 2013ko azaroaren 19ko Dekretu bidez aldatua).
- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako LPS (behin-betiko onarpena: 2014eko irailaren 16a).
- EAEko Trenbide-Sarearen LPS (behin-betiko onarpena: 2001eko otsailaren 27a).
- EAE-ko Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Merkataritza-Ekipamenduak Antolatzeko LPS (behin-betiko onarpena: 2004eko abenduaren 21a).
- Euskadiko Energia Berriztagarrien LPS.

- EAEko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra 2017-2028 _ 63/2020 Dekretua (2020/05/19).
- Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua _ 1/2006 Foru Dekretu Arau-emailea (2006/06/6).
- Gipuzkoako Hiri-Hondakinen Azpiegituretako LPS (behin-betiko onarpena: 2009eko uztailaren 21a).
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPS (behin-betiko onarpena: 2013eko uztailaren 10a).
- Real Decreto 2591/1998, de 4 de diciembre, sobre la Ordenación de los Aeropuertos de Interés General y su Zona de Servicio, y el Plan Director del Aeropuerto de San Sebastián (Orden FOM/2617/2006).

**Egundaino sustatutako bestelako lurralde-antolaketa tresnek ez daude indarrean ez direlako behin-betiko onartu (EAEko Kultura Ondarearen Lurralde Plan Sektoriala; Kultura Ondarearen Lurralde Plan Sektoriala; eta abar).*

4.- Bestelako plangintza, agiri eta proiektuak.

Bestelako plangintza eta agirien lagin gisa eta beraien zerrenda itxi eta osatua eskaintzeko asmorik gabe, honakoak aipatzea legoke:

- Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategia 2002-2020, 2002ko ekainaren 4ean onartua.
- Ingurumen Esparru Programa 2015-2018.
- 168/1994 Dekretua, apirilaren 26koa, Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana (NBAP) onesten duena.
- 169/1994 Dekretua, apirilaren 26koa, Aralar aldea parke naturaltzat jotzen duena.
- 146/2004 Dekretua, uztailaren 13koa, Aralarko Parke Naturaleko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana aldatzeko dena.
- 84/2016 Dekretua, maiatzaren 31koa, Aralar (ES2120011) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko dena.
- Aralarko Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP).

A2. DIAGNOSI PARTEKATUA

A2.0 SARRERA

Lehenago aipatu bezala, aurrerapen agiri hau idatzi aurretik, 2023ko otsaila eta Abendua bitartean idazketa taldeak udalerriko egungo hirigintzaren, ingurumenaren eta egoera sozio-ekonomikoaren alorreko diagnosi integrala burutu du, eta honen hasierako analisi teknikoa Ataungo herritarrekin ebaluatu, eztabaidatu, zuzendu eta berretsi da, horretarako espreski antolatua izan den *Ataun egin elkarrekin. Herri plana* izeneko parte-hartze prozesuaren bidez.

Jarraian diagnosi tekniko honen sintesia azaltzen da, bere osotasunean kontsultatu daitekeena bai aurrez aurre Ataungo udaletxean, bai telematikoki <https://atauneginelkarrekin.eus/> webgunean.

Bestalde, aipatu diagnosi faseari dagokion herritarren parte-hartze prozesuaren inguruko azken txostena atxikitzen da, Ataungo herritarren egungo eta etorkizuneko kezka eta desirak azaldu eta proiektu honen xede den udal plangintza orokorrak izan beharreko funtsezko ildo eta lerro nagusiak jasotzen dituen. *Ataun egin elkarrekin. Herri plana* parte-hartze prozesuak Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren idazketa, izapide eta onartze prozesu osoan izango du segida, herritarren asmoetan adierazten diren udalerririk dituen benetako beharrei erantzuna emango dionaren azken berme modura.

A2.1 DIAGNOSI TEKNIKOAREN SINTEZIA

Diagnostiko teknikoaren laburpen moduan, Ataungo Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren hausnarketa prozesu partekatua gidalerroak ondorengoak izan dira:

LEHEN HAUSNARKETA MAILA: LURRALDEA ETA GARAPEN EREDUA

1/1 BALDINTZATZAILEAK: LURRALDE ENKOADRAKETA

- *Udalaz gaindiko lurralde zein arloko plangintzak (LAG, LPS, LZP) Ataungo udalerriri egiten dizkion aipamenak oso urriak eta hondarrekoak dira.*

Goierriko Lurraldearen Zatik Planaren (LZP) lurralde ereduak eskualdeko bi burutzen arteko eremura (Beasain-Zumarraga ardatza) eramaten du eskualdeko garapenaren erdigunea, eta eredu horren baitan Ataun are eta zokoratuago geratzen da.

Edonola, LZPak "lurraltera sartzeko gunetzat" sailkatzen du San Martin herrigunea, eta GI-2120 errepidea bigarren mailako errepideen artean zerrendatzeaz gain, ez dio egiturazko funtziorik aitortzen.

Jarduera ekonomikoak antolatzeko LPSak garapen txikiko udalerrri gisa kategorizatzen du Ataun.

Gipuzkoako Bizikleta Bideen LPSak egun Beasaindik abiatzen den bizikleta bidea Ataungo Elbarrena auzuneraino luzatzeko proposamena jasotzen duen arren, ez dago hura burutzeko inolako proiekturik.

Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak ez du Ataun espresuki aipatzen, Ataungo udalerrriaren ingurumen ondareak potentzialtasun haundia duen arren.

- ***BOL eremuak Ataundik biztanleria bereganatzen du. Ataunek migrazio saldo negatiboa (69 pertsona) Goierriekin bakarrik du; hau da, gehiago dira Ataundik Goierriera bizitzera joan diren pertsonak Goierritik Ataunera joan direnak baino. Galera nagusia BOL eremuarekin izan da, Lazkaorekin, bereziki.***

BOL eremuak, Ataunek ez bezala, biztanleria hazkunde jarraia izan du azken urteetan. Ataunen migrazio saldoari dagokionez, 2014 urtetik aurrera joera erabat aldatikorra izan da, azken urteetako balantzea negatiboa izateraino. Nolanahi ere, 2010-2022 urteen artean 65 pertsona irabazi ditu udalerrriak. Bide horretan, Ataunen kanpo mugimenduen interakzio handiena Goierriekin eta Gipuzkoarekin badira ere, balantze positibo handiena estatuarekin (48 pertsona), baina estatutik kanpo jaiotako pertsonak dira, nagusiki, Amerikarekin (45 pertsona) eta Europarekin (28 pertsona) izan da.

Bestalde, azken hamarkadan Ataunek migrazio saldo negatiboa (69 pertsona) Goierriekin bakarrik izan du. Galera nagusia BOL eremuarekin izan da: Beasainekin (9 pertsona), Ordiziarekin (4 pertsona) Lazkaorekin (73 pertsona), bereziki.

Ataunek ez du biztanleria zahartze tasa ez estatutik kanpo jaiotako biztanleria tasa kritikorik. Azken urteetan, ordea, biztanleria hazkundera gelditu egin da eta jaiotza tasak eta migrazio saldoak bere horretan jarraitzen badute hurrengo urteetan biztanleriaren galera eta zahartzea nabarmena izatea espero da.

- **Udalerrriak ez du aberastasuna sortzeko gaitasunik, eta biztanleko duen barne produktu gordina ez da Gipuzkoako, Goierriko edo BOL eremuko balioaren herena ere izatera iristen.**

Ataungo BPG per capita Gipuzkoako, Goierriko edo BOL eremuaren herena edo gutxiago da. Udalerriko aberastasunaren sorreran industriak ez du ia presentziarik (%9,4) eta lehen sektoreak (%7,2) beste inon baino balio erlatibo handiagoa badu ere, ez du aberastasuna sortzeko gaitasunik. Hala eta guztiz ere, Ataunek bere inguruko eremuekin alderatuta bataz besteko errenta altuena du (24.835€). Ataundarren lan errentak eskualdeko industriak behar duen eskulanari eta administrazioko lanpostuei esker erdiesten dira: landunen %32,1ak industrian lan egiten du eta %27,3ak, berriz, administrazio publikoan.

Nolanahi ere, lan merkatu horrek genero desoreka azpimarragarriak eragiten ditu errentan zein lanarekiko harremanean: emakumeek gizonak baino %39,8 gutxiago irabazten dute, emakumeen langabezia tasa (%9,4) gizonena baino ia bost puntu altuagoa da eta lana egiteko adinean dauden emakumeen %54,1 bakarrik da biztanleria aktiboa, gizonak baino 2,4 puntu gutxiago.

- **Ataunek ondasun eta zerbitzuak ekoizten dituzten 108 establezimendu ditu. Horien %31,5a lehen sektoreko establezimenduak dira Goierriin %4,5 ere ez diren bitartean. Industria establezimenduak %3,7a bakarrik dira eta Goierriin, aldiz, %9,7a.**

Nolanahi ere, establezimenduen enplegatu kopurua oso txikia da, industrian bereziki (establezimendu bakarrak ditu 10-14 langile) eta ez da ezagutzen intentsiboa. Horiek horrela, Ataungo enpresa-ehunak ez du trakzio ekonomikoa eragiteko gaitasunik. Udalerriko establezimenduen ezaugarriei erreparatuta hainbat ondorio atera daitezke:

- *Industria establezimenduek (4 establezimendu) ez dute Goierriin edo BOL eremuan duten bezainbesteko pisua. Establezimenduen erdia, gainera, edari eta elikagaien industria azpisektorekoa da.*
- *Lehen sektoreko enpresak bataz bestekoa baino gehiago dira.*
- *Establezimenduen enplegatu kopurua oso txikia da eta gehienek autonomo izaera dute.*
- *Ataungo enpresa ehuna ez da ezagutzen intentsiboa eta ez du udalerrian dinamismoa eragiteko gaitasunik.*

- *Estrategikoak izan daitezkeen azpisektoreetako (energia sorkuntza, turismoa...) establezimenduak ez dira existitzen edo puntualak dira.*

Indarreko Arau Subsidiarioetan aurreikusitako jarduera ekonomikoetarako eremuak ez dira gauzatu, ezta turismo sektoreari lotutako proiektu estrategikoak ere (Erremedio).

- ***Udalerriko kultura ondarea ere, bere aldaera guztietan, oso aberatsa da, eta Ataunek euskararen arnasmune izaten jarraitzen du.***

Ataunen ondare kulturala bi alderditan nabarmentzen da batez ere: Aita Barandiaranek utzitako ondarea, batetik. Udalerrian bere jaiotza etxea eta museoa daude. Eta euskararen arnasmune izaera, bestetik. Euskararen ezagutza maila %87,7koa da eta bere kale erabilera %93,1koa da.

- ***Ataungo udalerraren ingurumen ondareak potentzialtasun handia du.***

Aralarko Parke Naturalaren izendapenak udalerriko azalera osoaren 3/4 baino gehiago hartzen du, jatorrizko baso naturala da nagusi udalerrira osoan, eta balio estrategiko altua duen nekazaritza eremua oso esanguratsua da (37,21 ha.), sare hidrikoa bezalaxe.

- ***Energia berriztagarrien sorkuntzarako lege berriak autokontsumora bideratutako sorkuntza errazten du.***

Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera Ataunek energia hidraulikoaren sorkuntzarako 15-20kWko instalazioa aktibo du. Instalazio txikia da, baina Lareoko urtegiari, Lizarrustiko Aterpetxeari eta Etxarriko baserri bati energia ematen dio.

Azken urteetan eguzki plakak udalerrian gero eta gehiago instalatzeko hautua egin da: energia fotovoltaikoa sortzeko 20kW baino gehiagoko instalazioa dago. Bide horretan, energia burujabetzak landa eremuko baserriak zein auzune nagusiak bere osotasunean hartu behar ditu aintzat.

1/2 LAN-ILDOAK: UDALERRIAREN GARAPEN JASANGARRIA

- ***Udalerriaren biziberritze demografikoa biztanleria gaztearen errotzetik eta BOL eremuaren hazkundera baliatzetik etorriko da.***

2003-2009 urteen arteko biztanleria hazkundera (%9,4) biztanleriaren adin egituraren gaztetzea eragin zuen; gaur egungo zahartze tasa Goierri zein Gipuzkoaren parekoa da. Bide berean, estatutik kanpo jaiotako biztanleriaren tasak gorakada etengabea izan du eta gaur egun %9,1a da. Nolanahi ere, ehuneko hori ez da Goierriko balioaren bi herenera iristen eta BOL eremuko tasaren erdia da.

Bestalde, udalerririk 20-34 urte bitarteko belaunaldiaren (%11,8) gabezia esanguratsua du. Jaiotza tasaren beherakadak eta azken urteetako migrazio saldo negatiboak Ataunek hurrengo hamabost urteetan biztanleria galduko duela iradokitzen dute (%4,4). Bi faktore estrategikoak izango dira egoera hori iraultzeko: gaur egun 0-19 urte bitarteko belaunaldi oparoa udalerrian errotzea, batetik. Horiek bermatuko dute hurrengo belaunaldien biziberritzea. BOL eremuak espero duen biztanleria hazkundera Ataungo migrazio saldoan, orain arte ez bezala, eragin positiboa izatea, bestetik.

- ***Ataunen berezko barne-garapenak edo garapen endogenoak potentzialtasun mugatua du eta barne produktu gordina, hau da, aberastasunaren sorkuntza handitzeko aukera garapen exogenotik etor daiteke.***

Ataungo BPG per capita Gipuzkoako, Goierriko edo BOL eremuaren herena edo gutxiago da. Udalerriko aberastasunaren sorreran industriak ez du ia presentziarik (%9,4) eta lehen sektoreak (%7,2) beste inon baino balio erlatibo handiagoa badu ere, ez du aberastasuna sortzeko gaitasunik. Horiek horrela, udalerrriaren ekonomia aktibatzeak aukera nagusia eskualdeko garapena baliatu eta honi begira jartzea da zerbitzu eta ekipamendu konkretuak eskainiz: pertsonen zaintza, egoitzak...

- ***Ataunek Goierriko dinamismo ekonomiko handiko eremuekiko (BOL) duen menpekotasun harremana agerikoa da, eta udalerriaz gaindiko lurralde ereduaren garapenak ez du mendekotasun hori zuzentzeko joerarik erakusten, handitzekoa baizik.***

Ataunek harreman hori baliatu beharko luke, Goierriko eta BOLeke enpresa zein herritarrei aipatu eremuetan eskaini ezin diren funtzio eta zerbitzu osagarriak garatuz, beti ere, ingurumen baldintza paregabeen oinarrituta; adibidez:

- *Industriari lotutako espezializazio altuko ikerkuntza edota hezkuntza baliabideak-instalakuntzak-ekipamenduak-egoitzak...*
- *Hiritartutako sektoreek bilatzen dituzten bizimodu alternatiboak.*
- *Jendartearen zahartzeak gero eta gehiago galdegingo dituen zerbitzuak eta bizitokiak, belaunaldi arteko harremana sustatuz.*
- *Eremu hiritartuan eraiki ezin diren kirol- zein aisialdi-ekipamenduak.*
- *Eta abar...*

- ***Ataungo udalerrriaren garapen endogenoak ez du eskualdeko ekonomia egiturak udalerrian sortzen duen ongizatea ordezkatu, epe motz-ertainen behintzat, baina herri-identitate berri baten ardatza izan daiteke, markaren sorkuntza bidean.***

Lehen sektoreko establezimenduen kopuru absolutua (34 establezimendu) eta erlatiboa (%31,5) beste eremuetan baino altuagoak dira. Nekazal eta abeltzaintzari loturiko ustiaketa aktibitateak dira gehiengoak. Elikagai espezializatuen sorkuntza bertako kontsumoa sustatzeko ez ezik, marka egiteko modua da. Gainera, bertako basoek udalerriko azalera osoaren %51,6 hartzen dute, eta baso landaketek berriz beste %30,7; datuak nabarmen adierazten du Ataunek basogintzarako eta energia berriztagarrien sorkuntzarako (biomasa) duen aukera.

Bestalde, ondare materialak zein inmaterialak herri identitatean indar handia dute. Landa eremuko baserrien edo garai bateko eraikinen berreskurapena historia eta tradizio baten errelatoarekin lotuta egon behar du. Aita Barandiaranen ondareak ere (udalerrian bere etxea eta berari eskainitako museoa daude) horretarako aukera dira. Bide berean, Ataunen euskarak duen presentzia herriaren identitatea ezaugarritzeaz gain inguruko eremuei, arnagune gisa, eskaintzen dien zerbitzua sistemikoa da.

- ***Garapen endogenoa iraunkortasun paradigma oinarri izan behar duen ATAUN markaren sorkuntzari lotua etorriko da, oso aspaldiko sustraietan errotutako izaera eta XXI. mendeko abangoardiako nortasuna uztartu behar dituen:***

- *Tokiko nekazaritza eta abeltzaintza sustatuz eta elikadura autokontsumoa indartuz.*

- *Energia burujabetza helburu izango duten tokiko ekoizpen instalazioak bultzatuz: eguzki energia, energia eolikoa, hidroelektrikoa eta, batez ere, biomasa iturri izango dituztenak.*
- *Hondakinen kudeaketan puntako irizpideak txertatuz.*
- *Ingurumen eta paisaia baldintzak babestuz.*
- *Ondare kulturala zainduz eta biziberrituz, eta euskararen arnasmune izaera mantenduz.*
- *Eta abar...*

Aipatu ezaugarri zein ekimen hauek guztiak dira, aldi berean, ATAUN markaren oinarri eta ostalaritza zein turismo sektoreak udalerrian izan dezakeen hazkundearen oinarri. Edonola, herri-nortasunari eta ingurumenari atxikitako hazkunde neurtuaz ari gara etengabe.

- ***Herri-nortasunari atxikitako garapen endogeno honek sortuko ditu, hain zuzen ere, garapen exogenoaren arrakastarako baldintza egokiak, eta alderantziz, bi garapen ereduek elkar elikatzen dutelarik.***

Hala ere, arretaz zaindu beharko da garapen exogenoak, hazkundeak, herri nortasunaren kaltetan eragin ditzakeen arriskuak.

- ***N-I errepideak beste (nazioarteko) eskala bati erantzuten dio eta Ataun gurutzatzen duen GI-2120 errepideak potentzialtasun handia izan dezake (Nafarroako) eskualdeko komunikazio ardatz gisa (udalerraren barne artikulazioan arazoak ere sortzen dituen arren).***

Horretarako, Lizarrustin garatu nahi izan den aisialdirako gunearen proiektuak, edo mugakide diren Nafarroako udalerriekin sustatu daitezkeen beste egitasmo partekatu batzuk garrantzi handia izan dezakete. Modu horretan soilik lor dezake Ataunek Goierri eta BOL eremuekiko duen menpekotasuna orekatzea, neurri apalean bada ere.

BIGARREN HAUSNARKETA MAILA: UDALERRIAREN ANTOLAKETA ETA LURRALDE EREDUA**2/1 BALDINTZATZAILEAK: UDALERRIAREN HIRI-EGITURA**

- **Ataungo auzuneen arteko harremana dagoeneko oso hierarkizatua da biztanleriaren bizilekuari edota ekipamenduen kokapenari erreparatuz gero.**

Ataungo populazioa (1.698 bizt._2023ko ekaina) Agauntza ibaiaren eta GI-2120 errepidearen ardatzean kokatzen diren auzuneetan biltzen da batez ere. Bertan bizi da udalerriko biztanleriaren %76,56 (1.300 bizt.) eta %65,31 Elbarrena (858 bizt.) eta San Gregorio (251 bizt.) auzuneetan pilatzen da. Beste %23,44 (398 bizt.) Aia auzunean (13 bizt.) eta landa guneko barreiatu zabalean (385 bizt.) bizi da.

Ekipamenduei dagokionez, horien kokapena dela-eta, udalerriak San Martin herrigunearikiko duen dependentzia argia da. San Gregorio auzuneko osasun kontsultategia kenduta, oinarrizko zerbitzu guztiak Elbarrena (udaletxea, osasun kontsultategia, kultur etxea eta farmazia) eta Astigarraga (hezkuntza zentroak eta kiroldegia) auzuneetan daude. Merkataritza establezimendua guztiak ere Elbarrena auzunean daude.

- **Agauntza ibaiaren eta GI-2120 errepidearen ardatzean kokatzen diren auzuneez ez dute elkarrekiko jarraitutasunik, oro har hirigune isolatu gisa ageri dira ardatzean zehar, eta ezaugarri oso ezberdinak dituzte:**

- **Elbarrena:** udalerriko auzune nagusia, biztanleriaren erdia (%50,53), etxebizitzaren %45,25, merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduen %47,37, eta udalerriko espazio libre hiritarrak eta ekipamendu publiko nagusiak (ez denak) hartzen ditu: Udaletxea eta Herri-antzokia, nagusiki.
- **Astigarraga:** biztanleriaren %4,00 soilik biltzen duen arren, bertan kokatzen dira udalerriko ekipamendu publiko nagusiak: Ikastola eta kiroldegia (frontoia); ez du merkataritzako eta ostalaritzako establezimendurik.
- **Arrondo:** biztanleriaren %4,53 biltzen du eta ez du espazio libre hiritar edota ekipamendu publiko esanguratsurik, ezta merkataritzako eta ostalaritzako establezimendurik ere.

- **Arinberriaga:** landa-gune gisa izendatua dago eta biztanleriaren %1,18 soilik biltzen du; ez du espazio libre hiritar edota ekipamendu publikorik, ezta establezimendurik ere.
 - **San Gregorio:** udalerriko bigarren eta azken auzune hiritar esanguratsua, biztanleriaren %14,78, etxebizitzaren %14,43, merkataritzako eta ostalaritzako establezimenduen %21,05, eta tokiko espazio libre hiritarrak eta ekipamendu publikoak hartzen ditu: frontoia, Bikario-etxea eta irakasle-etxea.
 - **Ergoiena:** landa-gune gisa izendatua dago; biztanleriaren %1,53 soilik biltzen du, baina etxebizitzaren %3,30, eta espazio libre hiritar txiki bat duen arren, ez du ekipamendu publikorik, ezta merkataritzako eta ostalaritzako establezimendu bakarra (sagardotegia).
- **Ardatzean zehar, Agauntza ibaiaren eta GI-2120 errepidearen ertzetan kokatzen dira udalerririk duen balio agrológico altuko luraren 14 ha. baino gehiago (142.202 m²) eta kontserbaziorako basoaren eremu zabalak ere.**
- **Gune hauek guztiak GI-2120 errepidearen bidez lotzen dira.**

GI-2120 errepidea GFaren ardurapean dago eta eskualde arteko sarea (berdea) osatzen du. Hala ere, eskualdeko errepide izaera hori zalantzan jartzeko arrazoiak ere badira, izan ere, 2021. urtean 3 neurketa puntutan erdietsitako EBBI (Eguneroko Bataz Besteko Intentsitatea) delakoak ondorengo datuak ematen baitditu:

- Lazkao = 4.333
- Zubikoeta (Ataun) = 2.917
- Lizarrusti (Ataun-Nafarroako muga) = 254.

Datuek garbi adierazten dute GI-2120 errepideak Lazkakoko saihsbide funtzioa, batik bat, eta Ataungo kanpo zein barne joan etorrien ardatz funtzioa mantentzen duela, baina Goierri eta Sakana (Gipuzkoa-Nafarroa) arteko eskualdeko ardatz funtzioa oso hondarrekoa dela. Bitartean, errepideak eskualdeko izaeraren ezaugarriak mantentzen ditu eta Ataungo auzuneen hiri-bilbean eragiten duen "zauria" itzela da. Beraz, Ataunek ez du ardatzeko auzuneen arteko barne joan etorriak antolatzen dituen hiri-izaerako biderik, ez ibilgailuentzat, ezta oinezko, bizikleta edo bestelako hiri-mugikortasunarentzat ere.

- **Udalerriko gainontzeko biztanleria Aia auzunean, hiri-egitura txiki bat duena (plaza, ekipamendua eta merkataritzako edo ostalaritzako establezimendu bat), eta landa guneko barreiatu zabalean bizi da.**

Urkillagako gainetik Arrondo eta Kaxeta lotzen dituen eta Aia auzunera iristen den GI-3151 errepidea ez ezik, udalerriko barreiatua zaku-hondoa osatzen duten GI-3152 (Lauztierreka), GI-4151 (Aitzarte) eta GI-4153 (Motasoro) errepideetan oinarrituta artikulatzen da.

- **Udalerriko biztanleen barne mugimenduak ondorengo ezaugarriak ditu.**
 - Aldaketak nagusiki 35-49 urte bitarteko eta horien seme-alaben belaunaldia osatzen duten 0-19 urte bitarteko biztanleenak dira.
 - Herri barruko errolda aldaketen %61,6a Ataunen bertan jaiotako pertsonena izan da.
 - Aldaketa horien ezaugarriak bat datoz bizi proiektua errotzeko urratsa ematen duten pertsonekin.
 - San Martin herriguneko nukleo nagusiek udalerriko pertsonak erakartzen dituzte gainerako eremuetan dauden auzuneen edo landa-eremuaren kaltetan.
 - Datu horiek Ataunek oraindik ere bere biztanleria errotzeko gaitasuna duela erakusten du, baina bere auzuneen bizigarritasunaren kaltetan.
- **Indarreko plangintzaren lurralde eredia ondorengo helburu orokorrean laburbiltzen da:** “Consolidar las características morfotipológicas de cada uno de los ámbitos urbanos y mantenerlos claramente diferenciados unos respecto de los otros”.

2/2 LAN-ILDOAK: UDALERRIAREN LURRALDE-EREDUA

- **Indarreko Arau Subsidiarioak udalerrria morfologikoki osatzen duten auzune bakoitzarentzat idatzitako plangintza-atalen batuketa bat dira, plangintzaren irizpide eta helburu orokorrek osoko ikuspegia gordetzen badute ere.**

Plangintzak aurreikusitako bizitegi hazkundera auzune ezberdinen artean banatzen da ia proportzionalki, atal bakoitzaren pisu erlatiboa betikotu eta udalerrian ematen ari diren barne mugimendu zein aldaketak orekatu asmoz. Beste horrenbeste gertatzen da ekipamenduen alorrean, hauetako zenbait bikoizteraino.

- **Lan honetan Ataungo udalerrriaren eremu hiritarra begiratzeko, aztertze eta proiektatzeko paradigma aldaketa bat proposatzen da.**

Elbarrena eta San Gregorio arteko lurraldea modu bateratuan garatu beharreko hiri-gune gisa ulertzea proposatzen da, Agauntza ibaiaren eta GI-2120 errepidearen ardatzean burutzen diren erabilera eta jarduera ezberdin eta anitzen segida gisa:

- *Jada hiritartutako auzune zein landa-guneak.*
- *Udalerriko ekipamendu orokor nagusiak.*
- *Bizimodu eredu berritzaileak barne har ditzaketen bizitegi zein jarduera garapen berriak.*

Eta hauekin batera:

- *Funtzio hiritarra joka dezaketen eremu naturalak (ibaia, basoak...), parkeak.*
- *Egungo edo etorkizunean sor litezkeen nekazal jarduerak (baratzak...).*
- *Nekazaritzako produktuen lehen eraldaketa eta komertzializazioa helburu duten instalakuntzak.*
- *Eta abar..*

*Erabilera hauek guztiek, eta herri-ekimenez sor litezkeen beste batzuk, Elbarrena eta San Gregorio arteko lurraldea hiri- zein landa-erabileren **mosaiko** gisa irudikatzen garamatza.*

- **Esan bezala, proposamenak ez dakar berarekin aipatu lurraldea bere osotasunean Hiri-Lurzoru gisa sailkatzea, izan ere, proposatzen diren zenbait erabilera ezin baitira mota horretako lurzoruan garatu.**

Baina erabilera hiritarrak eta landatarrak elkarren segidan txertatzeko eta baten zein bestearen funtzioak elkar indartzeko (sinergiak sortzeko) beharrezkoa den ikuspegi bateratua, ez estankoa, da hemen aldarrikatzen dena.

Gainera, proposatzen den ikuspegia ez da guztiz berritzailea Ataunen, izan ere, 1990eko hamarkadan udalerriko ekipamendu orokor nagusiak (pilotalekua eta herri-eskola) Astigarraga auzoan kokatzea erabaki baizen, hau da, hain zuzkidura garrantzitsuak hartzeko oso pisu erlatibo txikia zuen auzunean. Erabaki hori orain berreskuratu nahi den osoko ikuspegitik soilik hartua izan daiteke.

- ***Egungo hiri-eremuak (auzune zein landa-gune) euren ezaugarri morfotipologikoak mantendu behar dituzte, indarreko plangintzak xedatzen duen bezala, eta batez ere, euren nortasun historiko-kulturala sendotu behar dute, zalantzarik gabe.***

Zentzu horretan, egun plangintzak aurreikusten dituen zenbait garapen, hiri-guneen trinkotzea helburu dutenak, egokiak izan daitezke aipatu helburua erdiesteko, baina beste zenbait, hiri-guneak ertzetatik zabaltzea proposatzen dutenak, krisian jarri beharko lirateke, egungo hiri-eremuen morfologia desitxuratzeko arriskua dutelako, hain zuzen ere.

- ***Horiek horrela, iraunkortasun paradigmak ez du auzuneen arteko harreman horizontal baten eta ekipamenduen deslokalizazioaren aldeko hautua justifikatzen, are gutxiago aurreikusten den egoera demografiko negatiboa kontuan hartuta.***

Iraunkortasunaren izenean, ordea, San Martineko Elbarrena, Astigarraga eta Arrondo auzuneen artean jarraitutasuna erdiestea eta San Martin-San Gregorio poloen arteko konektibitatea oinezko, bizikleta eta garraio publiko bidez bermatzea izan beharko lukete estrategia nagusiak eta hurrengo hamarkadako proiektu estrategikoak.

Gainerakoan, biztanleria errotzeko eta erakartzeko gaitasunik duen nukleo nagusi baten faltan oso zaila izango da gainerako auzuneen bizigarritasuna ere bermatzea.

- ***Udalerriko landa eremuak eta barreiatuak (Ergoiena eta Aia auzuneak barne) bigarren lurralde unitatea osatuko lukete, eta bere problematikak tratamendu berezitua eskatzen du, hurrengo eztabaida mailan berariaz aztertuko dena.***

HIRUGARREN HAUSNARKETA MAILA: ARLOZ ARLOKO PLANGINTZA

3/1 BALDINTZATZAILEAK: EGUNGO ADIERAZLEAK

➤ **Etxebizitza.**

Etxebizitzaren arloan udalerraren egungo adierazle nagusiak ondorengoak dira:

Udalerrian **873 etxebizitza** daude orotara, horietatik **227 barreiatuan** kokatzen dira (%26,00), hau da, eremu hiritartuetatik kanpo, eta beste 7 ez daude etxebizitza gisa kalifikatuak. Ondorioz, **hiri-eremuan 639 etxebizitza** leudeke (%73,20), 395 Elbarrenan (%45,25) eta 127 San Gregorion (%14,55).

Ataunen **654 bizikidetza-unitate** zenbatu dira, eta kopuruak hazkunde nabarmena izan du 2001-2023 urteen artean: +112 (+%20,7). Udalerriko bizikidetza-unitateen batz besteko **tamaina 2,6** kidekoa da (Elbarrena = 2,6; San Gregorio = 2,55; Ergoiena = 2,16; San Martin barreiatua = 2,90), baina gero eta txikiagoak izateko joera dute. Hurrengo urteetan bizikidetza-unitateen kopuruak behera egingo duela aurreikusten da, baina galera ez da esanguratsua izango, bizikidetza-unitateen batz besteko tamainak behera egingo baitu: 643 unitate 2038an (-%1,68).

Adinaren arabera, haur eta nerabeak dituzten bizikidetza-unitateak 219 dira (%33,49; %37,69 Elbarrenan), eta gazteez (20-34 urte) bakarrik osatutako bizikidetza-unitateen kopurua oso txikia da: 24 soilik udalerriko osoan (%3,67; %4,56 Elbarrenan).

Etxebizitzen ezaugarri nagusiak **auzunearen arabera** aldatzen dira.

- Tipologia: **familia bakarreko 413** etxebizitza daude (%47,3), eta **familia anitzeko 454** (%52,0); Elbarrenan familia anitzeko bizitegiak %77,72 dira, eta San Gregorion %77,95; aldiz **barreiatuan %93,83** familia bakarreko etxebizitza da.
- Antzintasuna: etxebizitza parkearen **%37,92a 1925 urtean edo lehenago** eraiki zen, barreiatuan %67,40; etxebizitza parkearen **%43,53a 1975 urtetik hona** eraiki da, Elbarrenan %61,01 (udalerrian eraikitakoen %63,42).
- Azalera: 75-100 m² bitarteko etxebizitzak 305 dira orotara (%34,94), Elbarrenan %52,41 eta San Gregorion %46,46; 150 m² baino azalera handiagoa dutenak berriz 299 dira guztira (%34,25), barreiatuan %70,04, Arinberriagan %60 eta Arrondon %57,50.

Etxebizitza hutsen tasa oso altua da. Udalerrian 237 etxebizitza daude hutsik orotara, etxebizitza parkearen %28,6.

Etxebizitza parkeak presio handiagoa jasaten duen auzuneetan etxebizitza hutsen tasa txikiagoa da: Elbarrena (%16,2), Astigarraga (%23,7), Aia (%14,3) edota San Gregorio (%26,8). Barreiatuan aldiz tasa handiagoa da: San Gregorioko barreiatua (%43,2), San Martingo barreiatua (%49,6) edota Ergoiena (%58,6).

Indarreko udal plangintzak (aldaketa puntualak barne) **314 etxebizitzako hazkunde garbia** aurreikusten zuen bere indarraldirako eta horietatik **101 gauzatu** dira gaurdaino, batik bat 2005-2010 epealdian.

Aldiz, Goierriko **LZPak (2009) habitat alternatiboen** kokagune eta **jarduera publikoak garatzeko intereseko** udalerrri gisa identifikatzen du Ataun, eta **206 eta 286 artean** kuantifikatzen du bizitegi-eskaintza 16 urteko epemugan. Beraz, indarreko udal arautegian eraiki gabe geratzen diren 213 etxebizitza berriak aipatu tartean leudeke. Hala ere, Plan Orokor berriak bizitegi-ahalmena 2019ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (LAG) xedatutakoaren arabera finkatu beharko du.

➤ **Ekipamenduak eta zerbitzuak.**

Ataunek duen zuzkidura maila batz bestekotik gertu dago, baina **auzune ezberdinen artean desoreka** handiak daude. Elbarrenan administrazioa (udaletxea), herri-antzokia, osasun zentroa, farmazia edota merkataritza establezimendu ia guztiak kokatzen dira, eta Botika(rio)-etxean (Aierdienea) kultur etxea egokitzeko proiektua abian da.

Gainera, Astigarragan hezkuntza zentroak eta kiroldegia (pilotalekua), udalerriko ekipamendu orokor nagusiak, hain zuzen ere. Aldiz, San Gregorion osasun zentroa eta Bikario-etxea (Lurlab, Ataun irratia, irakurketa/ikasketa gela...) daude, eta bere barreiatuan merkataritza establezimendu bat aurki daiteke.

Horrela, oinarrizko ekipamenduak 1.000 metro baino urrunago dituzten biztanleen kopurua ondorengoa da:

- Udaletxea: 692 (%40,75)
- Osasun zentroa: 431 (%25,38)
- Kultur etxea (herri antzokia): 679 (%39,99)
- Kiroldegia (pilotalekua): 610 (%35,92)
- Hezkuntza zentroa (biztanleria adingabea): 100 (%28,41)

Ostalaritza da udalerrian zehar sakabanatzen den zerbitzu mota bakarra.

*Bestalde, Goierriko LZPak eremu funtzionaleko zahartze-maila kontuan hartuta, landa-biztanleriarena batez ere, **hirugarren adinerako zuzkidurak** indartzeko beharra aztertzen du, kokapen zehatzik aurreikusi gabe.*

*Gainera, eskualde mailako ekipamenduen artean sailkatzen du **Joxe Miel Barandiaran Euskal Parke Mitologikoa/Interpretazio Zentroa**.*

*Azkenik, LZPak “**lurraltera sartzeko gune**” gisa sailkatzen du San Martin herrigunea, eta ondorioz, “**berrekipamenduko**” eragiketa bereziak hartzeko gune egokitzat jotzen du.*

➤ **Espazio publikoa eta gune berdeak.**

Udalerriko espazio publiko esanguratsu bakarra Elbarrenan kokatzen da, Udaletxea eta San Martin elizaren inguruan, eta GI-2120 errepideak gurutzatzen du.

Gainontzeko auzuneez tokiko espazio publiko xumeak dituzte, eta San Gregorion pilotalekuari atxikita ageri den plaza soilik nabarmendu daiteke.

Gune berdeei dagokienez, indarreko udal plangintzak Gune Librean Sistema Orokor gisa (F.10) izendatzen ditu bi gune: Astigarraga auzunean (2.261 m²) eta Iturritza izenekoa, San Gregoriotik gertu (33.055 m²). Bi gune hauek, aurreikusitako bizitegi hazkundearen arabera, Legeak xedatutako gune berdeen zuzkidura justifikatzea beste helbururik ez dute, eta hiri-ereduan betetzen duten funtzioa oso eskasa da.

➤ **Jarduera ekonomikoak.**

*Zubikoetako industria guneaz gain, indarreko udal plangintzak B.10 Industria gune arrunta bezala izendatu zuen **2 ha. inguruko eremua** (A.I.U.2) Ajarresta inguruan, gaurdaino garatu ez dena.*

*Jarduera ekonomikoak antolatzeko LPSak eta Goierriko LZPak **garapen txikiko udalerrri** gisa kategorizatzen dute Ataun, eta ondorioz, “higintza-plangintzak mugatu beharko du ekonomia jardueretarako lurzorua kalifikazioa **hiri-izaerako jardueretarako** izatea”.*

*Eskualdeko enkoadraketaren atalean establezimenduez (jarduera ekonomikoez) hitz egin bada ere, udalerriko 108 establezimenduetatik **46** soilik dira **hiri-izaerako establezimenduak**, edo beste modu batera esateko, hiri-eredua artikulatzen lagun dezaketen jarduerak.*

*Eta hauetatik 24 (%52,17) **Elbarrenan** eta 11 (%23,91) **San Gregorion** kokatzen dira. Gainontzeko 62 establezimenduak lehen sektorekoak (34), industrialak (4) edo eraikuntza sektorekoak (14) dira, edo hiri-eremutik kanpo kokatzen dira (10).*

➤ **Mugikortasuna eta aparkalekua.**

*GI-2120 errepidea da udalerriko ibilgailuen sarrera eta irteera bakarra, baita barne mugikortasunaren **ardatz nagusia** ere, auzune nagusiak lotzen baititu. Nafarrorako igarobide gisa duen erabilera oso murrizta den arren, errepideak eskualdeko izaera du eta horrek “zauriak” eragiten ditu auzuneetako hiri-bilbeetan. Udalerriko barreiatuaren eta landa eremuaren mugikortasuna ere GI-2120 errepidean oinarritzen da eta GI-3151 (Aia-Urkillagako gaina), GI-3152 (Lauztierreka), GI-4151 (Aitzarte) eta GI-4153 (Motasoro) tokiko errepideen bidez artikulatzen da.*

***Aparkalekuari** dagokionez, indarreko udal plangintzak bizitegi garapen berriei (lurrazpian) eta espazio publikoaren berrantolaketari (azalean) lotua aurreikusten du **zuzkiduraren handitzea**.*

***Oinezko ibilbideez**, indarreko udal plangintzak hiri-guneetan ibaiertzak egokitzea proposatzen du, eta bere egiten du udalerriko ardatz nagusia, Kaseta eta Lazkakoko mugen artean, Agauntza ibaiaren medebaldetik lotuko duen oinezkoen ibilbidea burutzeko proiektua, atalez atal garatzen doana eta gaurdaino amaitu gabea.*

Hala ere, ibilbide honek ez du hiri-izaerarik eta ez du hiri-eremuko auzune nagusiak mugikortasun eredu berritzaile eta unibertsalen bidez lotzeko gaitasunik: umeen aulkitxoak garraiatzen dituzten familiak, gurpildun aulkian mugitzen diren herritarrak, bizikletak, patin elektrikoak, eta abar.

➤ **Azpiegiturak.**

Ur hornidura eta saneamendu sareak berritu eta osatzea da Ataunek azpiegitura mailan dituen erronka nagusiak, izan ere, egungo edateko uraren kalitatea eskasa da, batetik, eta San Gregoriotik gorako ur zikinak Agauntza errekarara isurtzen dira zuzenean, bestetik.

Argindar zein telefonia horniketarako sareak amaitutzat eman daitezke oro har, eta helburua telekomunikazio eta gas hornidurarako sareen hedapena sustatzea da.

➤ **Landa-eremua eta baserria.**

Udalerriak azalera ia osoa (%99,56) lurzoru ez urbanizagarria da. Gainera, azaleraren %76,23 Aralarko Parke Naturalaren barne dago eta beraz, Aralarko Natura Baliabideak Antolatzeko Planaren menpe dago (Eusko Jaurlaritzaren 168/1994 Dekretua). Ataun da Parke Naturalaren Patronatuan bi ordezkari dituen udalerririk bakarra. Ondorioz, Nekazaritza eta Basozaintzako Lurraldearen Arloko Planak ondorengo antolamendu kategoriatan banatzen du udalerriko gainontzeko azalera (hiritartua salbu):

- Basoa: 936,01 ha (%16,04).
- Basoa-Mendi urria: 39,81 ha (%0,68).
- Larre menditarra: 2,59 ha (%0,04).
- Nekazaritza-abeltzaintza eremua. Balio Estrategiko Altua: 37,21 ha (%0,64).
- Nekazaritza-abeltzaintza eremua. Trantsiziozko Landa Paisaia: 326,57 ha (%5,59)

GUZTIRA: 1.342,19 ha (%22,99).

Gipuzkoako Datu Espazialen Azpiegituraren arabera, Ataunen 165 eraikinek baserri izendapena dute. Hauetatik 146 (%88,5) landa eremuan kokatzen dira: 71 San Martinen, 49 San Gregorion eta 26 Aian. Landa-eremuko 138 baserrik (%94,5) bizitegi erabilera dute, eta hauetatik 44 (%31,9) hutsik daude (udalerrian %28,6).

Landa-eremuko 146 baserrietatik 124 (%84,9) dira nekazaritzara edo abeltzaintzara bideratutako guneren bat dutenak, baina hauetatik 19 baserrik soilik (%13,0) dute lehen sektoreko jarduera. Kopuru hori udalerrian dauden nekazaritzako eta abeltzaintzako 30 establezimenduen ia bi heren dira (%63,33). Landa-eremuan gainera beste jarduera sektoreetako 12 establezimendu daude, gehienak (8) merkataritza, garraioa eta ostalaritza sektorean jarduten direnak.

Orotara, udalerrian lehen sektoreko jarduera burutzen duten 34 establezimenduetatik 21 (%61,76) daude baserriari lotuak, eta 13 beste eraikin mota batean garatzen dira. Izan ere, gaur egungo legediaren arabera oso zaila baita baserri tradizional batean lehen sektoreko jarduera ekonomikoak abiatzea, aintzat hartu behar diren osasun neurriak eta neurri teknikoak direla eta. Lehen sektoreko jarduera ekonomiko berriak berariaz prestatutako eraikinetan garatzen dira egun.

3/2 LAN-ILDOAK: ESKU-HARTZE IRIZPIDEAK

➤ **Etxebizitza.**

Etxebizitza alorreko plangintzak udalerrriaren garapen jasangarriaren (1/2) eta lurralde ereduaren (2/2) ataletan ezarritako helburu orokorrei erantzun behar die; hurrenez hurren:

- *Gaur egungo **0-19 urte** bitarteko **belaunaldia** udalerrian **errotzea**, horiek bermatuko baitute hurrengo belaunaldien biziberritzea.*
- *BOL eremurako espero den biztanleria hazkundeak Ataungo **migrazio saldoan**, orain arte ez bezala, **eragin positiboa** izatea.*
- *Egungo hiri-eremuen ezaugarri morfotipologikoak mantentzea.*
- *Elbarrena eta San Gregorio arteko lurraldea modu bateratuan garatu beharreko **hiri-gune** gisa ulertzea eta biztanleria errotzeko eta erakartzeko gaitasuna izango duen **nukleo nagusi** bat eratzea.*

*Goierriko LZP berrikusi arte, Ataungo Plan Orokor berriak bizitegi-ahalmena 2019ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek (LAG) xedatutakoaren arabera finkatu beharko du, eta bertan jasotako kalkulu sinplifikatuak ematen duen behin behineko hazkunde garbia **160-170 etxebizitza** ingurukoa da. Beraz, indarreko udal plangintzak aurreikusitako eta garatu gabeko **bizitegi programaren zati** esanguratsu bat **bertan behera** utzi beharko du Plan Orokor berriak.*

*Edonola, lurralde plangintzak aipatzen duen bezala, belaunaldi **gazteak** udalerrian **errotzeko** erakundeetatik **etxebizitza babestua** sustatzeak berebiziko garrantzia du, batik bat **alokairuko edota** zuzkidurako bizitegiak eskainiz.*

*Gainera, kanpoko herritar hiritartuak erakartzeko eta migrazio saldoa iraultzeko, bizitegi garapen berriek **bizimodu alternatiboa** eskaini beharko dute eta **jasangarritasun irizpide garaikideak** aintzat hartu, erabilera ezberdinen nahasketa, lurzoruaren artifizializazioa mugatzea, energia burujabetza, eta antzeko kontzeptuak proiektuaren gidalerro izan daitezzen.*

Egungo etxebizitza parkearen ezaugarriak laburbilduz esan daiteke, landa-gune zein barreiatuko etxebizitzak familia bakarreko eraikin haundi eta zaharrak direla, eta hiri-eremu nagusietakoak aldiz, familia anitzeko eraikin ertain eta berriagoak (< 50 urte).

Landa-guneko bizitegiek (baserriek) atal berezitua izango dutenez, baieza daiteke hiri-eremuetako **etxebizitza parkea birgaitze sakonak** eskatuko dituen adinaldian dagoela, izan irisgarritasuna bermatzeko (igogailuak), izan energia eraginkortasuna handitzeko, edo beste.

Arreta eta ahalegin berezia eskaini behar zaio **etxebizitza hutsen merkaturatzeari**, hirigintza plangintzaren eskumen-eremutik harago doazen neurriak eskatu arren.

Edonola, helburu hau hirigintza plangintza berriaren arrakastari lotua egon daiteke, hau da, ezarritako helburu orokorrak erdiesteari eta Ataun bizitzeko leku erakargarriagoa egiteari.

➤ **Ekipamenduak eta zerbitzuak.**

Ataunek herri-mailako ekipamendu eta zerbitzu **zuzkidura onargarria** du, eta ondorioz, beharrezkoa da proposa daitezkeen ekimen berriek udalerrriaren garapen jasangarriaren (1/2) eta lurralde ereduaren (2/2) ataletan ezarritako helburu orokorrei erantzutea; besteren artean:

- Goierriko eta BOLeke herritarrei aipatu eremuetan eskaini ezin diren zerbitzu osagarriak eskaintzea.
- Elbarrena eta San Gregorio arteko lurraldea modu bateratuan garatu beharreko hiri-gune gisa ulertzea.
- San Martin eta San Gregorio hiri-poloen arteko konektibitatea oinezko, bizikleta eta garraio publiko bidez bermatzea.

Zentzu horretan, ez da ahaztu behar Goierriko LZPak lurraldera sartzeko gune gisa sailkatzen duela San Martin herrigunea, eta ondorioz, berrekipamenduko **eragiketa bereziak** hartzeko gune egokitzat jotzen duela.

➤ **Espazio publikoa eta gune berdeak.**

Beharrezko jotzen da Elbarrenan Udaletxeak eta San Martin elizak eratzen duten udalerriko espazio publiko esanguratsu bakarraren **baldintza espazialak** hobetzea.

Horretarako beharrezkoa da HJA-8 eremuaren garapena modu egokian burutzea eta botika-etxearen birgaikuntzarekin asmatzea, baita GI-2120 errepideak egun eragiten dion "zauria" arintzea eta autoak bertatik guztiz erauztea ere.

Hirigintza plangintzak egun aurreikusten dituen edo etorkizunean proposa ditzakeen espazio publiko berriek ez liokete itzalik egin behar Elbarrenakoak Herriko-plaza gisa jokatzeko duen funtzioari, Ataunen eskalako udalerriek **erreferentziako espazio publiko adierazgarri bakarra** edukitzea garrantzitsua baita.

Funtsezkoa da udal plangintzak izendatzen dituen Gune Berdeen Sistema Orokorrek **hiri-bilbean txertatuak** egotea eta hiri-ereduan zuzeneko funtzioa betetzea, egungoek ez bezala. Zentzu horretan, espazio publikoen eta gune berdeen arteko **bereizketa baztertu** beharko litzatekeela uste dugu, eta espazio publikoetan gune hiritartuak eta naturalak uztartu, klima-aldaketak hiri-guneetan sortuko dituen erronka berriei aurre egin ahal izateko.

➤ **Jarduera ekonomikoak.**

Indarreko udal plangintzak **jarduera ekonomiko industrialen** alorrean zituen aurreikuspenak ez dira gauzatu eta horrek frogatzen du, beste ataletan azaldu diren datuekin batera, **ez dela hau** udalerraren garapenerako **alor estrategikoa**.

Aldiz, lurralde plangintzak adierazten duen bezala, ekonomia jardueretarako lurzorua kalifikazioa **hiri-izaerako jardueretarako** izatea proposatzen da.

Adibidez, **hirugarren adinerako zuzkidurak** Ataunen kokatzeko baldintzak sortzea helburu estrategikoa izan daiteke, aldi berean garapen exogenoari (BOLEko biztanleriari zerbitzu osagarriak eskaintzea) eta endogenoari (Ataungo biztanleriaren beraren zahartzeari) erantzungo balioko.

Ondorioz, ez da aurreikusten jarduera ekonomiko industrialetara lurzoru berriak bideratzea. Ajarresta inguruko eremuak bere izaera mantendu dezake edo, aldiz, bertan erabilera berriak proposa daitezke edo, muturrera eramanez, haren sailkapena eta izendapena berrikusi daitezke, hiri-izaerako **jarduera ekonomikoak kokagune egokiagoan** birkokatuz.

Bestalde, **hiri-izaerako establezimenduak** (merkataritza, ostalaritza, jarduera profesionalak, zerbitzuak...) errotzeko eta erakartzeko **hiri-ingurune trinkoa eta mugikortasun-eredu garatuak** behar dira, batik bat.

➤ **Mugikortasuna eta aparkalekua.**

Gipuzkoako Foru Aldundia da **GI-2120** errepidearen arduraduna, eta funtsezkoa da Udala eta bi erakundeen artean ardatz honen inguruko elkarrizketak abiatzea.

*Izan ere, egun duen eskualde arteko komunikabide funtzioa hondarrekoa izanik, Ataungo auzuneen hiri-bilbeetan eragiten duen “zauria” oso handia baita. Ezinezkotzat jotzen da errepideak egun duen eskualdeko izaera berrikustea, baina behintzat bere **ezaugarriak “leuntzea”** funtsezkoa litzateke udalerrriaren garapenerako.*

*Izan ere, GI-2120 errepidearen egungo ezaugarriek talka egiten baitute proiektu honen indarraldian oinarritzkoa izango den helburuarekin, hau da, Elbarrena eta San Gregorio **hiri-poloen artean** hiri-izaera izango duen **ibilbide berri** baten eraikuntzarekin.*

*Ibilbide berri honek hiri-eremuko auzune nagusiak **mugikortasun eredu berritzaile eta unibertsalen** bidez lotu beharko lituzke, eta udalerrriaren garapen integralaren eta lurralde eredu berrikusiaren funtsezko elementua da. Zentzu horretan, Agauntza ibaiaren mendebaldetik burutzen ari den oinezko ibilbideak, bere egokitasuna zalantzan jarri gabe, ezin du ordezkatu aipatu den hiri-izaerako ibilbide berria.*

*Aparkalekuari dagokionez, plangintzako proposamenen garapen maila zehatzago aztertu gabe, garrantzitsua da mahai gainean jartzea **lurrazpiko aparkalekuen** inguruko eztabaida, izan ere, lurzorua artifizializatu eta espazio publikoen kalitatea baldintzatzen baitute, baita bizimodu alternatiboak garatzeko ezinbestekoa den erabilera nahasketa ere.*

➤ **Azpiegiturak.**

Datorren urteetan ezinbestean ekin beharko zaie edateko uraren kalitatea bermatzera bideratutako eskuhartzeei, arazketa sistema egokia ezarriz eta sarea osatzen duen fibrozementuzko hoditeria ordezkatzuz.

Ur zikinen bilketa sarea osatu beharko da halaber, egungo kolektorea luzatuz edota bestelako sistemak (hondakin uren araztegia) ezarriz.

Proiektu honetan proposatzen den garapen eredurako funtsezkoa da telekomunikazio-zerbitzuen sarbidea puntako estandarretan bermatzea, eta Plan Orokorren indarraldirako helburu estrategikoa izan beharko luke.

Bestalde, gas hornikuntzaren sarea hedatzeari uko egin gabe, energia berriztagarrien (fotovoltaikoa, eolikoa, hidroelektrikoa, biomasa...) instalakuntzek sor ditzaketen eskakizunak aurreikusi beharko dira, adibidez, auzo berogailu sistema zentralizatuak edo “district heating” deritzonak.

➤ **Landa-eremua eta baserria.**

Esan bezala, udalerriko landa-eremuak eta barreiatu zabalak proiektu honetan proposatutako ereduaren bigarren lurralde-unitatea osatzen du, eta berariazko azterketa eta tratamendua galdegiten ditu.

Izan ere, landa-eremuko bizitegiek (baserriek), jarduera ekonomikoek (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, turismoa...) eta ingurumen naturalak osoko ikuspegia aldarrikatzen duen multzoa osatzen baitute, gure iritziz.

Zentzu horretan, klima aldaketak eragin duen zibilizazio-krisiaren eta gizarte bezala sortzen dizkigun erronken aurrean, parez pare kokatzen da lehen sektoreak azken hamarkadetan jasan duen gainbehera sakon eta etengabea, eta ez da erraza bi auziei modu bateragarrian erantzutea, giza-talde ezberdinen ikuspegiak askotan ezin adiskidetuzkoak baitira.

Ondorioz, landa-eremuaren arazoari erantzuteko, proiektu honen ahalmenetik haratago doazen gizarte-adostasunak eta herri-ekimenak behar dira, zalantzarik gabe. Eta gainera, udal hirigintza plangintzak lurzoru ez urbanizagarrian eragiteko duen gaitasuna, edo lege-eskumena, nahiko mugatua da, eta alorreko lurralde plangintzak xedatutakoa bere egitera mugatzen da askotan.

Hori esanda, Ataungo baserriek egun oraindik gorpuzten duten ondare kultural aberatsa babestea izan beharko luke hirigintza plangintza berriaren helburu behinena. Eta hori, ahal dela, bizitegi eta inguruko landa-eremuaren ustiategi gisa baserriak historikoki izan duen erabilera edo funtzio bikoitza galdu gabe egin beharko litzateke.

Hala ere, jakitun gara udalerriko baserri gehienetan (%87) ez dela jada lehen sektoreko jarduerarik garatzen, eta asko (%31,9) hutsik daudela. Beraz, ondasun eraikia babesteko eta birgaitzeko behar den inbertsio handiari aurre egiteko modu bat izan liteke baserriari erabilera hiritarragoak esleitzea. Adibidez, bizitegi erabilera hutserako partzelazioak eta segregazioak baimenduz, horrek ez soilik egungo baizik eta etorkizuneko erabilera nahasketak ere hipotekatuko lituzkeen arren.

Izan ere, lehen sektoreak (nekazaritzak, abeltzaintzak eta basogintzak) udalerrriaren garapen endogenoan jokatu behar duen papera, bere izaera jasangarriari eta estentsiboari lotua etorriko baita, inolaz ere ez ekoizpen eredu intentsibo edota industrialari.

Eta egun lehen sektoreak beharrezko dituen azpiegitura berrien eraikuntzak bateragarria izan beharko luke udalerriaren ingurumen- eta paisaia-ondarearekin, ATAUN marka tradizioan errotu eta etorkizunera proiektatu nahi bada.

Beste aukera bat litzateke, aipatu ingurumen- eta paisaia-ondarea baliatuz, baserriak ostalaritza erabileretara bideratzea, beti ere turismo eta aisialdi jardueren jasagarritasuna eta hazkunde orekatua bermatuz.

A2.2 HERRITARREN PARTE-HARTZEA: ATAUN EGIN ELKARREKIN. HERRI PLANA

Ataun egin elkarrekin. Herri plana herritarren parte-hartze prozesua 2023ko otsaila eta Abendua bitartean garatu zen, erabat euskaraz, Ataungo gizarte eta hizkuntz errealitateak eskatzen duen moduan, ia bere osotasunean euskalduna den biztanleria izaki.

Horretarako baliabide material eta giza-baliabideak aurreikusi baziren ere, ez da inolako itzulpen edo esku-hartzerik behar izan, ezta inolako euskarririk euskaraz bestelako hizkuntzan lantzea ere, ez bait du inork halakorik eskatu.

Ondorioz, aipatu parte-hartze prozesuari dagokion azken txostena jatorrizko bertsioan, hau da, erabat euskaraz, transkribatzen da ondoren.

DIAGNOSTIKO PARTEKATUA

0. AURREKARIAK

Ataungo Plan Orokorraren idazketa lanaren lehen urrats bezala abiatutako prozesua da *ATAUN EGIN ELKARREKIN. HERRI PLANA*.


Plan Orokorraren diagnosia idazteko garapen teknikoak hiru hanka ditu: Hirigintza, Sozio-ekonomia eta Ingurugiroa. Arlo bakoitza garatzeko arduradunak Astazaldi Arkitektura eta Hirigintza Estudioa, GISLAN, azterketa sozioekonomiko eta demografikoaz eta Ekolur Ingurumen Aholkularitza dira hurrenez hurren.

Alor bakoitzetik osatutako lanketak Aurre diagnosi Teknikoa osatu du 2023ko abuztuan emandako txostenean. Hori oinarri *ATAUN EGIN ELKARREKIN. HERRI PLANA* jarri da martxan jakintza teknikoak eta herritarren esperientziak orekan jarritz Diagnostiko Partekatua lantzeko. Aztiker Soziologia Ikerkuntza hartu du herritarrekin egiten ari den prozesurako diseinu eta lanketaren ardura.

Honako helburu nagusiak bilatzen dira:

- Hasieratik, lehen urratsetatik bai herritarrek eta baita erakundeek ere herriko asmo nagusien berri izatea
- Herritarren eta eragileen iritzia, beharrianak eta proposamenak mapa konpartituan kokatzea
- Herritarren proposamenak interes partikularretik interes kolektiboen eremura mugitzea: beharrianen, interesen eta proposamenen lotura eta sareak eraiki.
- Diagnosi tekniko osotasunean ezagutu eta herri diagnosi bilakatzeko urratsak eman.
- Herrian hirigintzaren eta bere prozesuen inguruko ahalduntzea garatzea. Hirigintzaren ardatzaren baitan gainerako eremu eta disziplinen integrazioaz eta interakzioaz jabetzea.
- Lankidetzako gobernantza eredua sustatzea: dauden iritzien, aukeren eta erabakien erantzukizun partekatua sustatzea.

Ondorengo eskemak azaltzen du fase honetako lanketa:



1. METODOLOGIA

Erabilitako metodologia Ikerketa-ekintza parte hartzailea deritzon prozesu motan oinarritzen da, eraldaketa une eta proiektuetara erraz egokitzen den metodologia baita. Prozesua aurrera joan ahala, parte hartzaile izango diren subjektuek beraien iritzia erabakiko dute, eta adostasun kolektiboetan oinarritutako proposamenak eraikiko dituzte.

Lehen aurkezpenak eta saio monografikoak herritarrei lekua eta boterea eskaintzeko izango dira, eta proiektuarekiko herritarren ahalduntzea izango dute helburu. Horietan, herritarren interesekin konektatzeko heldulekuak topatzea bilatuko da, ahalduntzeak gora egin dezan, eta benetan herri lanketan norabidera gerturatu dadin.

- Lehen aurkezpen eta saio monografikoen herritarrei lekua eta boterea eskaintzeko izan dira, eta proiektuari buruzko herritarren ahalduntzea izan dute helburu. Horietan, herritarren interesekin konektatzeko heldulekuak topatzeko ahaleginak egin dira, aipatutako ahalduntzeak gora egin dezan, eta benetan herri lanketarantz gerturatu dadin.
- Iritzi eta proposamenen bilketa dinamikak eta DELIBERAZIOA. Deliberazioak egungo bizi estilo konplexuari egokitutako erabaki konplexuak hartzeko aukera ematen du, interes ezberdinen batuketa hutsal batetik haratago, eta begirada kolektiboaren paradigmatic, herri begiradaren paradigmatic. Iritzi eta proposamenen bilketatik haratago doa, elkar entzun, elkar ulertu eta kokatu, eta horren ondorioz, interes kolektiboen begiradaren arabera, elkarrekin sortu kontsentsua: elkarrekin sortu komunitatea.

Informazioa etengabe transmititu da. Espreski prozesurako sortu dira informazio guneak eta euskarriak, hala nola, ekarpenak jasotzeko kanal desberdinak ere.

1.1. AURREDIAGNOSI TEKNIKOAREN AURKEZPENAK

Dokumentuaren haserako eskemak jasotzen duen bezala, Aurre diagnosi Teknikoa 3 arlo nagusi uztartuz osatu da, ingurumena, sozio-ekonomia eta hirigintza arloak alegia. Aurre diagnosi Teknikoak informazio trinkoa eskaintzen du. Sarrera gisa laburpen dokumentua aurki daiteke. Bertan, hiru kapitulutan Ataunen irakurketa jasotzen da, hala nola, arlo bakoitzaren inguruko kezka eta erronka nagusiak.

Aurre diagnosi teknikoaren hiru aurkezpen burutu dira.

HERRITARRAK ETA ONGIZATEA. Aia. (2023/10/04)

Saio honetan Ataungo demografia eta sozio-ekonomiaren argazkiaren laburpena eta datu esanguratsuenak partekatu eta gako zein erronka nagusiak mahai gainean jarri ziren:

Udalerriaren biziberritze demografikorako bi gako nagusi daude:

- Lehenengo: gaur egungo 0-19 urte bitarteko belaunaldi oparoa udalerrian errotzea.
- Bigarrena: orain arte ez bezala, BOL eremuaren hazkundea baliatzea.

Garapen sozio-ekonomikoari dagokionez honako gakoak azaldu ziren:

- Berezko barne-garapenak potentzialtasun mugatua du eta barne produktu gordina, hau da, aberastasunaren sorkuntza handitzeko aukera kanpo garapenetik etor daiteke
- Ataunek Goierriko dinamismo ekonomiko handiko eremuekiko (BOL) duen menpekotasun harremana agerikoa da, eta udalerriaz gairik lurrean ere duen garapenak ez du mendekotasun hori zuzentzeko joerarik erakusten, handitzekoa baizik.
- Ataungo udalerrriaren garapen endogenoak ez du eskualdeko ekonomia egiturak udalerrian sortzen duen ongizatea ordezkatuko, epe motz-ertainen behintzat, baina herri-identitate berri baten ardatza izan daiteke, ATAUN markaren sorkuntza bidean.

Edukien aurkezpenaren ondoren, herritarren txanda izan zen. Jarraian, labur, herritarren kezka eta proposamenak:

AURRERA BEGIRA: ERRONKA ETA KEZKA NAGUSIAK DEFINITU

- Zeintzuk dira Ataunek dituen erronka nagusiak?
- Zaintza zerbitzuak (bereziki hirugarren adinari lotuta).
- Lehenengo sektorea: iraultza baten beharra.
- Nola PRESTIGIATU gurea den hori (hiria Vs landa; lanbideak...).
- Migrazioa eta bizikidetzak. Herriaren nortasunari heltzeko estrategiak landu behar dira.
- Generoa. Dagoen errenta arrakalari atentzioa.
- Euskara.
- NATURAtik abiatu sortu edo sustatu nahi den hori.
- Komunitatea, herri proiektua. Datozen erronkei ez zaie aurre egingo instituzioetatik soilik. Herri proiektuak sortu eta landu behar dira.
- Zerbitzuak eta azpiegitura: zer eskaini, jakinda ezin dituela ondoko herrietako zenbaitekin "konpetitu".

Erronka horiei aurre egiteko, zer landu behar dugu herri bezala?

- Zaintza
- Natura
- Lehen sektorea
- Gazteak: bertako bitzitza eta bizimoduaren prestigioa
- Generoa
- Euskara
- Herriaren nortasuna
- Komunitatea

Guztiak behar du integrazioa eta proiektu komuna indartu, txapela berdinarekin azpian!!!

Lotura honetan aurkezpenaren dokumentazioa ikus dezakezu: [Aurkezpena-1-SAIOA.pdf](#)

Lotura honetan aurkezpen saioaren akta ikus dezakezu: [Memoria-1.-SAIOA-20231004.pdf](#)

LURRALDEA ETA INGURUMENA. San Gregorio. (2023/10/05)

Saio honetan Ataungo lurralde eta ingurumenaren argazkiaren laburpena eta datu esanguratsuenak partekatu eta gako zein erronka nagusiak mahai gainean jarri ziren:

Gako nagusiak:

- Ataunek duen erronka demografikoari erantzuteko, hau da, biztanleria errotzeko eta erakartzeko hiri-gune nagusi bat izatea ezinbestekoa da.
- Horretarako, Elbarrena eta San Gregorio arteko lurraldea modu bateratuan garatu beharreko hiri-gune gisa ulertzea proposatzen da, eta lurraldea hiri- zein landa-erabileren mosaiko gisa antolatzea
- Hiri-gune nagusi hori “eko-herriaren” irizpideen arabera garatzea eta eremu osoaren konektibitatea oinezko, bizikleta eta garraio publiko bidez bermatzea izan beharko lukete estrategia nagusiak eta hurrengo hamarkadako proiektu estrategikoak, ATAUN markaren sorkuntzarako zutabe gisa.
- Landa eremuak eta barriatuak (Ergoiena eta Aia auzuneak barne) plangintzaren bigarren lurralde unitatea osatzen du.
- Landa eremuaren eta baserriaren etorkizuna bermatzeko gizarte adostasun zabalak behar dira, hain zuzen ere, ingurumenaren babesa eta lehen sektorearen iraunkortasuna bateragarri egingo dituen ikuspegi orekatuaren inguruan.

- Lehen sektoreak udalerrriaren garapen endogenoan eta ATAUN markaren sorkuntzan jokatu behar duen papera, bere izaera jasangarriari eta estentsiboari lotua etorriko da, inolaz ere ez ekoizpen eredu intentsibo edota industrialari.
- Lehen sektorearen garapenak bateragarria izan beharko luke udalerrriaren ingurumen- eta paisaia-ondarearen ustiapenarekin, ATAUN marka tradizioan errotu eta etorkizunera proiektatu nahi bada.

Erronkak:

- Nola ikusten da hiri-nukleo nagusi bat sortzearen proposamena? Nola eragin diezaioke auzo bakoitzaren identitateari? Eta udalerrriaren identitate/marka sorkuntzari? Nola ulertzen da “eko-hiria” kontzeptua?
- Zein edukiz eta erabileraz osatu beharko litzateke aipatu “mosaikoa”? Nola bermatu hiri-nukleo nagusi horren atal ezberdinen arteko konektibitatea?
- Zein neurri har daitezke baserriaren etorkizuna bermatzeko eta, aldi berean, lehen sektorearen jarduera indartzeko? Nola sustatu onura publikoko eta agrologiako balio altua duten lurren ustiapena?
- Nola egin bateragarri lehen sektorearen sustapena eta ingurumenaren babesa? Nola ustiatu udalerrriaren ingurumen- eta paisaia-ondarea?

Edukien aurkezpenaren ondoren, herritarren txanda izan zen. Jarraian, labur, herritarren kezka eta proposamenak:

AURRERA BEGIRA: ERRONKA ETA KEZKA NAGUSIAK DEFINITU

- Auzo batetik bestera oinez edo bizikletaz lasai eta seguru joateko aukera izatea.
- Nola elkartu auzoak?
- Soroak, lurrak, baratzak babestea. Hauetan ezin da eraiki. Lur urbanizable gehiago ez.
- Hainbeste etxe huts egonda berriak ez eraikitzea. Etxe hutsei irtenbidea eman beharra.
- Nola uztartu balio agroekologikoa duten lurrak babestea eta hirigune nagusi hori sortu/eraikitzea. Zerri emango zaio lehentasuna?
- Kezka hirigune nagusi horrek ez ote dituen Aia eta Ergoien berriro ere baztertzen. Gainbeheran jarraituko ote duten kezka. Aian konektibitate arazo handiak daude. Auzo hauek indartu nahi dira.

Lotura honetan aurkezpenaren dokumentazioa ikus dezakezu: *Aurkezpena-2-SAIOA.pdf*

Lotura honetan aurkezpen saioaren akta ikus dezakezu: *Memoria-2.-SAIOA-20231005.pdf*

ANTOLAMENDUA. San Martin. (2023/10/09)

Saio honetan Ataungo hirigintza eta lurralde antolamenduaren argazkiaren laburpena eta datu esanguratsuenak partekatu eta gako zein erronka nagusiak mahai gainean jarri ziren:

Gako nagusiak:

- Etxebizitza: erronka demografikoari erantzuteko, etxebizitza babestua sustatu (alokairua), etxebizitza hutsak merkaturatu, eta bizimodu alternatiboak eskaini beharko lirateke.
- Ekipamenduak eta zerbitzuak: barne zein kanpo eskakizunei erantzuteko, zuzkidura osatu behar da, hiri-nukleo nagusia indartuz eta beronen konektibitatea sustatuz.
- Espazio publikoa eta gune berdeak: Elbarrenako espazio publiko adierazgarriaren baldintza espazialak hobetu eta (espazio publikoetan oro har) gune naturalak txertatu behar dira.
- Jarduera ekonomikoak: lurzorua hiri-izaerako jardueretara bideratu behar da (LZP), eta hirugarren adinerako zaintza zerbitzuen alorra estrategikoa izan daiteke.
- Mugikortasuna eta aparkalekua: GI-2120 errepidearen funtzioa eta ezaugarriak berraztertu behar dira, hiri-nukleo nagusiko poloen artean (Elbarrena-San Gregorio) mugikortasun eredu berritzaile eta unibertsala sustatu ahal izateko; lurrazpiko aparkalekuen eredia krisian jartzea proposatzen da.
- Azpiegiturak: telekomunikazio-zerbitzuen sarbidea puntako estandarretan bermatzea eta energia berriztagarrien instalakuntzak sustatzea dira erronka estrategikoak.

Erronkak:

- Non eta nolako etxebizitzak eskaini beharko lirateke Ataunen hurrengo 10-15 urteetan erronka demografikoari aurre egiteko?
- Zein hutsune sumatzen ditu ataundarrak ekipamenduei edota zerbitzuei dagokienean? Zein ekarpen egin diezaioke alor honek aberastasunaren sorkuntzari?
- Onartzen al da espazio publiko adierazgarri bakarria Elbarrenan egotea? Nolako espazio publikoak nahi ditugu?
- Zer egin behar da Ajarrestako eremuarekin? Zein jardueraren alde egin beharko litzateke apustu? Non?
- Onartzen da hiri-nukleo nagusiko poloen arteko ibilbide berria dela Plan Orokorraren indarraldiko helburu garrantzitsuenetakoa? Nola irudikatzen da?
- Zein ekarpen egin dakizkioke alorrez alor “eko-hiriaren” garapenari?

Edukien aurkezpenaren ondoren, herritarren txanda izan zen. Jarraian, labur, herritarren kezka eta proposamenak:

AURRERA BEGIRA: ERRONKA ETA KEZKA NAGUSIAK DEFINITU

- Zer egingo dugu gure ondare naturalarekin? (biodibertsitatea,...). NATURA-k leku garrantzitsua izan behar du hartzen den norabidean
- Energetikoki burujabe izateko urratsak eman: kontzientzian eta bitartekoetan. Elikaduran burujabetza erronka ere bada
- Baserriak. Gainbehera egoeran. Baserriak hustu ahala basoak sasiz betetzen. Ondarea, etxebizitza aukerak... Zailtasunak: eraikina salbatu baina nola eta zer hipotekatu? Ez dago adostasuna baserrien etorkizuna nola. Arriskuak: espekulazioa; etxebizitzetan partitzen bada, jada ez da baserria izango, baserria eraikina bai, baina lurrak eta hauen ustiaketa ere bada
- Nola egin gazteak hemen errotu eta bizimodua egin nahi dezaten
- Etxebizitza. Etxe hutsa erabilgarri jartzeaz gain, etxebizitza berriak eraiki behar dira, ez etorkizunean, jada berandu gabiltza
- Herri giroa. Herri giroa sustatu behar da, herria elkartu, ez ekintza berezietan bakarrik, edozein momentutan. Horretarako beharrezkoa ikusten dut plazan TABERNA jartzea, eraikitzea (Botika etxean). Herria sakabanatuta dago, plaza bizi bat behar da, Euskal Herriko edozein herritan ikusten den plaza edo herrigune bizia. Hori osatu edo tabernarekin lortuko da. Goierrik Hitzak duela aste batzuk zekarren artikuluak zioen bezala Herriko ostatuak herri txikietako arnas gune dira, herriaren BIHOTZ.
- Gazteak herrian gelditzea nahi badugu, etxebizitza eta herri giroa bermatu behar dira.
- Errepidea desbideratzea beharrezkoa ikusten dut, lasaitasuna eta segurtasuna bermatzeko.
- Kalean, plazan egoteko aterpea behar da, neguan babesteko eta udan itzala izateko.
- Eskolako parkea. Berritzea ezinbestekoa da, lotsagarri dago
- Etxebizitzak bermatu gazteentzat
- Adineko jendearentzat ekipamenduak
- Umeentzako parke egokiak, aterpe edo itzal guneak, ur txorroen parkea
- Herriko ostatua plazan, bizia emateko eta jendea lasai elkartzeko
- Asteburuetan nukleoa peatonalizatu

Lotura honetan aurkezpenaren dokumentazioa ikus dezakezu: *Aurkezpena-3-SAIOA.pdf*

Lotura honetan aurkezpen saioaren akta ikus dezakezu: *Memoria-3.-SAIOA-20231009.pdf*

1.2. DELIBERAZIO JARDUNALDIA

Deliberazio jardunaldiaren diseinurako oinarria dira diagnosi teknikoaren datu eta sintesiak eta aurkezpen saioetan herritarrek mahai gaineratutako kezak. Eduki horiekin diseinatu da egun osoko deliberazio jardunaldia.

Jardunaldiaren lehen zatian diagnosi teknikoaren laburpen bat egin dute Astazaldi, Ekolur eta GISLANeko kideek: datu esanguratsuenak aurkeztu eta erronkak gogoraraziz.

Horrekin batera, hiru aditu/arituk aurkezpen bana egin dute bi helburu aintzat hartuta: landu behar diren gaietarako marko bat sortzeko ekarpen bat egin eta inspiratzailea izan daitekeen esperientziaren bat ekarri.

Marijo Imaz, Urduñako teknikariak, *Elikadura Sistema Herri Antolamenduko Plan Orokorretan* izenburupean Urduñako esperientzia izan du hizpide, zeinean garapen eredu alternatibo eta burujabetza esperientzia aletu du.

Esperientzia honek agroekologikoa duen tokian tokiko elikadura – sistema alternatiboa du oinarri. Prozesuan emandako urratsak azaldu ditu.

Eta elikadura?

Elikadura behar bat da , eskubide bat.

Landa eremuan ekoizpenerako lurak babestu behar dira .

Hirigunean elikagaiak transformatzeko azpiegiturak jasoko dituen espazioak sortu behar dira.

Hirigunean elikagaiak merkaturatzeko espazioak sortu behar dira.

Gaur egun nola elikatzen gara? Non egiten ditugu erosketak? Zein da gure elikaduraren aztarna?

Zenbateko lurzoru azalera behar dugu gure herria elikatzeko? Zenbateko larre azalera gura artaldeak elikatzeko? Non merkaturatzen dira herrian ekoiztutako produktuak?

Non eraldatzen dira lehengaiak?

Urruñako proiektu agroekologikoak galdera hauei guztiei erantzun integrala eman die, horretarako, ezin bestekoak diren sareak, azpiegiturak eta politika publikoak bultzatuz.

Iñigo Cantero, Donostiako Udaleko Partaidetza teknikariak *Gizarte kohesioa* izan du hizpide. Komunitatea indartzearen garrantziaz eta horretarako, hirigintza zein espazio publikoek jokatzen duten errolaz aritu da. Laburtuta, hauek izan dira bere hitzartzearen gako nagusiak:

- Geroz eta aniztasun handiagoko gizarte honetan, gizarte kohesioa sustatzeko
- Berdintasunaren alde eta bazterkeriaren aurka borroka egiteko
- Gaur egungo erronka konplexuei aurre egiteko,
- Komunitatea sendotu beharra dugu. Ezberdinen arteko harreman sarearen dentsitatea handitu.
- Hirigintzak badu eragina. Eta ondorioak jaso orde (efektu kolateralak bezala), sustatu nahi dugun hiri eredurantz jotzeko tresna bezala baliatu beharko genuke.
- Lehenetsunetako bat harreman errepikakorrak ahalbidetuko dituzten testuinguruak eta aukerak sortzea da.

Ibai Marcosen eskutik Usurbilgo Txirikorda esperientzia aurkeztu da. Etxebizitza modu alternatibo bat, non belaunaldi arteko topaketari garrantzia ematen zaio bai etxebizitzak duen forma eta ekipamenduengatik, baita ere bertako bizilaguna izateko bete behar diren baldintza eta konpromisoengatik. Intentzionalitate argia dago proiektuaren atzean: bizitza komunitario sustatzea.

Espazio eta zerbitzu konpartituak:

- terrazak, garbigailu gela, jangela eta erabilera anitzeko gela
- terraza komunitarioa
- erabilera anitzeko espazioa
- txoko-jangela familiarekin, lagunekin erabiltzeko txirikordatar baten presentziarekin
- erabilera anitzeko aretoa harriko jarduera soziokulturalak egiteko. (udal ekipamendua)

Auzotarrak eta konpromisoak:

- 18-30 urte bitarteko gazteak: 5 urtez gehienez eta haien diru sarreraren %15 gehienez
- urtero udalarekin lankidetzak ekitaldi edo proiektu herrikoi bat antolatzeke
- 65 urtetik gorako herritarrak jabegoan etxerik ez dutenak
- Aldiro ekintza bateratuak: hilean behin, bi hiletik behin...

Lehen parte honen ondoren, bigarren lanketa parteari ekin zaio: deliberazio ariketari. Horretarako, sei gairen inguruan zortzi lan-mahai osatu dira. Hiru gai goizean landu dira, eta beste hirurak arratsaldean.

Herritar bakoitzak beren interesen arabera aukeratu du zein lan mahaietan kokatu. Bi plenario egon dira jardunaldian landutako eduki guztiak guztion artean partekatzeke.

ONDARE NATURALA ETA GARAPEN EKONOMIKOA

ONDAREA

- Naturala: paisaia, hezkuntza, turismoa
- Kulturala: Barandiaran Museoa, hizkuntza (euskararen arnasgune), mitologia (jentilbaratza)
- Jarduerak herriratu, herriari begira Produkzio lekuak/baratzak behar dira. Hauek non kokatu eta etxebizitzak non aztertu beharko da.

LEHENENGO SEKTOREA

- Lur publikoak eskaini behar dira eta proiektu berritzaileak erraztu eta bultzatu bertan.
- Sektoreko pertsonak elkartu estrategia bateratua egiteko, eta elkarkidetzaz hori lagundu, bide laguntza eskaini haiei.
- Modelo aldaketa. Produkzio sare berria sortu. Nekazariak elkarrekin saretu.
- Transformazioak globalki baliatu, eta osatzera jo (ez bikoiztu inguruko herrietan sortzen ari diren baliabideak).

Elikadura: udal jantokia. Balio konpartitua da elikatzea, eta lehen sektorea indartzeko eta eraberritzeko elikadura izan dadila ardatza. Udalak proiektu eta zerbitzu denetan txerta dezala bertako jakien irizpidea. Hortik herritarrengana eta eskualdera...

ZERBITZUA behar da dena lotzeko eta denari koherentzia eta lotura emateko: EKOIZPEN ATAUN bulego zerbitzua. (Orduñaren ereduan).

ERRONKA DEMOGRAFIKOA

- Gazteak bertan errotzeko aukerak larri sumatzen dira.
- Adinekoak. Hutsunea dago bertan (?), zerbitzuak behar dira
- Auzoen arteko lotura egiteko aukerak: etxebizitzekin eta zerbitzuekin(?) Herri bizia eta bizigarria. JARDUERA EKONOMIKOekin

ETXEBIZITZA

- Etxebizitzak non eraiki?: Elbarrena inguruan? San Martin edo San Gregorion?
- Bereizi behar da: Zein lur nekazaritzarako? Zein etxebizitzetarako? Zein ekipamenduak jartzeko?
- Gazteak behar tenporala: Alokairua.

- Familiek salto etxe handiagoetarantz.
- Baserriak zatitzeko traba. Hau erraztu behar da, aukera eman baserriak zatitzeko.
- Merkatu dinamikoa irudikatu eta bultzatu behar da (etapaka: gazteak, familiak, nagusiak...).
- Etxe hutsak (%30) vs berriak: ongi aztertu behar da eta orekatu neurriak.
- Auzoen arteko konexioak landu etxebizitzekin. Auzoen artean egoteko lekuak, parkea... mosaikoa.
- Etxe kopuru handia baino, proiektu txikiak egin pixkanaka (eraiki faseka, beharren arabera eta aukeren arabera).
- Etxebizitza bulegoa. Udal baliabidea.
- Baserri hutsak eta sakabanatuak.
- Baserriak eraiki ziren mendien kontra eta errepidearen kontra, eta hauen artean nekazal lurrak izan dira beti. Eskema hori mantendu edo aztertu behintzat

EKO-HERRIA

- Komunitateari begira.
- Burujabea.
- Baliabide naturalak.
- Orekatua, justua, duina.
- Denontzat (ikuspegi feminista)
- Ongi bizitzeko herria.
- Lehen sektoreari lotuta.
- Mugikortasuna. Nola lotu (?)
- Kultura, hezkuntza
- Lur inundagarriak: lanketa egin
- "Ataun egin elkarrekin" baina zein gara Ataun? Hausnarketa inklusiboa behar da. Jatorri aniztasunari lekua egin, aniztasun ekonomikoari, e.a.
- Zaurgarriagoak direnei ze harrera?

ATAUNEN PAPER A BOL EREMUAN

- Berezko ondarea eskaintzen dio BOLI.
- Ataundarroi begira jarri zerbitzuak. Lehenengo gure beharrei eman erantzuna; gero eskualdeari begira.
- Estrategia: lehen sektorea indartzea.

- Zaintza: espazio partekatuak, transmisioa, kapitala...
- Ajarresta (?), zer egin? Zertarako erabili lur eremua?
- Ataun marka ordeztu, harrotasuna.

HERRI NUKLEO NAGUSIA ETA AUZOAK

- Herri nukleoa: San Gregorio eta Elbarrena lotzeko bidegorria (kaxetaraino?)
- Mugikortasun kultura = kotxea. Irauli behar da, eta zaila da
- Funtzionatuko ote duen zalantza.
- Helburu handien bila jo behar da eta betetzen joan pixkanaka.
- Piztina: hiri eremuan ekipamendua edo erreka ondoan.
- Elbarrena zeharkatzen duen errepidea (?) desbideratzeko aukera. Erdigunea oinezkoa izan dadila.
- Etxebizitza
- Zergatik ez dira etxeak egiten?
- Besteek eskaini ezin duten eskaintza egin.
- Etxebizitzak bukatu (eskeletoa). Proiektu berritzaileak
- Ez bikoiztu zerbitzuak, osatu.
- Aiako egoera aztertu. Baserri sakabanatuak. Zerbitzuak hobetu.
- Lurrak berreskuratzeko aukera landu (?)

A2.3 PLAN OROKORRAREN FORMULAZIOARI EGINDAKO TXOSTENAK

Jarraian Plan Orokorra formulatzeko akordioan eskumendun administrazioei galdegindako eta orain artean jasotako txostenak atxikitzen dira. Hauek dira, ordena kronologikoan:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuko Ondare Historiko-artistikoko Zerbitzuak helarazi duena, 2024ko apirilaren 10ean sinatua (2024-000001961).
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapenerako eta Lurralde Orekarako Zerbitzuak helarazi duena, 2024ko apirilaren 11ean Lurralde Oreka Berdeko Foru Diputatuak sinatua.
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak helarazi duena, 2024ko apirilaren 24an sinatua (3HI-016/24-N35).
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak eta Euskal Kultura Ondarearen Zentroak helarazi dutena, hurrenez hurren, 2024ko maiatzaren 16an eta 15ean sinatua.



GAIA / Asunto: Ataungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra./ Plan General de Ordenación Urbana de Ataun.

HERRIA / Localidad: ATAUN

ERREGISTRO ZENBAKIA / Nº registro: 2024-000001961 **DATA / Fecha:** 2024-04-04

ESKATZAILEA / Solicitante: Ataungo Udala / Ayuntamiento de Ataun.

Gaia: **Ataungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra.**

Asunto: **Plan General de Ordenación Urbana de Ataun.**

TXOSTENA

INFORME

2024ko apirilaren 4ko erregistro sarrera data duen idatziaren bitartez, Ataungo Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra erredaktatzeko Foru Aldundiko Kultura Departamentuari eskatzen dio irizten dion txostena helaraztea.

Idatzi honekin batera, Kultura Departamentuko Ondare Historiko-artistikoko Zerbitzuko datu baseko elementuen zerrenda orientagarria bidaltzen da, ondare arkitektoniko eta arkeologikoko elementuen azterketa egiterakoan kontutan hartzeko. Bertan elementu bakoitzaren deskribapena, ondare mota eta babes maila agertzen da.

Kultur Ondarearen babes maila dagokionean, 14/2023 LEGEA, azaroaren 30ekoa, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzekoa-k honakoa finkatzen du:

“1. artikulua.– Aldatu egiten da Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 8. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

«8. artikulua.– Babes-mailak.

Mediante escrito con fecha de entrada de registro de 4 de abril de 2024, el Ayuntamiento de Ataun solicita al Departamento de Cultura de la Diputación Foral que remita el informe que proceda para la redacción de del Plan General de Ordenación Urbana.

Adjunto a este escrito, se remite la relación orientativa de elementos de la base de datos del Servicio de Patrimonio Histórico-Artístico del Departamento de Cultura para su consideración en el análisis de los elementos del patrimonio arquitectónico y arqueológico. En ella aparece la descripción de cada elemento, el tipo de patrimonio y el grado de protección.

LEY 14/2023, de 30 de noviembre, de modificación de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco establece lo siguiente en cuanto a los niveles de protección:

“Artículo 1.– Se modifica el artículo 8 de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, con la siguiente redacción:

«Artículo 8.– Niveles de protección.



1.– Euskal kultura-ondarea osatzen duten ondasunak, dagokien babes-mailaren arabera, honelakoak izango dira:

a) Babes berezia duten kultura-ondasunak: babes berezia jasoko dute lege honen 2.1 artikuluko kultura-balioetako bat duten EAEko kultura-ondasun higiezin, higigarri eta immaterial nabarmenenek.

b) Babes ertaina duten kultura-ondasunak: babes ertaina jasoko dute lege honen 2.1 artikuluko kultura-balioetako bat duten EAEko kultura-ondasun higiezin eta higigarri garrantzitsuek.

c) Oinarrizko babesa duten kultura-ondasunak: oinarrizko babesa duten kultura-ondasunak izango dira lege honen 2.1 artikuluan aipatutako kultura-balioetakoren bat duten eta udalek une bakoitzean indarrean dauden udalaren hirigintza-plangintzako katalogoetan hala zehazten dituzten kultura-intereseko higiezinak, zaharberritze zientifikoko edo zaharberritze kontserbatzaileko jarduketak merezi dituztelako.

Nolanahi ere, oinarrizko babeseko kultura-ondasunen izaera galduko dute babes berezi eta ertainekotzat jo diren edo jotzen diren eta, beraz, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartuta dauden kultura-ondasunek.

2.– Aurreko sailkapena udal-babeseko kultura-ondasunen sailkapenarekin osatuko da. Azken horiek hirigintza-plangintzan eta udal-katalogoetan

1.– Los bienes que componen el patrimonio cultural vasco se clasificarán en alguno de los siguientes niveles de protección:

a) Bienes culturales de protección especial: se declararán bienes culturales de protección especial aquellos inmuebles, muebles e inmateriales más sobresalientes de la CAPV que reúnan alguno de los valores culturales citados en el artículo 2.1 de esta ley.

b) Bienes culturales de protección media: se declararán bienes culturales de protección media aquellos inmuebles y muebles relevantes de la CAPV que reúnan alguno de los valores culturales citados en el artículo 2.1 de esta ley.

c) Bienes culturales de protección básica: serán bienes culturales de protección básica aquellos inmuebles de interés cultural que reúnan alguno de los valores culturales citados en el artículo 2.1 de esta ley y que así se determinen por los respectivos ayuntamientos en los catálogos vigentes en cada momento en el planeamiento urbanístico municipal por ser merecedores de actuaciones de restauración científica o de restauración conservadora.

En todo caso, perderán la condición de bienes culturales de protección básica aquellos que hayan sido o sean declarados de protección especial y media y, por tanto, incluidos en el Registro de la CAPV del Patrimonio Cultural Vasco.

2.– La clasificación anterior se complementará con la de los bienes culturales de protección municipal. Estos últimos se determinarán en el



zehaztuko dira, eta tresna horietan ezarritako babes-araubidearen mende egongo dira.”

planeamiento urbanístico y en los catálogos municipales y estarán sujetos al régimen de protección establecido en dichos instrumentos.”

Ataungo HAPOaren kultur-ondare katalogoak aipatu babes mailak jaso beharko ditu.

El Catálogo de Patrimonio Cultural del PGOU de Ataún deberá ajustarse a estos niveles de protección.

Bestalde, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren arabera, EAEko lurralde-eremuan kokatuta dauden eta aldi berean Euskal Kultura Ondarearen uztailaren 3ko 7/1990 Legearen babespean kultura-ondasuntzat jo diren ondasun higigarri eta higiezin guztiak babes bereziko kultura-ondaretzat joko dira, baldin eta Kalifikatutako Kultura Ondasunen Erregistroan sartu badira, eta babes ertaineko kultura-ondasuntzat, berriz, Euskal Kultura Ondasunaren EAEko Inbentario Orokorrean sartu badira.

De acuerdo con la disposición adicional primera de la Ley 6/2019, de Patrimonio Cultural Vasco, todos los bienes muebles e inmuebles situados en el ámbito territorial de la CAPV declarados simultáneamente como bienes culturales al amparo de la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco, que hayan sido incluidos en el Registro de Bienes Culturales Calificados y en el Inventario General de la CAPV del Bien Cultural Vasco, tendrán la consideración de bienes culturales de protección especial y media.

Gure datu basean izendapenak eguneratu gabe daude, eta oraindik babes bereziko elementuak kalifikatuak bezala agertzen dira eta babes ertainekoak inbentariatuak izendapenarekin.

En nuestra base de datos las denominaciones están sin actualizar y todavía aparecen los elementos de protección especial como calificados y los de protección media como inventariados.

HAPO-ko katalogo egiterakoan, elementu bakoitzaren banabanako fitxa egitea gomendatzen dugu. Elementuaren kokapena, deskribapen orokorra, ondare intereseko baloreak, argazkiak, babes erregimena, eta kontserbazio egoera jasotzen duena.

A la hora de elaborar el catálogo del PGOU, se recomienda realizar una ficha individual de cada elemento que recoja la localización del elemento, su descripción general, valores de interés patrimonial, fotografías, régimen de protección y estado de conservación.

Azkenik, 2020ko azaroan Eusko Jaurlaritzaren ONDAREA Kultur Ondare Zentroak Ataungo udal-herrian babesteko proposatutako elementuen zerrenda egin zuen, jarraian zehazten dena. Hala, gomendagarria litzateke elementu horiek ondare katalogoan jasotzea.

Por último, en noviembre de 2020 el Centro de Patrimonio Cultural ONDAREA del Gobierno Vasco elaboró una relación de los elementos propuestos para protección en el municipio de Ataun, que se detalla a continuación. Así, sería recomendable incluir estos elementos en el catálogo patrimonial.



Ataun		
Propuesta Protección Media		
17	IGLESIA DE SAN GREGORIO MAGNO	san gregorio auzoa
19	IGLESIA DE SAN MARTIN DE TOURS	san martin helbarrena
2	CASA CONSISTORIAL	san martin helbarrena
23	CASERIO ARAMBURU ENEA	arrondo auzoa
25	CASERIO BAZTERRIKA	arrondo auzoa
30	CASERIO AIALDE HAUNDI	ala auzoa
34	CASERIO IZAATE HAUNDI	urretsu mendialdea auzoa
39	MOLINO ERROTA GOIKOA	ala auzoa
50	FUENTE SAN MARTIN	san martin helbarrena
Propuesta Protección Local		
1	TABERNA BERRI	san martin helbarrena
11	DONE JUANE TXIKIA	san martin helbarrena
12	IGLESIA VISITACION DE NUESTRA SEÑORA	ala auzoa
13	ERMITA DEL SANTO CALVARIO	astigarra auzoa
14	CASA URBITARTE ENEA	san martin helbarrena
15	CASA UPATEGUI	san martin helbarrena
16	CASA DON JUANE HAUNDIA	san martin helbarrena
18	CASA ARTZUBI	san martin helbarrena
20	CASERIO GOALDE	san martin auzoa
21	CASERIO ZEBERIO ENEA	aitzartealdea auzoa
22	CASERIO ARRATIBEL ERDIKOA	san gregorio auzoa
24	CASERIO ITURRALDE	arrondo auzoa
26	CASERIO TZEMOA	arin auzoa
27	CASERIO MATXITXU	arin auzoa
28	CASERIO URRUTSU	urretsu mendialdea auzoa
29	CASERIO ERRAIONDÓ ZAHAR	ala auzoa
3	SANKRISTAUNE	san martin helbarrena
31	CASERIO INSEKANTZELUZ	aitzartealdea auzoa
32	CASERIO BEGIRISTAIN	ala auzoa
33	CASERIO LAUZI ITURRIETA	lauziferreka auzoa
35	CASERIO ITURRITZA ZAHARRA	san gregorio auzoa
38	CASA DE CAMINEROS	ala auzoa
4	CASA CURAL	ala auzoa
40	MOLINO ERROTA BEHEKOA	ala auzoa
49	ZELEBEAR	san gregorio auzoa
5	CASA ANGULUNEA	san martin helbarrena
51	CASA LAZKAOTEGI	arrondo auzoa
52	FUENTE	san gregorio auzoa
54	FRONTON ZELAI	san gregorio auzoa
57	ANTIGUA ESCUELA	san gregorio auzoa
6	CASA GRAZIÑA BERRI	san martin helbarrena
62	QUEREJETA ENEA	san martin auzoa
63	CASA EN ATAUN	san martin auzoa
64	CASA EN HELBARRENA II	san martin auzoa
65	CASA EN HELBARRENA I	san martin auzoa
66	GOIKOETXEA ENEA	san martin auzoa
67	CASA EN HELBARRENA IV	san martin auzoa
68	CASA EN HELBARRENA III	san martin auzoa
7	CASA BIDARTE	san martin helbarrena
9	CASA JUANIKONEA	san martin helbarrena

Azkenik, aipatu beharra dago, 2011 urtean Zerbitzu honetatik Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari honako elementuen babes eskaera egin zitzaiola:

BASERRIAK

Andresenea
Bazterrika
Garaialde
Zeberione

ELIZAK

San Martin eliza
San Gregorio eliza

Por último, señalar que en el año 2011 desde este Servicio se solicitó al Departamento de Cultura del Gobierno Vasco la protección de los siguientes elementos:

CASERIOS

Andresenea
Bazterrika
Garaialde
Zeberione

IGLESIAS

San Martin eliza
San Gregorio eliza



Aukera honetaz baliatuta, Ondare Historiko-Artistikoko Zerbitzuan eremu honetan elkarlanerako, edo informazioaren elkar trukerako presta daudela agertzen dugu.
Donostian, sinaduraren datan.

Aprovechando esta oportunidad, desde el Servicio de Patrimonio Histórico-Artístico mostramos nuestra disposición a colaborar, o intercambiar información en este ámbito.
En Donostia, a la fecha de la firma.

Ondare H^o-A^o ZERBITZUAREN
ARKITEKTOA / ARQUITECTO DEL
SERVICIOS DE PATRIMONIO H^a-A^a

ONDARE H^o-A^o, ETA ARTXIBOEN
ZERBITZUBURUA/ JEFA DEL SERVICIO DE
PATRIMONIO H^a-A^a Y ARCHIVOS



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

Hir 27-2024 Ataun PGOU

CSV/EKS:

SINA04c810bc-46a1-47c5-8c54-f01e815fce5c



IRTEERA - SALIDA	 Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa Lurralde Oreka Berdeko Departamentua Departamento de Equilibrio Territorial Verde
	2024 A.P.I. 22 ABR.
Zk. / N.º	

Ataungo Hiri Antolamendurako Plan Orokorrak errespetatu behar dituen nekazaritza sektorearen gaineko eraginari buruzko txostena helarazten du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa Garapeneko eta Lurralde Oreka Zerbitzuak.

Donostia, 2024ko apirilaren 11

Sin.: Xabier Arruti Olazabal
Lurralde Oreka Berdeko Foru Diputatua

ATAUNGO UDALA.-



ANTOLAMENDUAK ERRESPETATU BEHAR DITUEN NEKAZARITZA SEKTOREAREN GAINEKO ERAGINARI BURUZKO TXOSTENA

Aztertutako eskaera: Ataungo Hiri Antolamendurako Plan Orokor berria formulatzea (HAPO).

1.- SARRERA

1.1. Aurrekariak

Ataungo Udalbatzak, 2024ko otsailaren 7an egindako ohiko bilkuran, eta *Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen* 90.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, bertako **Hiri Antolamenduko Plan Orokorra** (HAPO) formulatzea erabaki zuen.

Hori dela eta, dauden arriskuei eta antolamenduak errespetatu behar dituen ingurumen baldintzei, kultura-ondarea babesteari eta natura-ingurunea babesteari buruzko txostena bi hilabeteko epean egitea eskatu zaio *Landa Garapena eta Lurralde Oreka Zerbitzuari*.

1.2. Araudia

Nekazaritza-abeltzaintza eremuko lurzorutzat jotzen dira oinarri naturaleko eboluzio prozesu luzeen ondorioz edo gizakiek historian zehar nekazaritzarako egokitu izanagatik emankortasun handia dutenak. Lurzoru horiek ondare komun berriztaezin funtsezkoa osatzen dute, ingurumeneko balio, balio sozial eta ekonomiko handiak baititu.

Funtsezkoak dira nekazaritzako sistemetarako, ekosistemak eta biodibertsitatea mantentzeko, baita haien lurraldeko antolakuntza eredurako ere. Lurzoru horiek lagundu egiten dute nekazaritzako jarduera mantentzen, lurzoru biziak baitira ikuspuntu biofisikotik, baita sozioekonomikotik ere. Azken finean, ingurumeneko funtzio, funtzio produktibo eta historiko-kultural garrantzitsuak betetzen dituzte; eta lagundu egiten dute nola elikagaien segurtasuna eta subiranotasuna lortzen, hala klima aldaketaren kontra borrokatzen eta lurraldea era jasangarrian kudeatzen.

Lurzoru horiek babestea —egun nekazaritzarako erabiltzen direnak nahiz ez direnak— interes orokorrekoetzat jotzen da; eta nekazaritzakoa ez den beste edozein erabilerari gailendu behar zaio (*17/2008 Legea, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa*).

Legeek nekazaritza lurrak defendatzea xedatzen dute; ez soilik balio agronomikoa dutelako, baita biodibertsitatearen eta paisaiaren euskarri eta berme direlako ere. Halaber, desertifikazio eta higadura prozesuak moteltzen edo saihesten dituzte; eta helburuen artean ezartzen dute nekazaritzako lurzoru babestea, bereziki egoera okerrean daudenak edo hirigintzaren eraginpean daudenak.

Ildo horretan, nekazaritza-abeltzaintzako eremuak babestea oinarri duten hainbat lege ditugu; besteak beste:

- *Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartzen duen 177/2014 Dekretuko* 61.2 artikulua zera ezartzen du erabileren eta jardueren kalifikazioaren inguruan: “*Balio Estrategiko Handia azpikategorian aurreikusitako proiektuen edo administrazio-baimenen kasuan, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 17/2008 Legeak 16. artikuluan ezartzen duen*



bezala, nekazaritza-arloko eskumena duen foru-organoak txostena egitea eskatuko da, behin betiko onartu aurretik.”

- Era berean, 177/2014 Dekretuaren 10. artikulua LPSko araudia aplikatzearen inguruan hitz egiten du. LPS-aren loturek udal-plangintzan izango duten eragina zehaztuz:

Araudiari dagokionez:

- a) Udal-plangintzak lurzoru ez-urbanizagarria zenbait kategoriatan sailkatuko du; horretarako, plan honetan jaso eta 46. artikuluan definituta dauden kategoriak erabiliko ditu, LAGek definitutako Babes Berezia kategoriaz gain.*
- b) Udal-plangintzak berariaz jaso beharko ditu Nekazaritza eta Abeltzaintzako Lurzoru Ez Urbanizagarria eta Balio Estrategiko Handiko Landazabala zonei (Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak definituta) lotutako mugaketa eta araudia. Mugaketa hori udal-plangintzak zabaldu ahal izango du, LPS honen helburu orokorrak argudiatuta.*
- c) Udal-plangintzak, gainera, onura publikoko mendien eta mendi babesleen arau-izaera eta mugaketa gainjarritako baldintza moduan jaso beharko ditu.*
- d) Kategoria bakoitzean sartu beharreko erabileren araubidea bat etorriko da plan honekin. Zehazki, balio estrategiko handiko nekazaritza eta abeltzaintza nahiz landazabal gisa kalifikatutako esparruetan, udal-plangintzak ezingo du ahalbidetu aurrez sortutako guneetan oinarrituta ez dagoen hazkunderik, LPParen berariazko definizioa izan ezean.*
- e) Udal-plangintza, lurralde-plangintza eta sektore-plangintza idazteko eta onartzeko izapideetan, nekazaritza-sektorearen gaineko eragina ebaluatzeko protokoloa erabiliko da, LPS honetako «Jardun-tresnak» I. eranskineko D dokumentuaren arabera.*

2.- HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORREAN AURREIKUS DAITEKEEN NEKAZARITZA SEKTOREAREN GAINEKO ERAGINA ALDI BEREKO SEKTORE-ETA LURRALDE-PLANETAN

2.1. NEKAZARITZA ETA BASOZAINZAKO LURRALDE PLAN SEKTORIALA

*Irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bidez onartu zen behin betiko izaeraz, eta honako helburu nagusi hauek ditu: lurra eta, oro har, nekazaritza-sektorea eta haren bitartekoak defendatzea eta babestea, egungo landa-egoera zehaztea eta plangintza landa-irizpideetatik planteatuko duen lurralde-antolamendua bultzatzea. Beraz, funtzio bikoitza du **Nekazaritza eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektorialak (LPS)**: Euskal landa-eremu multiaktibo eta multifuntzional baten bideragarritasuna ziurtatzera bideratutako lurralde-antolamenduaren proposamena; eta eredu hori lurralde-antolamenduaren arloko prozesu erabakitzaileetan sartzeko bide bat irekitzea.*

Sektoreei dagokienez, LPSak Lurzoru Urbanizazinean nekazaritzako eta basogintzako erabilerak arautzen ditu, eta haren antolamendu-eremuak EAE osoa hartzen du barnean, aurretik zeuden hiri-eremuak izan ezik. Azken eremu horiek dira udal-plangintza orokorrean behin betiko onartu zirenean hiri-lurzoru, lurzoru urbanizagarri edo lurzoru urbanizagarri gisa sailkatuta zeudenak.

Kanpoan geratzen dira, halaber, Naturagune Babestuak (Parke Naturalak eta Biotopo Babestuak), Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren eremua eta hezeguneak, Hezeguneen LPSean zehatz-mehatz



ordenatuta daudenak, eta Itsasertzaren Babes Bereziko Eremuak, Itsasertzaren LPSean definituta daudenak.

Indarrean dauden Lurralde Plan Partzialek (LPP) babestutako Lurzoru Urbanizaezinari dagokionez, Nekazaritza eta Basozaintzako LPSaren zonakatzeak izaera subsidiarioa du zona horietan – LPPen nagusitasun juridikoa kontuan hartuta –, LPPak zehaztutako Balio Estrategiko Handiko zonetan izan ezik, horietan lurraldea antolatzeke bi tresnen araudi zorrotzena nagusitzen baita.

Lurzoru urbanizaezina arautzeko oinarri gisa, LPSak arau-elementuen eta soilik ingurune fisikoaren alderdien arteko definizioa eta kontrastea egiten du, honela egituratuta:

- **Erabileren eta jardueren definizioa.**

1997ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan (LAG) proposatutako eskema abiapuntutzat hartuta, zona desberdinetan kontuan hartu beharreko erabilera eta jardueren definizio bat egiten da, eta ñabardura batzuk egiten ditu, hala nola ez kontuan hartzea Kontserbazio Erabilera (ez da erabilera bat berez, helburu bat baizik), Berotegi Erabilera Nekazaritza Erabilerearen barruan txertatzea eta landa-bideak eta pistak erabilera berezi berri gisa sartzea.

- **Antolamendu-kategoriak.**

1997ko LAGetan oinarrituta, zehaztapen eta aldaketa batzuekin. *Babes Bereziko* Kategoria ez da espezifikoki mugatzen, baina gainjarritako baldintzatzaile gisa sartzen dira Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako Natura Intereseko Eremuak eta Eremuak, Natura 2000 Sarean sartutako eremuak (BGL, HBBG), Nazioarteko Garrantzia duten RAMSAR Hezegune izendatutako enklabeak, Korridore Ekologikoen Sarea, Paisaia Gutxi Alteredua duten Eremuak eta 1997ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek ezartzen duten irizpidearen arabera Babes Bereziko ezaugarriak dituen beste edozein azalera. Horietatik abiatuta, eta LAGek adierazten duten bezala, LPPak edo udal-plangintza izango lirateke dagozkien aplikazio-eremuen barruan egokiak diren eremuak Babes Bereziko gisa definitutako lituzketenak.

LPSaren arabera, lurzoru orok nekazaritza eta basogintzarako bokazioa du edo izan dezake, neurri handiagoan edo txikiagoan; beraz, 1997ko LAGetako Erabilera Definitutako Bokaziorik Gabeko kategoria ez zaio esleitu ezein eremuri.

1997ko LAGetako *Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala* kategoriak bi azpikategoria ditu:

- **Balio Estrategiko Handia.** Gaitasun agrologiko handieneko lurzoruak ez ezik, modernotasun, errentagarritasun edo iraunkortasunagatik sektorearentzat estrategikotzat jotzen diren nekazaritza-ustiategietako lursailak ere barne hartzen dituzte, eta, beraz, **horiak mantentzea eta zaintzea lehentasunezkoztat jotzen da beste erabilera batzuen aurrean.**
- **Trantsizioko Landa Paisaia.** Aurreko azpikategoriakoak baino ekoizpen-ahalmen txikiagoa duten eremu landuak biltzen ditu (malda handiagoak), edo landazabaleko eremuak, belardiz eta haiekin mosaikoan dauden baso-unada txikiz estalita. Balio Estrategiko Handiko nekazaritza- eta abeltzaintza-eremuekin edo baso-eremu zabalekin kontaktuan daude berehala, eta bokazioz, bi zentzu horietako batera jotzen dute.



1997ko LAGetako **Basoa eta Mendi Larreak** kategoriak goragoko kategorian batean biltzen dira, Mendia izenekoan, eta hori, aldi berean, lau kategoriatan banatzen da:

- **Basogintza:** gaur egungo erabileragatik edo erabiltzeko bokazioagatik (arriskuak, arrozen babesa, etab.) zuhaitz-estaldura mantentzeko bokazio argia duten lurra hartzen ditu barne, natura-interes handiko baso autoktonoak nahiz espezie aloktonoen landaketak barne. Horien artean, nabarmentzekoak dira radiata pinua, duen hedaturagatik.
- **Basoa-Mendi barbana:** zuhaitzik gabeko eremuak dira, zuhaitz arraroak edo degradatuak dituztenak (sastrakadiak, eremu karstikoak edo malda handiak, luberritutako mendi publikoak eta Arabako illekoak, etab.).
- **Larre menditarrak:** kota altuetan dauden soropil harrapari eta trinkoek osatzen dute, abeltzaintza-aprobetxamendu handia dutenak, baina sasoikoak, eta artzaintza-kultura tradizionalari lotuak, bai eta mendi-eremuak ere, belar-sastrakak garbituz edo beste metodo batzuk erabiliz larreak hobetu dituztenak edo duela gutxi ezarritako larreak.
- **Larre menditarrak-harkaitzak:** horien artean daude harkaitz-horma handiak, irtengune ia bertikalak dituztenak, euskal mendietako kareharrizko formazioen ezaugarri direnak, eta nekazaritza eta basogintza aprobetxatzea ia ezinezkoa dutenak, irisgarritasunik ez dutelako. Flora apartekoa eta bakana duen habitata da, fauna mehatxatuaren babesleku eta habia izanik.

Ingurumen Hobekuntza kategoriak eremu degradatuak biltzen ditu, lurzoru gutxikoak edo gaur egun higadura handia dutenak. Horietan, ekosistema hobetzeko eta leheneratzeko lanak egin behar dira ahalik eta lasterren, baliabidea galtzen jarraitzea saihesteko. Gaur egun dauden harrobiak ere sartzen dira, bai jardunean daudenak, bai bertan behera utzitakoak. Harrobiei antolamendua gaiari buruzko legeriak arautu beharko du.

Azkenik, **Lurrazaleko Uren Babesa** kategorian EAEko ibaien eta erreken eta dagokien babes-eremuak osatzen dute, eta EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean ezartzen da.

Bestalde, **Gainjarritako baldintzatzaileak** antolamendu-kategorietan jardura jakin batzuk garatzeko modua mugatzen dute, kasu bakoitzean aurkeztu den arrisku motaren arabera, eta ingurune fisikoko elementuen tratamendurako eta LAGetan ezarritako eremuetako jardueren erregulaziorako irizpide eta jarraibideen arabera. 1997ko LAGetatik eratorritakoak mantendu dira:

- **Naturgune Babestuak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba:** horien lurralde-antolamendua dagozkion Natura Baliabideen Antolamendu Planetara (BNAP) eta Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planetara (EKZP) lotzen da.

- **Urpean gera daitezkeen eremuak,** EAEko Ibaien eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialean jada kontuan hartutakoak. Eremu horietara mugatzen dira kartografia eta uholde-arriskuak kategorian bakoitzean ekar ditzakeen xedapen gehigarriak.

- **Akuiferoak kutsatzeko arriskuan dauden eremuak:** lurpeko akuiferoak kargatzeko eremuak dira, baliabide horiek kutsatzeko urrakortasun-maila handia edo oso handia dutenak, Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailak egindako EAEko "Akuiferoen kutsadurarekiko urrazte-arriskuaren mapa"ren irizpideen arabera.



- *Eremu higagarriak*: beren ezaugarri litologikoengatik eta erliebearengatik higadura-fenomenoak agertzeko arrisku handia dutenak.

Baldintzatzaile horiez gain, LPSk honako hau adierazten du:

- *Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak*: horien erregulazioa Mendiei buruzko 43/2003 Legean ezartzen da.

- *Natura Intereseko Eremuak*, ondoz ondoko azterlanetan eta plangintza-dokumentuetan inbentariatu eta ebaluatu direnak barne (adibidez, LAGetako Natura Intereseko Lekuen zerrenda), Ramsar Hitzarmenaren esparruan katalogatutako Nazioarteko Garrantzia duten Hezeguneak barne, eta gaur egun deklaratu dauden edo BNAPa idazteko agindua duten Naturgune Babestuak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba kanpo utzita, horiek aparteko baldintzatzaile batean integratzen baitira.

- *Korridore Ekologikoen Sarea*, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak landutako kartografian adierazia, landaredi naturaleko orbanen arteko lotura eta komunikazio gisa balio duena, truke genetikoak ahalbidetzeko.

- *Gutxi eraldatutako Paisaia duten guneak*, landa- edo natura-paisaiaren ordezkartza ona duten eremuek osatzen dituztenak, paisaia asaldatzen duten elementuetatik urrun daudenak, hala nola: hiri- eta industria-guneak, komunikazio-bideak, etab. Beraz, EAEko Paisaia Berezien eta Apartekoen Katalogoan sartuta dauden guneak sartzen dira; katalogo haui Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak lantzen du.

Definizio horietatik abiatuta, LPSak aplikazio orokorreko irizpide batzuk eta antolamendu-kategoria bakoitzean aplikatzeko arau espezifiko batzuk garatzen ditu.

Aplikazio orokorreko irizpideen helburua esku hartzen duten erakunde publikoak orientatzea da, eta horietako batzuek sektore-jarduera jakin bat arautzen duen arau bat hartzen dute oinarritzat. Irizpide horien artean sartzen dira Lurzoru Urbanizaezinean nekazaritzako eraikuntza berriak egiteko baldintzak, hondakin organikoen kontrola, aisialdiko baratzeak, etabar.

Arau espezifikoetan, ezarpenaren bideragarritasuna edo bideraezintasuna zehazte aldera, erabilerak eta jarduerak 1997ko LAGetan ezarritako mekanismoaren arabera arautzen dira, eta, beraz, kasu arabera, bultzatu, onartu edo debekatutzat joko dira. Horrela, Antolamendu Kategorietan Erabilerak Arautzeko Matrizean (edo Antolamendu Matrizean), lurraldean garatzen diren erabilera potentzialei (lerroetan) aurre egiten zaie, horiek Antolamendu Kategorietan (zutabeetan) ezartzea arautzeari begira.

Oro har, lurzoruaren baliabidea modu itzulezinean hipotekatzen duten erabileretarako zuhurtzia handiena ezartzen da haren plangintzan balio sektorial edo natural handieneko kategorietan. Erabilera horiek ez dira desiragarriak kategoria horietan; izan ere, kasu batzuetan debekatuta daude, eta beste batzuetan, berriz, beste aukera posible batzuk baztertu dira alde aurretik, eta nekazaritzako eta basogintzako jardueran eragindako ingurumen-inpaktua zuzentzeko neurriak ezarri dira. Balio txikiagoko kategorietan, azpiegitura- edo eraikuntza-erabilera gehienak onargarritzat jotzen dira, nahiz eta nekazaritza eta basogintza jardueraren gaineko eraginaren ebaluazioa ere agintzen den ingurumen-inpaktuaren ebaluazioen bidez. Nekazaritzako erabilerak ia kategoria guztietan onartzen dira. Hala ere, kasu batzuetan ñabardurak egiten dira erabilera horiei lotutako praktika edo eraikuntza jakin batzuetarako.



Gainjarritako baldintzak dituzten eremuei dagokienez, jarraibide batzuk ematen dira, aipatzen diren arau erregulatzaileri erreferentzia egiten dietenak.

LPSak, gainera, jarduteko **zenbait tresna** jasotzen ditu. Honako hauek:

- Plan, programa eta proiektuen garapenak nekazaritzan eta basogintzan eragindako afekzio sektoriala ebaluatzeko gida metodologikoa, planen eta proiektuen ingurumen-ebaluzioko prozeduretan nekazaritza eta basozaintzako lurzoruaren gaineko afekzioaren balorazioa errazteko.
- Landa-lurzorua Kudeatzeko Erakundeak. Sektorearen barruan nekazaritza-lurzoruak kudeatzeko egiturak sortzeko premiaren aurrean planteatu dira, nekazaritza-lurren funtsen eskuragarritasunaren bidez (berezkoak edo jabeek aldi baterako lagatakoak), baita lurralde-antolamenduko prozesuetan parte hartzeko ere, LPS honetan bildutako sektore-antolamenduko gidalerro eta arauak kudeatuz, plangintzak nekazaritza-aldagaiak kontuan har ditzan.
- Basogintza Baliabideak Antolatzeko Planak (BBAP), 43/2003 Legean aurreikusitakoak, ezaugarri geografiko, sozioekonomiko, ekologiko, kultural edo paisajistiko homogeenak, eskualdekoak edo baliokideak dituzten baso-lurraldeetan autonomia-erkidegoek egin beharreko baso-plangintzako tresna gisa. Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak automatikoki txertatuko ditu BBAPak bere edukietan, horiek onartzen direnean, bere xedapenak onartuz.
- Natur Intereseko espazioen antolamendua, hasiera batean orientagarri gisa mugatuta, lurralde-edo hirigintza-plangintzak doitu dezakeena.

2.2.- NEKAZARITZA- SEKTOREAREN GAINEKO ERAGINA EBALUATZEKO PROTOKOLOA (AAEP)

Plan eta proiektuen diseinuaren ondorioz sektore-afektazioa ebaluatzeko kontrastatu beharreko aldagai nagusiak dira:

- ✓ Lurzoruaren antolamendu-kategoriaren arabeko afektazioa, Balio estrategiko handiko azalerak eta Onura publikoko mendiak eta mendi babesleak berariaz aintzat hartuta.
- ✓ Eraginpeko ustiatzeen bideragarritasun ekonomikoaren gaineko afektazioa, eta
- ✓ Ustiatzei lotutako eraikin eta azpiegituren gaineko afektazioa.

3.- AZKEN BALORAZIOA

Aurreko guztia kontutan hartuta, eta Nekazaritza eta Basogintzaren LAG eta LPS.ak tresnatzat hartuta, Atungo HAPOak ondorengo ingurumen helburu, justifikazio eta garapen irizpideak jarraitu beharko ditu:

- Identifikatutako nekazal eta ingurumen-helburuak
 - Udalerriaren ingurumen-diagnostiko egokia egitea, lurraldearen harrera-ahalmena, arrisku-eremuak, eremu hauskor edo kalteberak eta abar ebaluatzeko.
 - Lurzoruaren sailkapen eta kalifikazio orokorra ezartzea udalerrri osoan.



- Landa-egoeran dauden lurzoruen erabilera-araubidea ezartzea, dagoen lurraldeko natura-eta kultura-balioekin bat datorrena, lurzoruaren kontserbazioa lagunduz erabilera arrunt egokienerako.
- Erabileren erregimenetik tokiko ekoizpena eta jarduera tradizionalak (nekazaritza, abeltzaintza, basogintza, etab.) kontserbatzea eta/edo sustatzea.
- Argi eta garbi ezartzea aisialdiko erabileren eta lurraldeko erabilera tradizionalen arteko bateragarritasun-aukerak eta -mugak.

• Garapen-irizpideak

- Landa-lurzoruaren antolamendua, bertako kategoria bakoitzean onartutako eta debekatutako erabilera eta eraikuntzen aurreikuspenarekin.
- Landa-guneak mugatzea, eta horiek antolatzeko irizpideak ezartzea.
- Landa-lurzoruko zuzkidura eta azpiegitura publikoak mugatzea.

Era berean, ondorengo araudia ere kontutan hartu beharko da HAPO berria formulatzerakoan:

- *45/2007 Legea, abenduaren 13koa, landa-ingurunearen garapen jasangarriari buruzkoa.*
- *17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikakoa.*
- *168/1997 Dekretua, uztailaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Lehetasunezko Nekazaritza Ustiategiak arautu eta E.H.A.E.ko Lurralde Historiko eta Eskualdeetako Laborantzako gutxieneko unitateak zehazten dituena.*
- *515/2009 DEKRETUA, irailaren 22koa, abeltzaintzako ustiategiaren arau teknikoak, higieni-ko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituena.*
- *Azaroaren 24ko 82/1998 FORU DEKRETUA, Lurzoru hiritarrezineko baimen eta lizentzia kontuetan jarduketak koordinatzen dituena.*

Informazioa baliagarria izango zaizuelakoan eta bidezkoak diren ondorioetarako adierazten da hori.

Donostia, 2024ko apirilaren 11

Sin.: Xabier Arruti Olazabal
Lurralde Oreak Berdeko Foru Diputatua

ATAUNGO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ATAUN
Auzoa, 44,
20211 Ataun (Gipuzkoa)

3HI-016/24-N35

2024ko martxoaren 20an Ataungo Udalaren idazki bat jaso da Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko erregistroan. Horren bidez, eskatzen da udalerriko Hiri-Antolamendurako Plan Orokorren berrikustea hasteko behar den informazio guztia bidaltzeko, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006ko Legearen 90.1. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Con fecha 20 de marzo de 2024 ha tenido entrada en el registro de este Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes un escrito del Ayuntamiento de Ataun por el que solicita se le remita toda la información necesaria a tener en cuenta para iniciar la revisión del Plan General de Ordenación Urbana del municipio, tal y como señala el artículo 90.1 de la Ley 2/2006, de 30 de junio de Suelo y Urbanismo.

A. LURRALDE-PLANGINTZA.

Eskatutakoari dagokionez, jakinarazten dizuegu Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzaren eskumenen barruan, Plan Orokorren berrikuspena lurraldea antolatzeko ondoko tresna hauei egokitu behar zaiela, beti ere Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko beste zuzendaritzek esan beharko dutenaren kalterik gabe:

1. Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde antolamenduaren gidalerroak. Hori behin betiko onetsi zuen uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuak.

2. Lurralde Plan Partziala:

- Beasain-Zumarragako (Goierriko) eremu funtzionalaren Lurralde Plan Partziala. Hori behin betiko onetsi zuen irailaren 29ko 534/2009 Dekretuak.

3. Lurraldearen Plan Sektorialak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala. Hori behin betiko onetsi zuen abenduaren 22ko 415/1998 Dekretuak, eta geroago azaroaren 19ko 449/2013 Dekretuak aldatu zuen.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Hezeguneen Lurralde Plan Sektoriala. Hori behin betiko onetsi zuen uztailaren 27ko 160/2004 Dekretuak eta geroago urriaren 30eko 231/2012 Dekretuak aldatu zuen.

A. PLANEAMIENTO TERRITORIAL.

En relación con lo solicitado, les comunicamos que dentro de la competencia de la Dirección de Planificación Territorial y Agenda Urbana y sin perjuicio de lo que se deba señalar desde el resto de las direcciones del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, la formulación del Plan General deberá acomodarse a los siguientes Instrumentos de Ordenación del Territorio:

1. Directrices de Ordenación Territorial.

- Directrices de Ordenación Territorial de la CAPV, aprobadas definitivamente mediante el Decreto 128/2019, de 30 de julio.

2. Plan Territorial Parcial:

- Plan Territorial Parcial del Área Funcional de Beasain-Zumarraga (Goierri), aprobado mediante el Decreto 534/2009, de 29 de septiembre.

3. Planes Territoriales Sectoriales:

- Plan Territorial Sectorial de Ordenación de Ríos y Arroyos de la CAPV, aprobado definitivamente mediante el Decreto 415/1998, de 22 de diciembre y posteriormente modificado mediante el Decreto 449/2013, de 19 de noviembre.

- Plan Territorial Sectorial de Zonas Húmedas de la CAPV, aprobado definitivamente mediante Decreto 160/2004, de 27 de julio y posteriormente modificado mediante el Decreto 231/2012, de 30 de octubre.



- EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektoriala. Hori behin betiko onetsi zuen irailaren 16ko 177/2014 Dekretuak.
- Jarduera Ekonomikoetarako Lurzorua Sortzeko eta Saltoki Handiak Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala. Hori abenduaren 21eko 262/2004 Dekretuak onartu zuen behin betiko.
- Ondorio horietarako, esan behar da ezen, Lurralde Plan Sektorial horretan araututako merkataritza-ekipamenduei dagokienez, merkataritza-gune handien lurralde-antolamenduari buruzko ekainaren 27ko 10/2019 Legea onartu dela.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Trenbide-sarearen Lurralde Plan Sektoriala, otsailaren 27ko 41/2001 Dekretuaren bidez onartua, eta otsailaren 22ko 34/2005 Dekretuaren bidez onartutako Bilboko metropoliko eta zenbait udalerritako trenbidearen antolamenduari buruzko aldaketa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Energia Eolikoa Antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala. Hori maiatzaren 14ko 104/2002 Dekretuak onartu zuen behin betiko.
- EAEko Errepideen Hirugarren Plan Orokorra, 2017-2028 aldirako. Hori maiatzaren 19ko 63/2020 Dekretuak onartu zuen behin betiko.
- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Plan Sektoriala, 2013ko ekainaren 10eko Foru Arauaren bidez behin betiko onartua.
- Gipuzkoako Hiri Hondakinen Azpiegituren Lurralde Plan Sektoriala, uztailaren 21eko 024/2009 Foru Dekretuaren bidez behin betiko onartua eta apirilaren 10eko 9/2018 Foru Dekretuaren bidez aldatua.
- Halaber, lehenago aipatutako dokumentazio hori guztia dagoeneko eskura duzuela adierazten dizuet; hala ere, Eusko Jaurlaritzaren web-orrian kontsultatu ahal duzue, Interneten bidez:

<https://www.euskadi.eus/informazioa/lurralde-antolamendurako-tresnak/web01-a3lurral/eu/>
- Azkenik, esan behar da zure udalari buruzko informazio geografikoa aurki dezakezue GeoEuskadin, Eusko Jaurlaritzako web-orria:

<http://www.geo.euskadi.eus/s69-15375/eu>
- Plan Territorial Sectorial Agroforestal de la CAPV, aprobado definitivamente mediante el Decreto 177/2014, de 16 de septiembre.
- Plan Territorial Sectorial de Creación Pública de suelo para Actividades Económicas y Equipamientos Comerciales, aprobado definitivamente mediante el Decreto 262/2004, de 21 de diciembre.
- A estos efectos, debe señalarse que, en lo relativo a los equipamientos comerciales regulados en el referido Plan Territorial Sectorial, se ha aprobado la Ley 10/2019, de 27 de junio, de ordenación territorial de grandes establecimientos comerciales.
- Plan Territorial Sectorial de la Red Ferroviaria en la CAPV, aprobado mediante el Decreto 41/2001, de 27 de febrero y su modificación relativa a la ordenación ferroviaria en el área del Bilbao Metropolitano y otros municipios, aprobada mediante Decreto 34/2005, de 22 de febrero.
- Plan Territorial Sectorial de la Energía Eólica de la CAPV, aprobado mediante el Decreto 104/2002, de 14 de mayo.
- Tercer Plan General de Carreteras del País Vasco, correspondiente al periodo 2017-2028, aprobado mediante el Decreto 63/2020, de 19 de mayo
- Plan Territorial Sectorial de Vías Ciclistas de Gipuzkoa, aprobado definitivamente mediante la Norma Foral de 10 de junio de 2013.
- Plan Territorial Sectorial de Infraestructuras de residuos urbanos de Gipuzkoa, aprobado mediante el Decreto Foral 024/2009, de 21 de julio y modificado por el D. Foral 9/2018, de 10 de abril.
- Asimismo, indicarles que toda la documentación arriba señalada ya obra en su poder, y que, no obstante, pueden consultarla vía internet, en la página web del Gobierno Vasco:

<https://www.euskadi.eus/informacion/instrumentos-de-ordenacion-territorial/web01-a3lurral/es/>
- Finalmente, cabe decir que también pueden localizar información geográfica relativa a su municipio en GeoEuskadi, en la página web del Gobierno Vasco:

<http://www.geo.euskadi.eus/s69-15375/es>

B. BIZITEGI KUANTIFIKAZIOA.

Idazki honi fitxa bat erantsi zaio, udal-plangintzan aurreikusi beharreko gehieneko bizitegi-ahalmenaren kalkuluarekin, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan ezarritako irizpideen arabera; fitxa hori EUSTATEk argitaratutako azken estatistika-datuen arabera eguneratuta dago.

Hala ere, eta LAGak aplikatzeko arauen 13.2.a) .3 artikuluan adierazitakoaren arabera: *Hirigintza-plangintzaren kasuan, bizitegi-kuantifikazioaren kalkulua Planaren behin betiko dokumentua idazteko irizpideak hartzeko erabakiaren aurretik zeuden azken datuen estatistika ofizialaren gainean egingo da.*

Adeitasunez,
Vitoria-Gasteiz, 2024ko apirilaren 24a.

B. CUANTIFICACIÓN RESIDENCIAL.

Se adjunta al presente escrito una ficha con el cálculo de la capacidad residencial máxima a prever en el planeamiento municipal, según los criterios establecidos en las Directrices de Ordenación Territorial; actualizada de acuerdo con los últimos datos estadísticos disponibles publicados por el EUSTAT.

No obstante, y según se señala en el artículo 13.2.a).3 de las Normas de Aplicación de las DOT: *En el caso del planeamiento urbanístico, el cálculo de la cuantificación residencial se realizará sobre la estadística oficial de los últimos datos existentes anteriores al acuerdo de adopción de criterios para la redacción del documento definitivo del Plan.*

Atentamente,
Vitoria-Gasteiz, 24 de abril de 2024

Honako honek elektronikoki sinatua:
Firmado electrónicamente por:

Jose R. Varela Balenciaga
Gipuzkoako Lurralde Antolamenduko Arduraduna
Responsable de Ordenación del Territorio en Gipuzkoa

Jon Asua Aberasturi
Lurralde Antolamendu eta Plangintzarako Zerbitzuaren Arduraduna
Responsable del Servicio de Ordenación del Territorio y Planeamiento

Ignacio de la Puerta Rueda
Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaria
Director de Planificación Territorial y Agenda Urbana



UDAL HIRI-PLANGINTZAN aurreikusi beharko den ETXEBIZITZEN AHALMEN MAXIMOAREN KALKULUA
EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan ezarritako irizpideen arabera

Udalerrria:		ATAUN		2024-2032 eperako etxebizitzien beharrak										ETXEBIZITZEN AHALMEN MAXIMOA					
Udalerrriaren biztanleria EUSTATEN arabera		Bertan dauden etxebizitzien kopurua EUSTATEN arabera		Etxebizitza nagusiak		Bigarren etxebizitzak		Etxebizitza hutsak		Etxebizitza beharrak Guztira		Biztanleriaren arabera Harrotze Koefizientea		Etxebizitzien beharrak bider harrotze koefizientea		Etxe hutsen berreskurapenaren ondorioz		Etxebizitzak Ahalmen maximoa	
2001	2021	2021	2021	A1	A2	A2	B1	C1	C1	NR	NR	Harrotze Koef.	NRe	C2	178	178			
1.571	1.707	886	886	23	40	40	2	5	5	70	70	2,80	196	18	178	178			

MUGATZAILE GEHIGARRIAK:

(*) *Beti aurreikusi daitekeen egoitza-ahalmen minimoa (bertan dauden etxebizitzien kopuruaren %10)*(**) *Onartutako egoitza-ahalmen maximoa (bertan dauden etxebizitzien kopuruaren %50)*

CÁLCULO de la CAPACIDAD RESIDENCIAL MÁXIMA a prever en el PLANEAMIENTO MUNICIPAL
según los criterios establecidos en las Directrices de Ordenación Territorial del País Vasco

Municipio:		ATAUN		Necesidades residenciales para el periodo 2024-2032										CAPACIDAD RESIDENCIAL MÁXIMA					
Población del municipio según EUSTAT		Nº de viviendas existentes según EUSTAT en el año		Viviendas principales		Viviendas secundarias		Viviendas deshabitadas		Necesidades residenciales totales		Factor de esponjamiento en función de la población		Necesidades residenciales esponjadas		Reducción por recuperación de viviendas deshabitadas		Capacidad residencial Máxima	
2001	2021	2021	2021	A1	A2	B1	C1	C1	C1	NR	NR	Harrotze Koef.	NRe	C2	178	178			
1.571	1.707	886	886	23	40	2	5	5	5	70	70	2,80	196	18	178	178			

LIMITACIONES ADICIONALES

(*) *Capacidad residencial mínima que siempre se puede prever (10% de las viviendas existentes)*(**) *Capacidad residencial máxima que en ningún caso se puede superar (50% de las viviendas existentes)*

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILAKultura Ondarearen Zuzendaritza
*Euskal Kultura Ondarearen Zentroa*DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICADirección de Patrimonio Cultural
*Centro de Patrimonio Cultural Vasco***Ataungo Udala**
Martin Aramendi Arana

GAIA: Ataungo Kultura Ondareari buruzko informazioa igortzea, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra egiteko.

Jaun hori:

Ataungo Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko lanak direla eta, egin duzuen kontsultari - Ataungo Kultura Ondarearen baldintzapen eta babesteari buruzkoa, ekainaren 30eko 2/2006¹ Legea, Lurzoru eta Hirigintzari buruzkoak xedatzen duenaren arabera - erantzuteko, honekin batera bidaltzen dizuet txosten teknikoa. Halaber, elementuen informazio kartografikoa Shape formatuan erantsi da.

Hala ere, gogorarazten dizuegu Kultura Ondarearen Katalogoak berrikusten ari direla eta baliteke izatea analisisian detektatu gabeko elementuak edo etorkizunean ager litezkeen elementu berriak.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean eta orduan.

Mikel Aizpuru Murua
KULTURA ONDAREAREN ZUZENDARIA

Azaroaren 30eko 14/2023 Legearen bidez aldatu da (2023/12/15eko EHAA, 238. zk.)



GAIA: Ataungo udalerriko kultura ondareari buruzko informazioa.

2024ko martxoaren 22an, Ataungo Udalak bere udalerriko kultura-ondarearen zerrenden informazio eguneratua eskatu zion Kultura Ondarearen Zuzendaritza honi, geolokalizazioa barne, udalerriko Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berrikusteko.

Dokumentu honek jasotzen duen informazioa hiru eranskinetan banatzen da:

1. eranskinean, arkitektura eta arkeologia intereseko elementu higiezinaren banakako zerrenda jasotzen da, hainbat zerrendatan sailkatuta, eskema honen arabera:

1. ONDARE ARKITEKTONIKOA

1.1. Babes berezi eta ertaineko kultura-ondasun deklaraturako higiezinak, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan inskribaturako higiezinak.

1.2. «6/2019 Legearen ondorioetarako oinarrizko babes-ondasun» gisa katalogoan sartzeko proposaturako higiezinak; zehazki, 8.1.c eta 21. artikulua, 14/2023 Legeak aldatuak (EHAA, 238. zk., 2023-12-15).

1.3. Udal intereseko ondasun gisa udal hirigintza-plangintzaren bidez babesteko proposaturako higiezinak, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legearen 8.2 artikulua arabera, zeina 14/2023 Legeak aldatu baitzuen (EHAA, 238. zk., 2023-12-15).

2. ONDARE ARKEOLOGIKOA

2.1. Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan inskribaturako Arkeologia-guneak.

2.2. Balizko arkeologia-eremutat jotako eremuak

2.3. Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen babesean babesteko proposaturako interes arkeologikoko eremuak.

2. eranskinean, Euskal Autonomia Erkidegoko kultura-ondasun deklaraturako elementuetarako indarrean dauden arau-preskripzioei buruzko informazioa jasotzen da, bai eta katalogoan «6/2019 Legearen ondorioetarako oinarrizko babes-ondasun» gisa edo udal-mailan sartzeko proposaturako elementuetarako gomendaturako babes-irizpideei buruzkoa ere. Era berean, txosten honekin batera doa zerrendetako elementuen eta mugaketa-eremuen informazio geoerreferentziatua (Shape fitxategia). Ez dira kontuan hartuko planoetan agertzen diren, baino zerrenda honetan ez dauden, beste elementu batzuk.



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Euskal Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural Vasco

Elementu horien fitxak eta kokapena **ONDAREA +** web aplikazioaren bidez ere kontsulta daitezke. Aplikazio hori honako helbide honetan dago eskuragarri, Kultura Ondarearen Zentroari era-biltzaileari alta emateko eskaera egin ondoren (posta elektronikoz bidez, zentroa@euskadi.eus helbidean).

<https://www.euskadi.eus/web01-apintegr/eu/y47aIntegraWar/inicio?locale=eu>

3. Eranskina 6/2019 Legearen aldaketak dakartzan berrikuntzei buruzkoa da. Berrikuntza horiek zuzenean eragiten diote kultura-ondarearen babesari, udaleko hirigintza-plangintzaren bidez.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren egunean eta orduan.

Dona Gil Abad

EUSKAL KULTURA ONDAREAREN EAEKO ZENTROKO ARDURADUNA



1. ERANSKINA

1. ONDARE ARKITEKTONIKOA

1.1. Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan inskribatutako higiezinak.

Fitxa zk.	Izena	Auzoa	Babes maila	Boletina
8	Zubikoeta Jauregia	San Martin auzoa	Berezia (hasitakoa)	BOE 1980-11-29
41	Errota eta Errotatxo	San Gregorio auzoa	Ertaina	EHAA 2003-09-11
43	Errotatxo	Aitzartealdea auzoa		

1.2. «6/2019 Legearen ondorioetarako Oinarrizko babesa duen Kultura-ondasun» deklaratzeko proposatutako higiezinak (art. 6/2019 Legearen 8.1.c artikulua, 14/2023 Legeak aldatua).

Fitxa zk	Izena	Auzoa	Esku-hartzeko araubidea
2	Udaletxea	San Martin Helbarrena	Zaharberritze kontserbatzailea
17	San Gregorio eliza	San Gregorio auzoa	
19	Tourseko San Martin eliza	San Martin Helbarrena	
23	Aranburu Enea baserria	Arrondoa auzoa	
25	Bazterrika baserria	Arrondoa auzoa	
30	Aialde Haundi baserria	Aia auzoa	
34	Izaate Haundi baserria	Urretsu Mendialdea auzoa	
39	Errota Goikoa	Aia auzoa	
50	San Martin iturria	San Martin Helbarrena	

1.3. Udal hirigintza-plangintzan udal-babeseko kultura-ondasun gisa sartu eta tratatzeko proposatutako elementu arkitektonikoak (14/2023 Legeak aldatutako 6/2019 Legeko art. 8.2).

Fitxa zk.	Izena	Auzoa
1	Taberna Berri	San Martin Helbarrena
3	Sankristaune	San Martin Helbarrena
4	Apaiz-etxea	Aia auzoa
5	Angulunea etxea	San Martin Helbarrena
6	Graziña Berri etxea	San Martin Helbarrena
7	Bidarte etxea	San Martin Helbarrena
9	Juanikonea etxea	San Martin Helbarrena
11	Done Juane Txikia	San Martin Helbarrena
12	Visitación de Nuestra Señora eliza	Aia auzoa
13	Santo Calvario basiliza	Astigarraga auzoa
14	Urbite Enea etxea	San Martin Helbarrena
15	Upategi etxea	San Martin Helbarrena
16	Don Juane Haundia etxea	San Martin Helbarrena
18	Artzubi etxea	San Martin Helbarrena
20	Goalde baserria	San Martin auzoa



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Euskal Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural Vasco

21	Zeberio Enea baserria	Aitzartealdea auzoa
22	Arratibel Erdikoa baserria	San Gregorio auzoa
24	Iturralde baserria	Arrondoa auzoa
26	Tzemoa baserria	Arin auzoa
27	Matxitxu baserria	Arin auzoa
28	Urrutsu baserria	Urretsu Mendialdea auzoa
29	Erraiondo Zahar baserria	Aia auzoa
31	Insekantzeluz baserria	Aitzartealdea auzoa
32	Begiristain baserria	Aia auzoa
33	Lauzti Iturrieta baserria	Lauztierreka auzoa
35	Iturritza Zaharra baserria	San Gregorio auzoa
38	Camineros etxea	Aia auzoa
40	Beheko errota	Aia auzoa
49	Zelebear	San Gregorio auzoa
51	Lazkaotegi etxea	Arrondoa auzoa
52	Iturria	San Gregorio auzoa
54	Zelai pilotalekua	San Gregorio auzoa
57	Eskola zaharra	San Gregorio auzoa
62	Kerejeta Enea	San Martin auzoa
63	Ataungo etxea	San Martin auzoa
64	Helbarrena II etxea	San Martin auzoa
65	Helbarrena I etxea	San Martin auzoa
66	Goikoetxea Enea	San Martin auzoa
67	Helbarrena IV etxea	San Martin auzoa
68	Helbarrena III etxea	San Martin auzoa



2. ONDARE ARKEOLOGIKOA

2.1. Euskal Kultura Ondarearen EAeko Erregistroan inskribatutako eremu arkeologikoak.

Fitxa zk	Izena	Babes Maila	EHAA
Gipuzkoako Lurralde Historikoko Estazio eta Monumentu Megalitikoen Monumentu-multzoa:		Berezia	EHAA 133 zk. (2003-07-08) ²
4. Aralarko Estazio Megalitikoa:			
42	Txotxetako trikuharria		
43	Erremedioko trikuharria		
6. Ataun-Burundako Estazio Megalitikoa:			
44	Argonitzko trikuharria		
45	Igartza ekialdeko tumulua		
46	Igartza mendebaldeko trikuaharria		
47	Intxusburuko trikuharria		
48	Bernoako trikuharria		
49	Aitxuko trikuharria		
50	Muñaango trikuharria		
51	Larreluzeko trikuharria		
55	Atxurbiko trikuharria		

Fitxa zk	Izena	Babes Maila	EHAA
Gipuzkoako Lurralde Historikoko haitzuloetako aztarnategiak:		Ertaina	EHAA 215 zk. (2015-11-11) ³
29	Allekoaitz haitzuloa		
30	Armontaitz haitzuloa		
36	Pikandieta haitzuloa		
37	Sarastarri II haitzuloa		
38	Sarastarri IV haitzuloa		
39	Troskaeta haitzuloa		
40	Usategieta haitzuloa		
56	Agatatz haitzuloa		
57	Lokatza haitzuloa		

² 137/2003 DEKRETUA, ekainaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden eta I. eranskinean zerrendatu diren Estazio Megalitikoak Monumentu Multzo izendapenez, Kultura Ondasun gisa deklaratzeko eta babes-araudia ezartzeko dena. / DECRETO 137/2003, de 24 de junio, por el que se califican como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, varias Estaciones Megalíticas del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y se fija su régimen de protección.

³ AGINDUA, 2015eko azaroaren 2koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, zeinaren bidez II. Eranskinean zerrendatzen diren Gipuzkoako Lurralde Historikoko haitzuloetako aztarnategiak Kultura-ondasun gisa sartzen diren, Monumentu Multzo kategoriarekin, Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian. / ORDEN de 2 de noviembre de 2015, de la Consejera de Educación, Política Lingüística y Cultura, por la que se inscriben los yacimientos en cueva del Territorio Histórico de Gipuzkoa relacionados en el anexo II como Bien Cultural, con la categoría de Conjunto Monumental, en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco.

**2.2. Deklaratutako balizko arkeologia-eremuak.**

ERABAKIA, 1997ko urriaren 14koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, Ataungo (Gipuzkoa) Balizko Arkeologia Guneen Aldez Aurreko Izendapena egiten duena.

(EHAA, 220. zk., 1997-11-17)

2.2. Zonas de Presunción Arqueológica.

RESOLUCIÓN de 14 de octubre de 1997, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se emite Declaración de Zonas de Presunción Arqueológica de Ataun (Gipuzkoa).

(BOPV nº 220, 17-11-1997)

Fitxa zk / nº ficha	Izena / Denominación	Mugaketaren gakoa / Clave de delimitación
1	Zubikoeta baserria	A
2	Arratinea baserria	A
3	Arrizabalaga baserria	A
4	Etxeberriaundi baserria	A
5	Okarizti baserria	A
6	Elizalde errota (ez zaio egiturarik ikusten)	E
7	San Martin eliza	B
8	Urdangarin baserria	A
9	Santiago ospitalea	A
10	Lauztigaraikoa baserria	A
11	Larratze baserria	A
12	Agirretxiki baserria	A
14	Astigarretxea baserria	A
15	Andresenea baserria	A
16	Espilla baserria	A
17	Bazterrika baserria	A
19	Arin Aundia baserria	A
20	rinetxeberri baserria	A
21	Matxintxu baserria	A
22	Peruenezar baserria	A
23	Tellerierdi baserria	A
24	Telleriazpi baserria	A
25	San Gregorio basiliza	B
26	Zelaibar baserria	A
27	Olea baserri eta burdinola	D
28	Lauzti edo Aiesondo teileria	E
31	Arrateta kobazuloa	C
32	Azarikobatxo kobazuloa II	C
33	Intxusaeta kobazuloa II	C
34	Kobazar kobazuloa	C
41	Ubegaine Leizeako kobazuloa	C
52	Maomendi asentamentua	E



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Euskal Kultura Ondarearen Zentroa

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural Vasco

2.3. Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen babesean babesteko proposatutako interes arkeologikoko eremuak.

2.3. Zonas de interés arqueológico propuestas para su protección al amparo de la Ley 6/2019 de Patrimonio Cultural Vasco.

Fitxa zk / nº Ficha	Izena / Denominación
13	Jentilbaratza gaztelua
58	Ola mendiko burdinola



2. ERANSKINA

ESKU HARTZEKO JARRAIBIDEAK ETA IRIZPIDEAK

1. ONDARE ARKITEKTONIKOA

1.1. Euskal Kultura Ondarearen EAeko Erregistroan inskribatutako higiezinak.

1. eranskineko 1.1. atalean jasotzen dira, Babes Berezi zein Ertaineko (lehen “kalifikatuta” eta “inbentariatuta”) Kultura Ondasun deklaraturako elementu arkitektonikoak, *Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen* esparruan babestuek. Halaber, EHAAk kultura-ondasun horiek babesteko Dekretu edo Aginduak noiz argitaratu diren zehazten da.

Plan Orokorren araudia eta hala badagokio, elementu horietarako ezartzen diren babes-araubidea edo esku hartzeko irizpideak Dekretu edo Agindu horietan ezarritako babes-araubideetara egokitu beharko dira. Esku hartzeko araubide eta irizpide horiek lotesleak dira udalaren hirigintza-plangintzarako. Gainera, kontuan hartu beharko ditu Babes Berezi zein Ertaineko kultura ondasun deklaraturako elementuetarako 6/2019 Legean ezarritako babes-irizpideak.

1.2. Katalogoan «6/2019 Legearen ondorioetarako oinarritzko babesa duten ondasun» gisa sartzeko proposaturako higiezinak, zehazki, 8.1.c eta 21. artikulua, 14/2023 Legeak aldatuak (EHAA, 238. zk., 2023ko abenduaren 15koa).

1. eranskineko 1.2 atalean, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 8.1.c eta 21. artikuluetan aurreikusitako mekanismoen bidez babestu beharreko kultura-balioak dituzten elementuak jasotzen dira.

Elementu horietarako gomendatzen da, oro har, egin beharreko esku-hartzeak **Zaharberritze Kontserbatzailekoak** izatea, Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren I. eranskinen “Birgaitzeko esku-hartzeak” zehazten den bezala.

Era berean, hirigintza-dokumentuaren katalogoan “6/2019 Legearen ondorioetarako oinarritzko babesa duten kultura-ondasunak” izeneko babes-talde espezifikoaren barruan sartzeari gomendatzen da.

Ondare hori badaezpadako babes-ingurune batez hornitzeko, eraikuntza, instalazio edo hesirik gabe gutxienez 15 metroko tartea errespetatzea gomendatzen da, eta, nolahi ere, ingurunearen ingurumen-ezaugarriak ahulduko dituzten aldaketak saihestea.



1.3. Udal-babeseko kultura-ondasun gisa babesteko proposatutako higiezinak (6/2019 Legearen 8.2 artikulua, 14/2023 Legeak aldatua), udalaren hirigintza-plangintzaren bidez.

Ataungo udalerriko arkitektura-ondasunen inbentarioan hainbat elementu ditugu, udal-babeseko kultura-ondasun gisa tratatzeko proposamena dutenak, eskala horri balioa aitortzen baitiote.

Plan Orokorreko kultura-ondare babestuaren katalogoan sartzea gomendatzen da, eta, oro har, babesteko eta esku hartzeko irizpide gisa, egiten diren obrek haien bolumetria, kanpoko irudia eta oinarrizko banaketa tipologikoa eta egiturazkoa errespetatzea, egituraren material generikoa mantenduz eta esku-hartze kategoriak erreferentziatzat hartuta "Sendotzea" eta/edo "Kontserbazioa eta Apaindura", Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren I. Eranskinean "Birgaitzeko esku-hartzeak" definitzen diren bezala.

2. ONDARE ARKEOLOGIKOA

2.1. Euskal Kultura Ondarearen EAeko Erregistroan inskribatutako Gune Arkeologikoak.

Gipuzkoako Estazio Megalitikoen Monumentu-multzoa, 137/2003 Dekretuaren (ekainaren 24koa) bidez kultura-ondasun gisa kalifikatu zen. Honen parte dira, Aralarko Estazio Megalitikoa (Gipuzkoako hainbat udalerritan zabaltzen dena; Abaltzisketa, Amezketeta, Ataun, Enirio-Aralarko Mankomunitatea, Lazkao eta Zaldibia) eta Ataun-Burundako Estazio Megalitikoa (Ataun, Idiazabal eta Gipuzkoako Partzuergoa udalerrietan zehar zabaltzen dena).

Estazio Megalitiko hauen babes-eremuak Dekretu horren IV. eranskinean mugatzen dira, eta horien babes-araubidea III. eranskinean ezartzen da. Txosten honekin batera, informazio kartografikoa bidali dugu (planoak eta SHP fitxategiak). Bertan, estazioen eremu babestua mugatzen da, zehazki Ataungo udalerrinari dagokionez.

HAPOn babes-araubidea bere babes-araubide berezituarekin bateratu behar da, horiek deklaratu dituen Dekretuetan ezarritako zehaztapenen arabera. Bereziki kontuan hartu behar da elementu bakoitza dagoen estazio megalitikoa babesteko 3. eremuaren babes-erregimena, haren mugaketa berariazko shape batean kartografiatzen delarik.

Eremu horiei dagokien babes-araubidea, deklaratu ziren Dekretuan eta Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen VI. Tituluan ezarritakoa da. Arreta jarriz Babes Bereziko arkeologia-eremuetan esku hartzeko irizpideei arreta berezia jarriz.

Bestalde, Ataungo udalean Babes Ertaina duten zenbait kobazulo aurkitzen dira. Gune arkeologiko hauen mugaketa eta deskribapena EHAAr argitaratutako deklarazio Aginduan agertzen dira (EHAA 215 zk., 2015-11-11). Eremuak babes-araubide propio bat du, esandako Aginduan zehaztua. Halaber, Babes Ertaineko eremu arkeologikoak babesteko 6/2019 Legean aurreikusitako araubide espezifikoak aplikatu behar zaio (43.2).



2.2. Balizko arkeologia guneak

Ataungo Balizko Arkeologia Guneak hurrengo Ebazpenaren bidez izendatu ziren: *Ataungo Balizko Arkeologia Guneen Aldez Aurreko Izendapena egiten duen 1997ko urriaren 14ko Ebazpena* (EHAA, 220. zk, 1997-11-17).

Adierazpen horretan, elementu horiek mugatzeko gako alfabetikoak adierazten dira:

- (A) Eraikineko hormen arteko aldea
- (B) Eraikinaren hormen arteko eremua + 15 metro eraikinaren inguruan, kanpoko ertzetatik hasita.
- (C) Elementuak hartzen duen eremua + 5 metro haren inguruan, kanpoko ertzetatik abiatuta.
- (D) Eraikinak eta erantsitako instalazioek hartzen duten eremua
- (E) Planoan zehaztutako eremua

Deklarazioan adierazitakoaren arabera, ustezko eremu horietarako adierazitako eremuan edozein obra-proiekturen aurretik, azterketa arkeologiko bat egin beharko da, eta Gipuzkoako Foru Aldundian arkeologia-arloko eskumena duen organoari aurkeztu beharko zaio. Azterketa horretan oinarrituta, honek erabakiko du proiektu arkeologiko bat gauzatu behar den ala ez, dagokion hirigintza-lizentzia eman aurretik (Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 65. artikulua).

2.3. Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen babesean babesteko proposatutako interes arkeologikoko eremuak.

Harik eta babes-espeditentea hasi arte, gomendatzen da Plan Orokorrean aplikatu dakiela 6/2019 Lege horretan ustezko arkeologia-guneetarako aurreikusitako babes-araubidea (65. artikulua).



3. ERANSKINA

EUSKAL KULTURA ONDAREARI BURUZKO LEGEAREN ALDAKETAREN ONDORIOZKO HIRIGINTZA-PLANEN KATALOGOAK FORMULATZEKO BERRIKUNTZAK (14/2023 LEGEA, azaroaren 30ekoa, Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzekoa. EHAA, 238. zk., 2023-12-15).

6/2019 Legearen aldaketak funtsezko eragina du oinarrizko babesa duten ondasunen deklarazioaren ondorioak deklaratzeko eta azkentzeko definizioan eta prozeduran, **«6/2019 Legearen ondorioetarako oinarrizko babesa duten kultura-ondasun»** izena hartzen baitute (8.1.c, 14/2023 Legearen 1. artikulua aldatua)

Aldaketa hori egin ondoren, izendapen hori modu murriztaileagoan aplikatzen zaie, zehazki, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen 2.1 artikuluan ezarritako balioak aurkezten dituzten ondare-katalogoetan sartutako higieziei, **baldin eta udalek hala zehazten badute udal hirigintza-plangintzan une bakoitzean indarrean dauden katalogoetan.**

Era berean, kultura-ondasunen babes-mailaren araberako sailkapena, 8. artikulukoa, "udal-babeseko kultura-ondasunak" izenekoekin osatzen da (8.2). Azken horiek udal-katalogoetan ere zehaztuko dira, eta tresna horietan ezarritako babes-araubidearen mende baino ez dira egongo.

Oinarrizko babesa duten kultura-ondasunen deklarazioa udalaren hirigintza-plangintzan une bakoitzean indarrean dauden katalogoetan babes-maila hori esleitze hutsaren ondorioz egiten da (6/2019 Lege aldatuaren 21. artikulua).

Horretarako, udalaren hirigintza-plangintzaren katalogoetan babes-maila espezifikoko bat jaso beharko da, «6/2019 Legearen ondorioetarako oinarrizko babesa duten kultura-ondasunak» izenekoak, eta bertan sartuko dira lege horren 8.1.c artikuluan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten intereseko ondasun higiezinak.

Udalek Kultura Ondarearen EAeko Zentroari jakinarazi beharko diote «oinarrizko babesa duten kultura-ondasun higiezin berrien deklarazioa, 6/2019 Legearen ondorioetarako». Deklarazio hori oinarrizko babesa duten ondasunen erregistroan inskribatuko da.

Oinarrizko babesa duten kultura-ondasunen deklarazioa azkentzeari buruzko 6/2019 Legearen 22. artikulua ere aldatu da: desagertu egin da Kultura Ondarearen Aholku Batzordearen alde aurreko aldeko nahitaezko txostenaren izapidea.



45. artikulua aldatuak, oinarrizko babesaren duten ondasunen babes-araubideari buruzkoak, zehazten du ondasun horiei aplikatuko zaizkiela abenduaren 30eko 317/2002 Dekretuak, ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketara babestuei buruzkoak, aurreikusitako **zaharberritze zientifikoko edo zaharberritze kontserbatzaileko irizpideak**.

Aldatutako testuak **etsi egiten dio oinarrizko babesaren duten kultura-ondasun gisa udalaren hirigintza-plangintzaren katalogoan sartzea erabaki duten kultura-balioak dituzten higiezinako elementuak osorik edo partzialki eraisteko ezintasunari**.

Era berean, Euskal Kultura Ondareari buruzko 6/2019 Legeari seigarren xedapen iragankorra erantsi zaio. **Bertan ezartzen da hirigintza-plan eta udal-katalogo berriek oinarrizko babes-araubidea arautzen duten aurreikuspenak aplikatu beharko dituztela**, eta sei urteko epea ematen da udalek indarrean dauden plangintzak aurreikuspen horietara egokitu ditzaten. Egokitzapen hori egiten ez den bitartean, indarrean dauden plangintza eta katalogoak horietan ezarritako baldintzetan mantenduko dira.

Sei urteko epe horretan bertan, udalek foru-aldundiei eta Eusko Jaurlaritzan kultura-ondarearen arloko eskumena duen sailari jakinarazi beharko diete udalaren hirigintza-plangintzaren dagokion katalogoan sartutako higiezinaren zerrenda, «6/2019 Legearen ondorioetarako oinarrizko babesaren duten kultura-ondasunak» izeneko babes-maila espezifikoaren barruan.

A3. INDARREKO PLANGINTZA. GARAPEN MAILA

A3.0 SARRERA

Azaldu den bezala, «Ataungo Hiri Antolaketako Arauen Testu Bategina» 2005eko urriaren 18an onartu zuen behin betiko Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, eta 2005eko abenduaren 26an argitaratu zen GAOn (243. zenbakia). Ia 20 urte beranduago, 2024ko maiatzean, beronen garapen maila nahiko apala dela esan daiteke.

Datuak eremuz eremu modu xehatuan aurrerago azalduko baditugu ere, bere indarraldirako aurreikusitako etxebizitza berrietatik egun laurdenak (%27,75) jaso du eraikuntza lizentzia, eta epealdi honetan ez da jarduera ekonomikoetarako azalera metro bakar bat ere garatu. Honek guztiak indarrean dagoen plangintza orokorraren aurreikuspenen betetze maila eskasaren ideia argi bat ematen digu.

Egia da indarreko Arau Subsidiario hauek inoiz ez bezalako hirigintza handitze eta hedapen garai batetan idatzi eta onartu zirela, hau da, eraikuntza sektoreko burbuilaren mailarik gorenean, eta berehalako arriskuaz ohartarazten zuten ahotsak egon baziren arren, ez ziren aintzat hartu. Dakigun bezala burbuila handik gutxira lehertu zen, 2008-2009 urteen artean hain zuzen, hurrengo hamarkada osoan zehar eta gaurdaino ondorio suntsitzaileak utzi dituen krisi ekonomiko sakona eraginez, eta agerian utziz soilik hazkunde ekonomikoaren zerbitzura dagoen hirigintza eredu ez jasagarri baten hauskortasuna.

Zentzu horretan, oso deigarria da Arau Subsidiarioen indarraldian emandako etxebizitza berrien lizentzia ia guztiak (99) 2010. urtea baino lehen eman zirela, eta horrek esan nahi du azken 15 urtetan zehar bi lizentzia (2) eman direla soilik. Eta norabide berean, etxebizitza hutsen kopurua 237raino handitu da epealdi osoan. Esandakoak garbi azaleratzen du zenbateraino den **motela azkenaldian Ataungo higiezinaren merkatua**, eta zenbateraino **ez den gai izan indarreko plangintza merkatua dinamizatzeko** eta udalerraren beharrei erantzuteko, **zaurgarritasun demografiko** nabarmenaren tokiko testuinguruan gainera.

Nolanahi ere, atal honek berebiziko garrantzi hartzen du Hiria Antolatzeko Plan Orokorra idazteko garaian, ikusiko dugun moduan, aurreikusitako baina gauzatu gabeko etxebizitza kopuruak aurrez aurre egiten baitu talka Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek Atauni esleitutako egoitza ahalmenarekin.

Ondorengo taulek indarreko plangintzaren ikuspegi orokorra eskaintzen dute, datuak aurrerago xehatuko diren arren; horrela:

ATAUNGO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRA. AURRERAPENA. 2024KO MAIATZA

LURZORUAREN SAILKAPENA	AZALERA m ²	%
LUR EREMU HIRITARRA (HIRI LURZORUA) (SU)	232.216	0,40
LURZORU URBANIZAGARRIA (SAU)	20.561	0,03
LANDAGUNEKO LURZORU URBANIZAEZINA	57.473	0,10
GAINONTZEKO LURZORU URBANIZAEZINA	58.052.036	99,47
LURZORU URBANIZAEZINA GUZTIRA	58.109.509	99,57
UDAL BARRUTIA GUZTIRA	58.362.286	100,00

EREMU HIRITARRA. SAILKAPENA ETA KALIFIKAZIO OROKORRA

A. Egoitza-zonak	A.10. Antzinako egoitza-asantamenduen zona
	A.20. Eraikuntza irekiko egoitza-zona
	A.30. Garapen baxuko eraikuntzako egoitza-zona
B. Industria-zonak	B.10. Industria-zona arrunta
E. Komunikabideen sistema orokorra	E.10. Errepideak
	E.20. Hiri-bide nagusiak
F. Espazio libreen sistema orokorra	F.10. Espazio Libreak
	F.20. Ibai-ubideak
G. Ekipamendu komunitariorako zonak	G.10. Ekipamendu komunitarioa

AIU	SAILKAP.	KALIFIKAZIOA									GUZTIRA AIU
		A.10	A.20	A.30	B.10	E.10	E.20	F.10	F.20	G.10	
AIU 1	SU				17.384						17.384
AIU 2	SAU				18.349	2.212					20.561
AIU 3	SU			5.805							5.805
AIU 4	SU			11.053							11.053
AIU 5	SU						3.780				3.780
AIU 6	SU					403	808				1.211
AIU 7	SU	11.529				256					11.785
AIU 8	SU		12.270			1.261		3.138			16.669
AIU 9	SU		2.305			221					2.526
AIU 10	SU		19.418					1.273			20.691
AIU 11	SU		4.368			1.234					5.602
AIU 12	SU	6.855									6.855
AIU 13	SU			14.655		1.784			665		17.104
AIU 14	SU			2.878							2.878
AIU 15	SU									15.199	15.199
AIU 16	SU			22.514		238					22.752
AIU 17	SU			24.574		2.079			2.508		29.161
AIU 18	SU	4.957				445					5.402
AIU 19	SU			5.813		716					6.529
AIU 20	SU		4.932			331		602		1.709	7.574
AIU 21	SU		2.160	1.257		1.063		1.243		1.334	7.057
AIU 22	SU		4.350			761					5.111
AIU 23	SU	3.390	1.098			707					5.195
AIU 24	SU			3.697		347					4.044
AIU 25	SU	2.109				190		366			2.665
		28.840	50.901	92.246		14.248	4.588	6.622	3.173		
			171.987		35.733	18.836		9.795		18.242	
TOTAL						254.593					254.593

A3.1 AURREIKUSITAKO ETXEBITZA PROGRAMAREN GARAPENA

Plangintza aurreikusitako etxebizitza programaren datu orokorrak ondorengoak dira:

AURREIKUSITAKO BIZITEGI HAZKUNDEAREN AZTERKETA, zedarritutako eremuen arabera									
<i>Eremua</i>	<i>Kalif.</i>	<i>Azalera (m²)</i>	<i>Etxebizitzak</i>	<i>Erasketak</i>	<i>Berriak</i>	<i>Guztira</i>	<i>Dentsitatea (etxeb/ha)</i>	<i>Hazkunde garbia</i>	<i>Gauzatua</i>
AIU 3	A30	5.805	29	0	0	29	49,96	0	0
AIU 4	A30	11.053	2	0	16	18	16,29	16	16*
AIU 7	A10	11.529	36	6	26	56	48,57	20	11
AIU 8	A20	12.270	17	1	47	63	37,79	46	0
AIU 9	A20	2.305	11	11	33	33	130,64	22	33
AIU 10	A20	19.418	178	0	0	178	86,03	0	0
AIU 11	A20	4.368	24	11	33	46	82,11	22	0
AIU 12	A10	6.855	29	3	16	42	61,27	13	0
AIU 13	A30	14.655	17	0	27	44	28,66	27	0
ELBARRENA		88.258	343	32	198	509	57,67	166	60
AIU 14	A30	2.878	2	0	0	2	6,95	0	0
AIU 16	A30	22.514	33	0	26	59	26,21	26	0
ASTIGARRAGA		25.392	35	0	26	61	24,02	26	0
AIU 17	A30	24.574	33	13	42	62	25,23	29	15
ARRONDO		24.574	33	13	42	62	25,23	29	15
AIU 18	A10	4.957	18	0	2	20	40,35	2	0
AIU 19	A30	5.813	5	0	8	13	22,36	8	6
AIU 20	A20	4.932	35	3	8	40	81,10	5	0
AIU 21	A20	2.160	0	0	16	16	74,07	16	16
	A30	1.257	2	0	2	4	31,82	2	0
AIU 22	A20	4.350	15	0	12	27	62,07	12	0
AIU 23	A10	3.390	7	0	3	10	29,50	3	0
	A20	1.098	0	0	15	15	136,61	15	15
S. GREGORIO		27.957	82	3	66	145	51,87	63	37
AIU 24	A30	3.697	0	0	8	8	21,64	8	0
AIU 25	A10	2.109	6	1	6	11	52,16	5	0
AIA		5.806	6	1	14	19	30,78	13	0
EREMU HIRITARRA		171.987	499	49	346	796	46,28	297	112
ARINBERRIAGA		16.378	8	1	10	17	10,38	9	0
ERGOIENA		41.096	20	0	8	28	6,81	8	3
LANDA-GUNEAK		57.474	28	1	18	45	7,83	17	3
ATAUN		229.461	527	50	364	841	36,65	314	115

*Bi etxebizitza har zitzakeen lursaileen etxebizitz bakarra eraiki da, aprobetxamendua agortuz.

Arestiko taularen laburpena ondorengo litzateke:

AURREIKUSITAKO BIZITEGI HAZKUNDEAREN AZTERKETA, sailkapenaren eta kalifikazio orokorraren arabera						
Saikapena	Kalifikazio orokorra	Azalera m ² (l)	Aprobetxamendu nagusia m ² (s)	Etxebizitza kopurua		
				berriak	gauzatua	%
HIRI-LURZORUA	A	171.987	45.607	346	112	32,37
	A10	28.840	5.081	53	11	20,75
	A20	50.901	20.460	164	64	39,02
	A30	92.246	20.066	129	37	28,68
LURZORU URBANIZAEZINA. LANDA-GUNEA		57.474	6.305	18	3	16,67

Eta Arau Subsidiarioen indarraldian auzoz auzo eman den bilakaera ondorengo da:

AURREIKUSITAKO BIZITEGI HAZKUNDEAREN AZTERKETA, finkatutako auzoen arabera							
Saikapena	Azalera m ² (l)	Aprobetxamendu nagusia m ² (s)			Etxebizitza kopurua		
		A10	A20	A30	berriak	gauzatua	%
ELBARRENA	88.258	4.181	13.117	6.220	198	60	30,30
ASTIGARRAGA	25.392	0	0	3.200	26	0	0,00
ARRONDO	24.574	0	0	7.846	42	15	35,71
SAN GREGORIO	27.957	0	7.343	1.360	66	37	56,06
AIA	5.806	900	0	1.440	14	0	0,00
ARINBERRIAGA*	16.378	2.425			10	0	0,00
ERGOIENA*	41.096	3.880			8	3	37,50

*Landa-guneetako fitxa partikularrek lursail bakoitzeko gehieneko aprobetxamendua ezartzen dute, kalifikaziorik gabe, baina A.30. Garapen baxuko eraikuntzako egoitza-zona motako ezaugarriak dituzte kasu guztietan.

Beraz, bizitegi hazkundearen azterketa honetatik zera ondorioztatu daiteke:

- Arau Subsidiarioen indarraldian aurreikusitako **364 etxebizitza berrietatik 115 gauzatu dira**, hau da, aurreikusitakoaren herena baino gutxiago (%31,59).
- Azken **14 urteetan**, 2010. urtetik gaurdaino, **2 etxebizitza berri** gauzatu dira soilik.
- Arau Subsidiarioen indarraldian **A.10. Antzinako egoitza-asentamenduen zona** bezala kalifikatutako lurzorua izan da garapen maila txikiena erdietsi duena (%20,75).
- Aldiz, garapen maila handiena lortu duena **A.20. Eraikuntza irekiko egoitza-zona** bezala kalifikatutako lurzorua izan da (%39,02); dena den, garapena askoz biziagoa izan da San Gregorio auzoan (51/31) Elbarrena auzoan baino (113/33).
- **A.30. Garapen baxuko eraikuntzako egoitza-zona** bezala kalifikatutako lurzoruan bizitegi hazkundearen garapena bataz bestekoaren azpitik dago (%28,68); Astigarraga eta Aia auzoetan zein landa-guneetan garapena hutsaren hurrena izan da (52/3), baina San Gregorio auzoan garapena biziagoa izan da kasu honetan ere (10/6).

- Esan daiteke beraz, indarreko plangintza orokorrek eragin adierazgarria izan duela San Gregorio auzoan, non aurreikusitako bizitegi hazkundearen erdia baino gehiago garatu den (66/37); aldiz, lur eremu hiritarreko gainontzeko auzoetan eta landa-guneetan garapena oso eskasa izan da (298/78), aurreikusitakoaren laurdena baino gehixeago.
- Aipatu den garapen eskasa bereziki da kezkarria Elbarrena auzoan (San Martin), izan ere, indarreko plangintzak bertan aurreikusten baitu bizitegi hazkundearen zatirik handiena (%57,23), baina haren garapen maila batez bestekotik behera dago (198/60).

Bizitegi hazkundearen azterketa udalerriko datu demografikoekin alderatuta, garbi ikusten da 2010. urte arteko etxebizitza eraikuntza indartsuaren ondorioz populazioak goia jo zuela 2013. urtean, nagusiki estatutik kanpoko immigrazioari esker. Aldiz, azken 14 urteetan eman den geldialdiak biztanlegoaren beherakada ekarri du, eta zaugarritasun demografikoa agerikoa da, migrazio saldoa irauli eta udalerrian bertan jaiotako herritarrak inguruko udalerrietara doazelako bizitzera, Lazkaora batik bat.

Bestalde, udalerrri barnean ematen ari diren mugimendu demografikoen joera oso nabarmena dute landa inguruetik eremu hiritarrera, eta batez ere, populatuena eta hornituena den Elbarrena auzora.

Gauzak horrela, plangintza orokor berriak arreta handiz zaindu beharko du proposatzen duen bizitegi programa, batez ere kualitatiboki, kuantitatiboki baino gehiago. Izan ere, azken urteetan etxebizitza berrien “eskaintza” hutsala izan bada ere, Ataungo etxebizitza hutsen tasa %28,64koa da egun eta, ondorioz, merkatuaren dinamismo eza “eskaera” ahulari egotzi behar zaio gure ustez. Hau da, etxebizitza berrien eskaintzak asmatu beharko du udalerrri bertako biztanleak errotzen eta inguruko udalerrietatik biztanle berriak erakartzen, eta horretarako “habitat” eta bizimodu berritzaileen alorrean lehiatu beharko du, prezioarenean baino gehiago.

A3.2 JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUAREN AURREIKUSPENEN GARAPENA

Jarduera ekonomikoetarako lurzoruaren garapena ondorengo izan da indarreko plangintzaren epealdian:

JARDUERA EKONOMIKOETARAKO LURZORUAREN AZTERKETA							
Eremua	Saillkapena	Kalifikazio orokorra	Azalera m ² (l)	Aprobetxamendu nagusia m ² (s)		Gauzatua m ² (s)	%
				Finkatua	Proposatua		
AIU 1	Hiri-lurzorua	B10	17.384	10.297	0	9.034	87,73
AIU 2	Lurzoru urbanizagarria	B10	18.349	0	10.553	0	0,00
Guztira	-	-	35.733	10.297	10.553	9.034	43,33

Indarreko plangintza orokorra 2005. urtean behin betiko onartu zenean AIU1 eremua zedarritu zuen, eta horrela, 1994ko uztailaren 5ean Gipuzkoako Foru Aldundiak behin betiko onartutako Zubikoeta sektoreko zatiko planaren zehaztapenak finkatu zituen. Ordurako eremua garatua zegoen hein batean eta ondoren beste lursail bat eraiki zen arren, zatiko planaren aurreikuspenak agortu gabe daude oraindik.

Beraz, 2005eko Arau Subsidiarioek antolatu zuten jarduera ekonomikoetarako lurzoru osoa AIU2 eremuan kokatzen da, eta plangintza onartu zenetik ez da inolako pausorik eman bere garapenerako, ezta eremuko antolamendu xehatua finkatu behar duen zatiko plana izapidetzeko ere.

Adierazitakoak garbi erakusten du udalerririk jarduera ekonomiko industrial berriak erakartzeko duen zailtasuna, ez dagoelako ekimen pribaturik horretarako. Edonola, nolabaiteko adostasuna dago erakunde eta eragile zein herritarren artean AIU2 eremuan aurreikusitako industria garapenaren desegokitasunaren inguruan.

Batetik, lurralde plangintzak zein eskualdeko garapen estrategiak azalera handiagoko lurzoru industrialia beste kokaguneetan bultzatzea erabaki dutelako. Zehazki, jarduera ekonomikoak antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak (LPS) zein Goierriko Lurraldearen Zatiko Planak (LZP) “*garapen txikiko udalerririk*” gisa kategorizatzen dute Ataun, eta gainera, “*hirigintza-plangintzak mugatu beharko du ekonomia jardueretarako lurzoruaren kalifikazioa hiri-izaerako jardueretarako izatea*”. Eta bestetik, Ataungo Udala jakitun da AIU2 eremuaren garapenak ingurumenean eta paisaian izango lukeen eraginaz, bultzatu nahi duen eredu sozio-ekonomikoarekiko bateraezina guztiz.

Azkenik, jarduera ekonomikoen alorrean ezin aipatu gabe utzi indarreko plangintzak lurzoru ez urbanizagarrian finkatzen dituen izaera orokorreko esku-hartzeak, guztiak Aralarko Parke Naturalaren barnean kokatuak. Lehenik eta behin, “ostalaritzako erabilerak” hartzeko zedarritzen diren *Erremedio* eta *Marumendi* izeneko eremuak aipatu behar dira, hurrenez hurren, 380.573 m² eta 104.681 m² inguruko azalera dutenak (*Marumendi* eremua Memorian soilik aipatzen da eta *II. Lurren zermugapena (udal barrutia)* planoan grafiatu gabe dago). Bigarrenik, “erabilera industrial ez kutsagarriak” hartzeko zedarritzen den *Imatzenea* izeneko eremua dago, 42.119 m² inguruko azalera duena.

Esan beharrik ez dago aurreko plangintzatik datozen eta, gutxienez, “burutazio xeble” gisa izendatu daitezkeen esku-hartze hauek ez direla inoiz gauzatu.

A3.3 ESPAZIO LIBREEN ETA EKIPAMENDUEN GARAPENA

Indarreko plangintzak aurreikusitako espazio libreen sistema orokorrak (F.10) ondorengoak dira:

<i>Eremua</i>	<i>Finkatua</i> <i>m²(l)</i>	<i>Proposatua</i>	<i>Gauzatua</i>	
		<i>m²(l)</i>	<i>m²(l)</i>	<i>%</i>
<i>AIU 8</i>	<i>0</i>	<i>3.138</i>	<i>3.138</i>	<i>100,00</i>
<i>AIU 10</i>	<i>1.273</i>	<i>0</i>	<i>-</i>	<i>-</i>
<i>AIU 20</i>	<i>0</i>	<i>602</i>	<i>0</i>	<i>0,00</i>
<i>AIU 21</i>	<i>1.243</i>	<i>0</i>	<i>-</i>	<i>-</i>
<i>AIU 25</i>	<i>366</i>	<i>0</i>	<i>-</i>	<i>-</i>
<i>HIRI-LURZORUA</i>	<i>2.882</i>	<i>3.740</i>	<i>3.138</i>	<i>83,90</i>
<i>ASTIGARRAGA</i>	<i>0</i>	<i>2.261</i>	<i>0</i>	<i>0,00</i>
<i>ITURRITZA (SAN GREGORIO)</i>	<i>0</i>	<i>33.055</i>	<i>0</i>	<i>0,00</i>
<i>LURZORU URBANIZAZIENA</i>	<i>0</i>	<i>35.316</i>	<i>0</i>	<i>0,00</i>
<i>ATAUN</i>	<i>2.882</i>	<i>39.056</i>	<i>3.138</i>	<i>8,03</i>

Hiri-lurzoruko aurreikuspenen garapenaren inguruan zera esan daiteke:

- Udaletxearen eta Tourseko San Martin elizaren inguruan plangintzak AIU 8 eremuan aurreikusten duen espazio libreak berebiziko garrantzia du Elbarrena auzoaren hiri bilbean eta, are gehiago, udalerraren lurralde eremuan, izan ere, tokiko espazio publiko esanguratsu nagusia eta ia bakarra baita; 8.1 Exekuzio unitateko birpartzelazio proiektua 2011ko apirilaren 19an onartu zen behin betiko Alkatetza dekretu bidez, eta aurreikusitako espazio libre publikoa gauzatua dago, eremuak garatu gabe jarraitzen duen arren.
- 2005eko plangintza orokorrak 1999an burututako espazio libreak eta ekipamenduak (Herri Antzokia) finkatu zituen.
- GFAk 2006ko urriaren 3an behin betiko onartu zuen arau aldaketaren ondorioz antolatu zen espazio libre publikoa AIU 20 eremuan, Joxe Miguel Barandiaran interpretazio zentroa osatuko lukeen ekipamendu publikoarekin batera; plangintzak desjabetze bidezko jarduketa-sistema publikoa aurreikusten du, baina gaurdaino ez da burutu eta Udalak zalantza handiak ditu esku-hartze honen inguruan.
- 2005eko plangintza orokorrak (2006ko arau aldaketak bezalaxe) San Gregorio auzoko espazio libre publiko nagusia finkatu zuen.
- 2005eko plangintza orokorrak (2006ko arau aldaketak bezalaxe) Aia auzoko espazio libre publiko nagusia finkatu zuen.

Aldiz, indarreko plangintza orokorrak lurzoru ez urbanizagarrian aurreikusten dituen espazio libreen sistema orokorrek, *Astigarraga* eta *Iturritza* izeneko eremuek, aipamen eta azterketa berezia merezi dute, gure ustez.

Aipatu bi eremuak Arau Subsidiarioetako *II. Lurren zermugapena (udal barrutia)* planoan ageri dira, alegia, udalerrri osoko lurzoruaren kalifikazio orokorra finkatzen duena, baita Memoriako *Ezaugarrien koadro orokorrak* atalean ere, gune libreei dagokienean zehazki. Baina hor amaitzen dira Arau Subsidiarioek bi eremu hauei egiten dizkieten aipamenak, *Iturritza* eremuaren antolaketa xehatua garapen plangintzara igortzeko egiten dena izan ezik.

Bada, udalerrian aurreikusitako espazio libre publiko osoaren %84,21era eta proposatutako berriaren %90,42ra ailegatzten diren bi eremu hauek ez dira inoiz gauzatu, ez dago haien garapenaren inguruko inolako berririk, eta eremu horietako lurzoruak esku pribatuetan jarraitzen du. Ondorioz, Ataungo herritarrek duten benetan gauzatutako espazio libreen estandarra 3,55 m²/biztanle da soilik, eta ez arauk adierazitako 24,70 m²/biztanle.

Gauzak horrela, irmoki salatu behar da lurzoru ez urbanizagarrian zedarritutako bi gune hauek, aurreikusitako bizitegi hazkundearen arabera, Legeak xedatutako gune berdeen zuzkidura justifikatzea beste helbururik ez dutela, eta hiri-ereduaren kalitatearen mesedetan betetzen duten funtzioa hutsaren hurrena dela.

Gainera, horrela kalifikatutako lurzoruaren jabeak babesgabetasun egoera betean aurkitzen dira, bere ondasunaren erabilera mugatu baina ordainik eskaintzen ez duen jokabide arbitrarioaren ondorioz, eta erakunde publikoek halako jokabideak ekidin beharko lituzkete.

Etorkizunera begira, beraz, funtsezkoa da udal plangintzak izendatzen dituen Gune Berdeen Sistema Orokorrak hiri-bilbean txertatuak egotea eta hiri-ereduan zuzeneko funtzioa betetzea, egungoek ez bezala. Zentzu horretan, espazio publikoen eta gune berdeen arteko bereizketa baztertu beharko litzatekeela uste dugu, eta espazio publikoetan gune hiritartuak eta naturalak uztartu, klima-aldaketak hiri-guneetan sortuko dituen erronka berriei aurre egin ahal izateko.

Azkenik, *II. Lurren zermugapena (udal barrutia)* planoak soilik jasotzen duen Lizarrustiko espazio libreen sistema orokorra (F.10) aipatu behar dugu, esan bezala, Arau Subsidiarioetan beste inon aipatzen ez dena.

Bestalde, ekipamenduen sistema orokorren (G.10) arloko esku-hartzeek honako garapen maila izan dute:

Eremua	Finkatua		Proposatua			Gauzatua	
	m ² (l)		m ² (l)		m ² (s)	m ² (s)	%
	G.10	g.10	G.10	g.10			
AIU 7 Udaletxea	-	350	-	-	-	-	-
AIU 8 Tourseko San Martin eliza	1.467	-	-	-	-	-	-
AIU 10 Herri Antzokia	617	-	-	-	-	-	-
Erabilera anitzeko gela	86	-	-	-	-	-	-
Liburutegia	-	106	-	-	-	-	-
Mediku-kontsultategia	-	80	-	-	-	-	-
AIU 14 Galbarioko ermita	-	133	-	-	-	-	-
AIU 15 Ikastola-Polikiroldegia	15.199	-	-	-	-	-	-
AIU 18 San Gregorio eliza	247	-	-	-	-	-	-
AIU 20 Interpretazio zentroa (osagarria)	-		1.709	225	1.130	0	0,00
AIU 21 San Gregorioko elkargunea	1.334	289	-	-	-	-	-
San Gregorioko frontoia		643	-	-	-	-	-
AIU 25 Frontoia-Kontsultategia	-	159	-	-	-	-	-
Eliza	-	374	-	-	-	-	-
HIRI-LURZORUA	18.950	2.134	1.709	225	1.130	0	0,00
San Martingo hilerria	2.062		-	-	-	-	-
San Gregorioko hilerria	640		-	-	-	-	-
Aiako hilerria	224		-	-	-	-	-
San Gregorioko interpretazio zentroa (Ola)	-		185	-	-	185	100,00
San Gregorioko errota	-		97	-	-	97	100,00
Sarako interpretazio zentroa	-		34.747	-	-	34.747	100,00
LURZORU URBNIZAEZINA	2.926		35.029	-	-	35.029	100,00
ATAUN	21.876		36.738	-	-	35.029	95,35

Ikus daitekeenez, ekipamendu publikoen alorrean 2005eko Arau Subsidiarioek antolatutako zuzkidura berria Joxe Miguel Barandiaran ataundarraren eta bere bizitoki izandako Sara etxearen inguruan sortutako interpretazio zentroak eta eraikin osagarriek osatzen dute.

Horrela, Sara etxea bera interpretazio zentro gisa egokitu da, eta haren inguruko 3 hektarea t'erdi ekipamendu publiko gisa kalifikatu dira, eraikinaren jatorrizko kontestu edo ingurunea babestu asmoz. Haren osagarri gisa atondu dira San Gregorio auzoan bertan kokatzen diren Ola baserria eta garai bateko errota, guztiak oinezko bide baten bitartez lotzen direlarik.

Gainera, espazio publikoen atalean adierazi bezala, GFAk 2006ko urriaren 3an behin betiko onartu zuen arau aldaketaren ondorioz, Joxe Miguel Barandiaran interpretazio zentroa osatuko lukeen ekipamendu publikoa antolatu zen AIU 20 eremuan, hau da, hiri-lurzoruan.

Plangintzak desjabetze bidezko jarduketa-sistema publikoa aurreikusten du hura gauzatzeko, baina gaurdaino ez da burutu eta Udalak zalantza handiak ditu esku-hartze honen inguruan.

Azkenik, atal honetan ezin aipatu gabe utzi AIU 15 eremua, non plangintzak udalerrri mailako ekipamendu publiko nagusien zuzkidura biltzen duen, herriko polikiroldegia eta ikastola esaterako. 2005eko Arau Subsidiarioek garaiko zuzkidura finkatu bazuten ere, atea irekia utzi zuten Plan Berezi baten bidez aprobetxamendu berriak antolatzeko, bere indarraldian halakorik gertatu ez bada ere.

A3.4 KOMUNIKABIDE-SISTEMA OROKORREN GARAPENA

Komunikabide-sistema orokorren (E.10) arloko esku-hartzeek honako garapen maila izan dute:

Eremua	Azalera m ² (l)		Esku-hartzearen helburua	Gauzatua
	E.10	E.20		
AIU 2	2.212		GI-2120 errepidetik industria-gunera sarbidea antolatzea.	Ez
AIU 5		3.780	Errekaren mendebaldeko etxadietara sarbidea bermatzea.	Bai
AIU 6	403	808	Errekaren mendebaldeko etxadietara sarbidea bermatzea.	Bai
AIU 7	256		San Martingo hilerria doan errepidearen bidegurutzeta zabaltzea.	Ez
AIU 8	1.261		GI-2120 errepideko trafikoa mantsotzea.	Bai
AIU 9	221		Elbarrena auzoko hiri-bilbean GI-2120 errepidea zabaltzea.	Bai
AIU 11	1.234		Elbarrena auzoko hiri-bilbean GI-2120 errepidea zabaltzea.	Ez
AIU 13	1.784		Espaloia eta Aitzarteko bidegurutzeta zabaltzea.	Ez
AIU 16	238		GI-2120 errepidea finkatzea.	Bai
AIU 17	2.079		GI-2120 errepidea eta GI-3151 errepidearen bidegurutzeta finkatzea.	Bai
AIU 18	445		GI-2120 errepidea finkatzea.	Bai
AIU 19	716		San Gregorioko hilerriko GI-4152 errepidea finkatzea.	Bai
AIU 20	331		GI-2120 eta GI-3152 errepideen bidegurutzeta finkatzea.	Bai
AIU 21	1.063		GI-2120 errepidea finkatzea.	Bai
AIU 22	761		GI-3152 Lauztiko errepidea zabaltzea.	Ez
AIU 23	707		GI-2120 errepidea finkatzea.	Bai
AIU 24	347		Aia auzoan GI-3151 errepidea finkatzea eta berrantolatzea.	Ez
AIU 25	190		Aia auzoan GI-3151 errepidea finkatzea.	Bai
HIRI-LURZORUA	13.845	4.991		%65

*Lurzoru ez urbanizagarrian kalifikatutako komunikabideen sistema orokorrak (E.10) Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumeneko errepideak dira.

Komunikabide-sistema orokorren arloko esku-hartzeak ez dira anbizio handikoak indarreko plangintzan eta, oro har, haien garapena dagokien eremuaren garapen mailari lotua dator. Aipagarria da zentzu horretan GI-2120 errepidean trafikoa mantsotzeko burututako esku-hartzeak, batik bat Elbarrena auzoko herrigunetik pasatzean. Hala ere, plangintzak uko egin zion modu nabarmenean errepidearen zabaltzea oztokatzen duten eraikuntzak ordenazioz kanpo deklaratzeko aukerari.

Gauzak horrela, udalerrria gurutzatzen duen eta herrigune populatuenak egituratzen dituen GI-2120 errepidearen inguruko erabakiak hurrengo HAPOren funtsezko atala izango dira.

A4. ESKU-HARTZE HELBURU ETA IRIZPIDE OROKORRAK

A4.0 ALDERDI OROKORRAK

2023. urtean burutu den diagnosian nabarmen geratu den bezala, **Ataunek berebiziko erronka demografiakoari egin beharko dio aurre** hurrengo hamarkadetan. Egungo joera betiketuz gero, hau da, hazkunde begetatiboa zein migrazio saldoa emaitza negatiboetan egonkortuz gero, **Ataunek %4,5 inguruko biztanleria gal dezake** hurrengo 15 urteetan. Eta egoerak ez du hobetzeko zantzurik ageri gaurtik hasita neurriak hartzen ez badira.

Gure iritziz, biziberritze demografikoa **biztanleria gaztearen errotzetik** eta udalerriak batik bat BOL (Beasain-Ordizia-Lazkao) eremuarekiko duen **migrazio saldoa iraultzetik** etorriko da. Eta horretarako beharrezkoa da, batetik, **udalerrian bere bizi-proiektua garatu** nahi duen ataundar ororentzat baldintzak sortzea, bizitegi, lan edo gizarte arrazoiengatik alde egin behar izanik gabe, eta bestetik, inguruko udalerriek eskaini ezin dituzten **bizimodu “alternatiboak”** antolatzea.

Ataungo ehun produktiboak potentzialtasun mugatua du eta ez du, epe motz-ertainean behintzat, eskualdeko ekonomia egiturak udalerrian sortzen duen ongizatea ordezkatu. Baina, **iraunkortasun paradigma oinarri hartuta**, tokiko nekazaritza-abeltzaintza eta ingurumen- zein kultura-ondarea ustiatuko dituen eredu ekonomikoa **herri-nortasun berri baten ardatza** izan daiteke. Bide batez, Goierriko dinamismo ekonomiko handiko eremuarekiko duen **mendekotasuna baliatu** beharko luke Ataunek, tokiko beharrak ahaztu gabe, eskualdearen eskakizunetara egokitutako **funtzio eta zerbitzu osagarriak** garatuz.

Bistakoa da helburu hauek hirigintza plangintzaren eskumenetatik ihes egiten duten ekimen eta erabakien beharra dutela, eta batez ere, ezinbestekoa da Ataundarren bultzada. Hala ere, ezin uka daiteke etorkizuneko Plan Orokorrak baduela aurrean saihestu ezinezko erronka: udalerrira jarduteko hirigintza-esparru batez hornitzea non **administrazioaren eta herritarren jarduna eta ekintzailera bateratuak** bultzatu eta erraztuko diren. Edo, behintzat, ez dadila oztopo izan bere helburuak lortzeko.

Ildo beretik, aurrerago aurkeztuko diren izaera orokor edota sektorialeko irizpideez gain, berebiziko garrantzia du gure ustez Ataunen egun indarrean den lurralde- edo **hiri-eredua berrikustea**, udalerraren eremu hiritarra begiratzeko, aztertze eta proiektatzeko **paradigma aldaketa**. Hau da, indarreko plangintzak auzuneak modu isolatuan antolatze duen joera gainditu eta Elbarrena eta San Gregorio arteko lurraldea **modu bateratuan garatu beharreko hiri-gune gisa** ulertzea beharrezkoa da.

Azkenik, indarreko Arau Subsidiarioen berrikuspena baliatu behar da udalerriko plangintza orokorra **udalaz gaindiko lege, araudi edota plangintza tresna ugarietara egokitzeko**, 2005. urtetik gaurdaino lurralde plangintzaren eta hirigintzaren lege-esparrua goitik behera aldatu baita. Beraz, testuinguru honetan landua, eta EAEko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen II. Kapituluko hirigintza-oinarri orokorren garapen modura, Ataungo etorkizuneko plangintza orokorrak jarraitu beharreko irizpide nagusiak honakoak dira:

1. Garapen jasangarria. “Oraingo belaunaldien beharrak etorkizuneko belaunaldiek euren beharrei erantzuna emateko aukerak arriskuan jarri gabe asetzea” esan nahi baita. Garapen jasangarria, bere hiru alderdietan banatua, ekologikoa, ekonomikoa eta soziala, hirigintza plangintzaren jarduketa esparruan honako zehaztapenetara hedatzen da:

a) ingurumen eta ekologia jasangarria:

- lurzoruaren balio natural eta agrologiako babeste eta berreskuratzea, eta honen okupazio jasangarria;
- ibai sarearen babeste eta berreskuratzea, baliabide hidrogikoen ustiapen jasangarria;
- baliabide naturalen ustiapen eraginkorra, eraginkortasun energetikoaren sustapena, energia berriztagarrien erabilera eta ekonomia zirkularra (gutxitu-berrerabili- birziklatu), hondakinen ekoizpena murriztuz;
- garraio publiko bidezko mugikortasun jasangarria eta oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasuna sustatzea, motordun ibilgailuen erabilera mugatuz;
- paisaiaren ezaugarrien babeste eta berreskuratzea, alderdi kulturala barne hartuz eta euskararen gaineko ondorioei arreta berezia jarritz.

b) jasangarritasun ekonomikoa:

- komunitatearen ekonomia-ongizatea eta -garapena sustatzea, produkzio erabilerara bideratutako lurzoruaren nahikotasuna eta egokitzapena bermatuz;
- hirigintza plangintzak administrazio publikoengan eragiten duen inpaktua neurtzea, tokikoetan bereziki, beharrezkoak diren azpiegituren ezartze eta mantentzeengatik edo ondoriozko zerbitzuen prestazio eta abiarazteengatik;
- plangintzak proposatutako jarduketaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzea.

c) jasangarritasun soziala:

- herritar guztien berdintasun eta kohesio soziala sustatzea, Ataungo emakumeen egoera sozio-ekonomikoari arreta berezia emanez;
- helburu orokorren jazarpenean herritarren inplikazioa sustatzea, herritarren parte-hartze eta demokrazia zuzenaren bidez.

2. Interes publikoa. Errotik baztertu behar dugu “ez dago interes orokor eta partikularren artean benetako desberdintasunik, interes orokorra interes partikularren batuketa edo multzoa den neurrian” aldarrikatzen duen ideia.

Aitzitik, gure iritziz, interes orokorra ezin da interes partikularretatik sortu, horiek edo horien batuketa gainditzen dituen heinean. Ikuspegi honen baitan, interes orokorra “borondate orokorraren” adierazpen bat da, edo guztien interesaz besterik arduratzen ez dena.

Nolanahi ere, arlo horretan demokratikoki hautatutako eta eskumena duten botere publikoei dagokie interes publikoaren definizio zehatza, hirigintza-plangintzak lurzuaren erabilera antolatzea legitimatzen duena. Hala ere, botere publiko horiek Ataungo herritar guztien esku utz dezakete "borondate orokorra" osatzea, herritarrek parte hartzeko eta zuzeneko demokraziarako tresnen bitartez.

Tresna hauetako batzuk burutu dira jada edo Hiria Antolatzeko Plan Orokorraren (HAPO) diagnosi fasearen aurretik onartutako herritarren parte-hartze programan jasoak daude; gainera, plangintzaren lanketa eta izapidetze prozesuan zehar tresna berriak ere onartu daitezke, hala erabakiko balitz.

3. Hitzarmena. Indarreko Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) ezarritako ingurune fisikoaren eta lurralde ereduaren esparruan “lurraldera sartzeko gunea” bezala izendatzen da Ataungo udalerrria, Aralar Parke Naturala dela eta. Baldintza hau Plan Orokorraren idazketarako hautatutako eredu sozio-ekonomikoaren funtsezko elementuetako bat bilakatzen da, aipatu bezala, **iraunkortasun paradigma oinarri hartuta**, tokiko nekazaritza-abeltzaintza eta ingurumen-zein kultura-ondarea ustiatuko dituen eredu ekonomikoa **herri-nortasun berri baten ardatza** baita.

Nahiz eta Aralarko ondare naturalaren kudeaketa bateratuak hainbat mendeko historia izan, enkoadraketa funtzional egokia lortu asmoz gomendagarria litzateke mugakide diren udalekin komunikazio arin eta jarraitua mantentzea, ereduak lurralde eta sektore plangintzaren babesa izan dezakeela alde batera utzita.

4. Herritarren parte-hartzea. Arestian azaldu den moduan, jasangarritasun sozialaren oinarritzko atala osatzen du, herritarrak helburu komunen jazarpenean inplikatzeko forma gisa. Ez dago errepikatu beharrik garatuko den HAPOk hautatutako lurralde ereduarekiko Ataungo herritarren identifikazioak duen garrantzia, horrela soilik bihurtuko baita etorkizuneko erronkei aurre egiteko baliabide eta tresna egokia.

A4.1 INGURUMEN ETA INGURUNE FISIKOAREN ALDERDIAK

Ereduaren jasangarritasun orokorraren baitan, atal honen helburu espezifikoak hurrengoak dira:

- 1) Biodibertsitatearen eta espazio naturalen babesa eta zaintza.
 - Lurralde antolamendu sektorialek babestutako espazio naturalen araudi eta mugapena jaso, Aralar Parke Naturalari dagokionez bereziki.
 - Ingurune fisikoaren konektagarritasun eta jarraitasuna bermatu, hiri espazio libreak barne, isolatze kasuak eta beronen zatiketa saihestuz.
- 2) Ibai-sarearen babesa eta berreskuratzea.
 - Agauntza ibaiaren ibilgua eta ibaiertzeko landaredi naturala babestu eta berreskuratzea, ertzen birsorkuntza sustatuz.
 - Azaleko drainatze sarea babestu eta mugatu, ubide nagusiak, bere ibaiadar eta goi-ibarreko errekak barne hartuz.
 - Gaur egungo baliabide hidrológicoak eta akuiferoen kargatze ziklo naturalak babestu, arro hartzaileen landare-estalkia eta lurzoruak zainduz.
- 3) Ingurumen arriskuen prebentzioa.
 - Uraldi, zarata eta kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen araudia aplikatu eta hauen berreskuratzea sustatu.
 - Lurzoruaren malda, litologia eta geruzen antolamendua balioztatu, baita honen higakortasuna eta akuiferoen ahultasuna ere.
- 4) Nekazaritza eta baso lurzoruen babes eta birsorkuntza.
 - Baso autoktono eta nekazaritza lurzoruak babestu eta indartu.
 - Kudeaketa jasangarri bidez ustiapen intentsiborako egokiak diren baso-lurzoruak mugatu eta arautu, bereziki udal jabetzakoak diren lursailen kasuan, haien inbentarioa eginez eta kudeaketa plana garatuz.
 - Nekazal eta baso-lurzoruaren ziklo naturalen ingurumen kalitatea zaindu, baita bere inguru ekologikoena ere.
- 5) Paisaiaren berreskuratze eta babesa.
 - Bat ez datozen elementuen zaharberritze eta paisaia-integrazio jarduketak sustatu.
- 6) Herritarren sentsibilizazioa eta ingurunearen ustiapen arduratsua sustatu.
 - Bide, bidezidor eta dibulgaziorako, balioa azpimarratu eta udal mailan babesteko interes naturalistiko berezia duten guneen katalogo bat egin.

A4.2 NUKLEO LANDATARRAK

Ataungo udalerrriak “barreiatutako” eremu zabala du, hein handi batean tipologia tradizionalako baserriez eta azken urteetan eraikitako bizitegi eraikin isolatu batzuez osatua, azken hauek zorianez erreferentziazko beste eremu batzuetan baino gutxiago ugaritu direlarik.

Bere aldetik, indarreko plangintza orokorrak “landa-gune” izendatzen ditu Arinberriaga eta Ergoiena auzuneak, 2/2006 Legearen 29. artikuluko zehaztapenen arabera. Plangintzak hautatu helburu eta irizpide orokorren esparruan aztertu beharko du izendapen hauen egokitasuna, baita izendapena jasotzeko baldintzak betetzen dituzten beste auzuneen kasuan ere.

Edonola, atal honen helburu espezifikoak honakoak dira:

- 7) Baserriaren tipologia tradizionalaren berreskuratze eta babesa.
- Lurzoru ez urbanizagarrian etxebizitza erabilera soilatik izango duten eraikin berrien eraikuntza saihestu, gai honetan indarrean dagoen legediaren babespean, 2/2006 Legea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa, nagusiki.
 - Gaur egun hondatuta dauden eta/edo erabiltzen ez diren baserriak birgaitzea eta berrerabiltzea sustatzea, horien banaketa horizontala barne. Horrek ez du esan nahi, inola ere, nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak bertan behera utzi behar direnik eta bizitegi erabilera soilera bideratu behar direnik.
 - Baserriaren eraikuntza gehigarriak antolatu eta arautu, txabolak besteak beste, nekazaritza eta abeltzaintzari sostengua eta ingurune fisikoaren ingurumen eta paisaiaren ezinbesteko zaintza bateragarri eginez.
 - Egun indarrean dagoen “gutxieneko lurzatia” (20.000 m²) aztertu, lur-banaketak egiteari dagokionez, eta baserriaren nekazal-abeltzain jardueraren oraingo eta etorkizuneko mantentze eta berreskuratzearen gainean izan ditzakeen ondorioak balioztatu.
- 8) Azpiegitura eta zerbitzu egokien zuzkidurak.
- Tokiko bide sarea finkatu herrigunea eta inguruko barreiatuen arteko komunikazioa hobetzeko xedeaz.
 - Urkillagako gaina eta Aiako errepidea (GI-3151), Lauzti erreka (GI-3152), Aitzartekoa (GI-4151), eta Motasoroko errepidea (GI-4153) zaindu, hornitu eta sustatu, erakargarritasun natural handiko inguruneari sarbide gisa eta eremu landatarra artikulatzen duten oinarriko azpiegitura gisa.
 - Udalerriko bizitegi eremu guztietan argiteria, gasa eta edateko uraren hornikuntza sareak osatu eta hobetu.

A4.3 EREMU HIRITARRA

Eremu hiritarra udalerriko asentamendu sistema nagusi gisa ulertzen dugu, aranaren hondoan eta Agauntza ibaiaren ibilgua jarraituz kokatzen dena, eta Elbarrena, Astigarraga, Arrondo, Arinberriaga eta San Gregorio auzuneek osatua. Ergoene eta Aia auzuneak aldiz eremu hiritarraren mugapenetik kanpo kokatzen ditugu, bakoitzaren berezko ezaugarriek tokian tokiko erantzuna eskatzen baitute.

Beraz, atal honen helburu zehatzak hurrengoak dira:

- 9) Hierarkizatutako eta gune-anitzeko kokaleku sistemaren finkatzea.
 - Biztanleria errotzeko eta erakartzeko gaitasuna izango duen nukleo nagusi baten garapena, Elbarrena eta San Gregorio arteko lurraldea modu bateratuan antolatuz hiri-zein landa-erabileren mosaiko gisa.
 - Elbarrena eta San Gregorio auzuneak eremu hiritarra mugatu eta asentamendu sistema errematatzen duten buru edo polo gisa garatzea, bi poloen arteko konektibitatea oinezko, bizikleta eta garraio jasangarri zein publiko bidez bermatuz.
 - Elbarrenako herrigunearen hierarkia eta erreferentzialtasuna indartzea, ekipamenduen zuzkidura eta espazio publikoen hiri-kalitatea hobetuz eta merkataritza eta ostalaritza jarduerak sustatuz.
 - Udalerrri mailako ekipamendu nagusien kokapena baliatuz, Astigarraga auzunea bizitegi programaren zein eskualde mailako ekipamenduen kokagune nagusi gisa hautatzeko aukera aztertzea.
 - Gaur egungo asentamenduen izaera “periurbanoa” finkatzea, elkarren arteko jarraitutasunak ekidinez, formalki besterik ez bada ere.
 - Agrologiako balio altua duten lurzorua eremu hiritarraren egiturazko elementu gisa antolatzea eta erreka-ertzen kolmatazioa saihestea.
- 10) Asentamendu sistemaren artikulazioa.
 - Elbarrena eta San Gregorio auzuneen arteko oinezkoentzako, txirrindularientzako eta gainontzeko mugikortasun-bitarteko jasangarrientzako hiri-izaerako bidea antolatzea, GI-2120 errepideari eta Agauntza ibaiari paralelo.
- 11) Hiri-paisaiaren ezaugarrien babesa.
 - Hiri-agertokia espazio publikoaren arabera antolatu, espazio libre desberdinen jarraitasuna eta konektagarritasuna bermatuz.
 - Proposatutako dentsitate eta tipologiak lurraldearen ahalmenaren eta udalerrriaren izaeraren arabera egokitzea.

A4.4 BIZITEGI LURZORUA

Udalerriaren egungo egoeraren diagnosiak ikusarazi du gainbehera demografikoa ez dela bizitegi eskaintza eskasaren ondorio, Ataunek egun 237 etxebizitza huts baititu eta indarreko plangintzan aurreikusitako etxebizitzaren %30 besterik ez baita gauzatu. Are gehiago, azken 14 urteetan 2 etxebizitza berri gauzatu dira soilik.

Beraz, biziberritze demografikoan lagundu nahi badu, plangintza berriko bizitegi programak eskaera handituko duen eskaintza erakargarria proposatu behar du, ingurumen- zein kultur-ondarearen eta ekipamenduen laguntzaz, inguruko udalerriek eskaini ezin dituzten bizimodu “alternatiboak” antolatuz.

Horren harira, egokia litzateke herritarren egungo etxebizitza kultura birdefinitzea, alokairua bizitzeko modu bezala sustatuz, aldi baterako edo behin betirako. Eta zeregin horretan erantzukizun handia du administrazio publikoak. Dena den, etxebizitza politikek eskaintzan ere eragina izan beharko lukete, eta egun hutsik dauden etxebizitzaren zati bat alokairu gisa merkaturatzen lagundu, edonola, plan orokorraren eskumenetatik kanpo geratzen diren ekimenak adostuz.

Nolanahi ere, atal honen helburu zehatzak hurrengoak dira:

12) Udalerriaren bizitegi ahalmenaren berrikustea.

- Bizitegi ahalmena indarreko Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) ezarritakoaren arabera kuantifikatu, egindako diagnostik eratorritako aldagai eta osagarri sozio-demografikoak aplikatuz.

**Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak Plan Orokorraren haserako formulazioaren harira helarazi duen txostenak (3HI-016/24-N35) “udal hiri-plangintzan aurreikusi beharko den ahalmen maximoa”*

178 etxebizitzakoa dela adierazten du.

- Indarreko antolamenduan betegabeko ahalmena berrikusi jasangarritasun eta zilegitasun irizpideen baitan.
- Udalerriko bizitegi ahalmena birbanatu eta antolatu azkenean hautatuko den lurralde-eredu zein kokaleku edo asentamendu sistemaren arabera.

13) Etxebizitza duin baterako eskubidea.

- Bere eskumenen barruan, hutsik dauden etxebizitzak alokairu-merkatuan jartzeko neurriak proposatzea, ahal den neurrian, lizentzien onarpena konpromezu zehatzak hartzera baldintzatuz.

- Arauzko estandarrak alde batera utzi eta, ahal den neurrian, babes ofizialeko etxebizitza alokairu sozialera bideratu, bereziki sustapen publikoa izango duten garapenetan.
- Biztanleriaren zahartzeak dakartzan arazoei aurrea hartu, landa-eremuan batik bat, non biztanleria eremu hiritarrera mugituko dela aurreikusi daitekeen.

14) Etxebizitza parkearen jasagarritasuna.

- Zaharkituak, degradatuak edo irisgarritasun arazoak dituzten guneen birsorkuntza ahalbidetuko duten jarduketak sustatu.
- Bizitegi-garapena pixkanaka eta zerbitzuen eta ekipamenduen hornidurarekin orekan programatzea.
- Bizigune eremu berrien etxebizitza tipologia eta dentsitateak kokapen, topografia eta hiri-ingurunearen ezaugarrien arabera egokitu, guztiaren gainetik balio natural eta paisajistikoak gordez.
- Gaur egungo eta etorkizuneko etxebizitza eraikinen eraginkortasun energetikoa eta ekoizpen endogenoko energia berriztagarrietan oinarritutako instalakuntza kolektiboen proiektuak sustatu.

A4.5 JARDUERA EKONOMIKOAK

Esan bezala, Ataungo ehun produktiboak potentzialtasun mugatua du baina tokiko nekazaritza-abeltzaintza edota basogintza ustiapenak, eta ingurumen- zein kultura-ondarean oinarritutako turismo jarduerak herri-nortasun berritu baten ardatza izan daitezke, beti ere, iraunkortasun paradigma oinarri hartuta.

Honen harira, azpimarratu beharra dago turismoa ez dela jarduera ekonomiko isolatutzat hartu behar, udalerriko zerbitzu sareko zati banaezin bezala baizik, eta halakotzat, Ataungo herritarren zerbitzura egon behar du. Inguruko ezaugarriak kontuan hartzen dituen sektore turistiko bat sarea osatzen duten beste zerbitzuekin sinergiak sortzeko gai da, horrela lurralderako eredu ekonomiko berri bat sortuz, eta sektoreari arrunki lotzen zaizkion hainbat arazo ekidinez.

Gainera, tokiko beharrak ahaztu gabe, eskualdearen eskakizunetara egokitutako funtzio eta zerbitzu osagarriak garatu beharko lituzke Ataunek, izan ere, jarduera ekonomikoak antolatzen LPSak eta Goierriko LZPak “garapen txikiko udalerriri” gisa kategorizatzen baitute, eta ondorioz, hirigintza plangintzak kalifikatuko duen lurzorua “hiri-izaerako jardueretarako” mugatzea proposatzen baitute.

Beraz, atal honetako helburu zehatzak hurrengoak dira:

15) Basogintza eta landa-abeltzaintzaren babesa eta sustapena.

- Baserriaren egungo zein etorkizuneko nekazal-abeltzaintza ekoizpen ahalmena mantendu, landa eremua higiezin presiotik babestuz.
- Landa eremuko biztanleriaren belaunaldi erreleboa sustatu, baserriaren jarduera eta bizitegi-ekoizkor funtzio mistoa zaintzeko xedearekin.
- Nekazal- eta abeltzaintza-produktuen lehen eraldatze jarduerak eta horiek udalerrian bertan merkaturatzea sustatu, landa ingurunean eta eremu hiritarrean beharrezko azpiegiturak aurreikusiz.
- Basogintza jarduera eta lehen eraldatzea sustatu, bai zerrategiei bai udalerriko ahalmen handiko energia berriztagarriei (biomasa, ura..) lotutako jarduera berriei dagokionean.

16) Industria jarduera finkatzea.

- Zubikoetako industria lurzorua finkatzea, eta Ajarrestan aurreikusitako garapena (AIU2) berraztertzea.
- Udalerriak dauzkan baliabide hidrologiko edo eoliko anitzen ustiapenerako azpiegitura berrien balizko sorkuntza aztertu.

17) Zerbitzu sektorearen garapena.

- Komertzioa eta ostalaritza Elbarrenako eta San Gregorioko herriguneeen elementu bereizgarri bezala kontsolidatu.
- Lurraldearen ezaugarriekin koherentea den sektore turistikoa bat sustatu, azpiegituren (hotelak, aterpeak, kanpalekuak, ekipamenduak...) aurreikuspena eta erlazionatutako zerbitzuen bitartez, bai herriguneean baita landa eremuan ere.
- Hirugarren adinekoentzat bizitegi, asistentzia eta aisialdirako zuzkidurak sustatu, tokiko zein eskualdeko biztanleriaren zahartzeari erantzun diezaiokkeen sektore ekonomiko eta laboral moduan.

A4.6 EKIPAMENDUAK ETA ESPAZIO PUBLIKOAK

18) Ekipamendu zuzkidura finkatzea eta garatzea.

- Udalerriko ekipamenduak plangintza orokorrak azkenenean onartutako lurralde ereduaren arabera antolatzea, egungo biztanleria errotzeko eta berria erakartzeko gaitasuna izango duen nukleo nagusiaren elementu egituratzaile eta bereizgarri gisa.
- Ekipamenduen zuzkidura, tokiko beharren arabera ez ezik, eskualdeko eskakizunen arabera garatzea eta antolatzea, J.M. Barandiaran Euskal Parke Mitologikoari eta Interpretazio Zentroari aisia- edota kirol-ekipamendu publikoen zuzkidura batuz, lurralde plangintzak ezarritakoaren babesean.

- Elbarrenan udalerrri mailako kultur eta administrazio ekipamenduen zuzkidura finkatzea eta garatzea, herrigunearen hierarkia eta erreferentzialtasuna sendotzeko.
- Astigarragan egungo ekipamendu orokorrak finkatzea eta eskualde mailako ekipamendu berriak antolatzea, lurralde ereduaren oinarritzko elementu gisa.
- San Gregorion tokiko ekipamenduak finkatzea eta garatzea, eremu hiritarreko asentamendu sistema errematatzen duen poloa sendotuz.
- Etxebizitza sozialak eta zuzkidura-bizitokiak barne-hartzeko udal ondarearen erabilera aztertu, gazteriaren emantzipazio beharra eta tokiko biztanleriaren zahartzeari dagozkion beharrak modu bateratuan ebazteko asmoz.

19) Espazio publikoen hiri-kalitatearen hobetzea.

- Espazio publiko adierazgarri edo esanguratsuak Elbarrenako herrigunearen elementu bereizgarri gisa finkatzea eta garatzea.
- Eremu hiritarreko eta landa-guneetako tokiko espazio publikoak finkatzea eta garatzea, herritarren gizarte kohesioa sustatu eta asentamendu sistema finkatu asmoz.
- Espazio publikoan ibilgailu pribatuen trafikoa murriztea eta, ahal den neurrian, GI-2120 errepidearen eragina saihestea.
- Indarreko plangintzak izendatzen dituen espazio libreen sistema orokorrak (Astigarraga eta Iturritza) berrantolatzea eta, hala badagokio, birkokatzea, hiri-bilbean txertatuak egon daitezten eta lurralde-ereduan zuzeneko funtzioa bete dezaten.
- Espazio publikoak bertako landarediaren eta animalien aniztasuna barne hartzen dituen eta hiri ingurunea lurralde eremu naturalarekin lotzen duen azpiegitura ekologikotzat hartzea eta proiektatzea.
- Espazio publikoen eta gune berdeen arteko bereizketa baztertzea eta espazio publikoetan gune hiritartuak eta naturalak uztartzea, klima-aldaketak hiri-guneetan sortutako arrisku berriei aurre egiteko.
- Ahal den neurrian, Agauntza ibaia eremu publikoan txertatzea, bere hiri-kalitatearen ingurumen eta paisaia elementu bereizgarri moduan.
- Espazio publiko osoaren irisgarritasuna eta segurtasuna bermatzea.

A4.7 GARRAIOAK ETA MUGIKORTASUNA

Udalerriko asentamendu sistema GI-2120 errepidearen bitartez artikulatzen da, eta hartan oinarritzen da udalerriko landa eremua eta barreiatu zabala lotzen dituen izaera lokaleko bide sarea ere. Aldiz, plangintza berriaren egiturazko elementu gisa proposatzen da Elbarrenatik San Gregoria asentamendu sistema osoa lotuko lukeen oinezko eta bizikletentzako ardatz berria.

Beraz, atal honen helburu zehatzak hurrengoak dira:

20) Mugikortasun jasangarriaren sustapena.

- GI-2120 errepideari eta Agauntza ibaiari paralelo, Elbarrena eta San Gregorio auzuneen artean hiri-izaerako ibilbide jasangarri berria antolatzea eta sustatzea, udalerrriaren garapen integralaren eta lurralde eredu berrikusiaren funtsezko elementu gisa.
- *Kaxio* bidea deritzon eta landa-izaera duen oinezkoen ibilbidearen proiektua berrestea, arestian aipatu hiri-izaerako ibilbidearekiko guztiz bateragarria baita.
- Ekipamendu eta espazio publikoen irisgarritasuna bermatu, eta oinezko-ibilbideen sare lokala mantendu eta osatu.
- Eskualdeko garraiobide publikoen azpiegiturak eta ibilbideak berrantolatu, haren segurtasuna eta eremu periurbanoen komunikazioa bermatzeko.

21) Ibilgailu pribatuaren integrazio eraginkorra.

- Eremu hiritarrean zein landa ingurunean ibilgailu pribatuaren erabilera murriztu eta berrantolatu, oinezkoei, txirrindulariei eta mugikortasun jasangarriari lehentasuna emanez.
- GI-2120 errepidearen eskualde arteko komunikabide funtzioa berraztertzea eta bere ezaugarriak "leuntzea", Ataungo eremu hiritarrean eragiten dituen erasanak ekidin edota murriztu asmoz.
- GI-2120 errepidea Elbarrena eta San Gregorio auzuneen artean proposatzen den hiri-izaerako ibilbide jasangarri berriarekin bateragarri egiteko neurriak aztertzea.
- Tokiko aparkamendu eskakizunak berrantolatu eta udalerriaz gaindiko ekipamenduek sortutakoa aurreikusi, disuasio-aparkalekuen sorkuntza barne.
- Gaur egungo zein proiektatutako garraio azpiegiturek biztanlerian eragiten dituzten erasanak aztertzea: kutsadura, zarata, hesi efektua, etab.

22) Landa eremuko bide sarearen mantenu eta garapena.

- Tokiko bide sarea osatzen duten Urkillagako gaina eta Aiako errepidea (GI-3151), Lauzti erreka (GI-3152), Aitzartekoa (GI-4151), eta Motosoroko errepidea (GI-4153) finkatzea eta hornitzea, landa-eremuaren garapenaren funtsezko elementu eta lurralderako sarbide gisa.

A4.8 AZPIEGITURAK ETA ZERBITZU SAREAK

23) Ur edangarriaren horniketa sarearen hobekuntza.

- Edateko uraren kalitatea bermatzera bideratutako eskuhartzeak sustatzea, arazketa sistema egokia ezarriz eta sarea osatzen duen fibrozementuzko hoditeria ordezkatzuz.

- Hartune puntu eta arroetako ur kalitatearen zaintza, lurzoru ez urbanizagarriko ordenazio kategorien eta baldintzatzaile gainjarrien erabileren arauketaren bidez.
- 24) Saneamendu sarearen hobekuntza.
- Ur zikinen bilketa sarea osatzea, egungo kolektorea luzatuz edota bestelako sistemak (hondakin uren araztegia) ezarriz.
 - Hiri eta etxeko sareen bikoizketa bultzatu eta sustatu, bai gaur egun daudenak bai berriak, unitarioetatik banatzaileetara.
- 25) Argiteria publikoari jasangarritasun irizpideen aplikatu.
- Sare berriak etekin energetikoen irizpideekin diseinatu.
- 26) Telekomunikazio-zerbitzuen sarbidea bermatu.
- Telekomunikazio-zerbitzuen sarbidea puntako estandarretan bermatzea, proposatzen den garapen ereduaren funtsezko elementu gisa.
- 27) Energia berriztagarrien hedapena sustatu.
- Gas hornikuntzaren sarea hedatzeari uko egin gabe, energia berriztagarrien (fotovoltaikoa, eolikoa, hidroelektrikoa, biomasa...) instalakuntzek sor ditzaketen eskakizunak aurreikusi, adibidez, auzo berogailu sistema zentralizatuak edo “*district heating*” deritzonak.

A4.9 ONDAREA

- 28) Ondare arkeologiko eta eraikiaren kontserbazioa eta balioaren nabarmentzea.
- Euskal Herriko kultur ondare katalogoko elementuak, dagokien babes mailarekin, edo udal mailan babesteko proposatutakoak, Plan Orokorrean txertatu.
 - Aipatu katalogoan jasota ez dauden elementu arkeologiko eta eraikiak babesteko proposatu, garrantzi historiko berezia edo herritarren memoria kolektiboan duten oihartzunagatik.
 - Udalerriko ondare natural eta immaterialarekin batera, ondare arkeologiko eta eraikiaren balioa nabarmendu, hautatu den lurralde ereduaren eta herri-nortasun berritu baten ezinbesteko elementu gisa.
- 29) Ondare inmaterialaren kontserbazioa eta zaintza.
- Plangintza orokor berriak Ataunen euskararen erabilerari eragin diezazkioken ondorioak aztertu, hizkuntzaren kontserbazio gune edo “harnasgune” izaera bermatu asmoz.
 - Bizi eredu eta bizibide tradizionalak zaindu, hirigune zein ingurune periurbano nahiz landa inguruneko bere habitat naturalak mantenduz.

A5. BIZITEGI-AHALMENAREN KUANTIFIKAZIOA

Ataungo udalerrriaren bizitegi-ahalmenaren kuantifikazioa Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan (LAG) ezarritako irizpideen arabera egin behar da (*128/2019 DEKRETUA, uztailaren 30ekoa, zeinaren bidez behin betiko onesten baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak*).

Horrela, Plan Orokorra formulatzeko akordioan eskumendun administrazioei galdegindako eta orain artean jasotako txostenen artean dago Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak helarazi duena, 2024ko apirilaren 24an sinatua (3HI-016/24-N35), non atxikia ageri den *“UDAL HIRI-PLANGINTZAN aurreikusi beharko den ETXEBIZITZEN AHALMEN MAXIMOAREN KALKULUA”*.

Emaitza jasotzen duen taula Memoria honetako A2.3 atalean jasotzen da, aipatu txosten osoarekin batera, eta aurreikusten duen **ahalmen maximoa 178 etxebizitzakoa** da.

Plan Orokorraren diagnostiko fasean lortu diren datu demografikoak bat datozen oro har aipatu kalkuluan erabili direnekin eta, ikusiko denez, proiektu honetan proposatzen diren garapen alternatiba guztiak aipatu ahalmenaren baitan txerta daitezke.

Izan ere, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroek xedatutakoaren arabera, landa-guneen bizitegi-ahalmena kuantifikazioan ez sartzea eta ondorengo kasuak bizitegi-ahalmenaren gehikuntza gisa ez zenbatzea proposatzen baita:

- Etxebizitza kopuruaren gehikuntza eta/edo zuzkidura-jardunetako hirigintza-erakigarritasunaren gehikuntza.
- Lurzoru urbanizaezinean kokatutako baserriak zatitzea.
- Aurreikusita dauden eta oraindik eraiki gabe dauden eraikinak, lizentzia badutenak.
- Hiri-lurzoru eta urbanizagarrian jada dauden bizitegi-eraikinen birgaitze-, ordezte-, eraberritze- edo zatitze-eragiketen ondorioz sortuko diren etxebizitzaren gehikuntza.
- Merkataritza-erabileratik bizitegira aldatzearen ondorioz sortzen diren etxebizitzak.

Ondorioz, eta Aurrerapen agiri honen ondorioetarako, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintzaren eta Hiri Agendaren Zuzendaritzak helarazitako bizitegi-ahalmen maximoa ontzat ematea erabaki da, Plan Orokorraren izapidetze prozesuan har litezkeen bestelako irizpideen kalterik gabe.

A6. ANTOLAMENDU PROPOSAMENAK ETA ALTERNATIBAK

A6.0 SARRERA

Lehen azaldu bezala, Plan Orokorraren helburu nagusia Ataunek hurrengo hamarkadetan izango duen erronka demografikoari aurre egiten laguntzea da, eta biziberritze demografiko hori, gure iritziz, biztanleria gaztea errotuz eta udalerriak batik bat BOL (Beasain-Ordizia-Lazkao) eremuarekiko duen migrazio saldoa irauliz lortuko da.

Beraz, Aurrerapen agiri honetan landuko diren antolamendurako hautabide edo alternatibak gaur egungo Arau Subsidiarioen aurreikuspenak finkatzetik (0 hautabidea), indarrean dagoen lurralde ereduaren zuzenketa sakonera doaz, aipatu helburua erdiesteko ezinbesteko jotzen den eremu hiritarraren begirada bateratua aintzat hartuz, biztanleria errotzeko eta erakartzeko gaitasuna izango duen nukleo nagusi bat garatu eta, iraunkortasun paradigma oinarri hartuta, herri-nortasun berritu baten ardatza izango den eredu sozio-ekonomikoa sustatu asmoz.

1, 2 eta 3 hautabideak lurralde ereduaren aipatu zuzenketarako aukera ezberdinak dira, eta anbizio eta helburu ezberdinak jasotzen dituzte bere baitan plangintza orokor berriaren indarraldirako, nahiz eta bakoitzak antolamendu guztiz bideragarri eta koherente bat proposatzen duen. Hala eta guztiz ere, hautabide bakar bat ere ez da eredu itxia, eta horien guztien lurralde- eta sektore-proposamenak konbinatu ahal izango dira, planteatutako erronkei erantzungo dien eredu jakin bat hautatu arte.

Gainera, 1, 2 eta 3 hautabideek ontzat ematen dute Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) ezarritako gehieneko bizitegi-ahalmena (178 etxebizitza), eta bizitegi-programa txikiagoa proposatzen dute. Eta 0 hautabideak finkatzen duen indarreko antolamenduak proposatutako eta ez gauzatutako etxebizitza kopurua ere hura baino txikiagoa da (112 etxebizitza).

Hala ere, plangintza orokorrak arrakasta izateko eta adierazitako helburuak lortzeko, zalantzarik gabe, udalerraren ingurumen- eta paisaia-ezaugarri apartak balioetsi behar dira, ez baita beti erraza lehen sektorearen garapena inguruneari lotutako sektore turistikoaren sustapenarekin bateragarri egitea, beti ere, ereduaren iraunkortasun ekologikoa eta soziala bermatuz.

A6.1 PROPOSAMENAK ETA HAUTABIDEAK EREMU HIRITARREAN

Atal honetan eremu hiritarraren garapenerako lau hautabide proposatzen dira. Esan bezala, hautabide bakar bat ere ez da eredu itxia, eta elkarren artean konbina daitezke, edota proposamen berriak har ditzakete bere baitan. Horrela:

0 Hautabidea

Hautabide hau indarreko Arau Subsidiarioek ezarritako antolamendu orokorrari dagokio; 2005ean behin betiko onartuak, 2006ko eta 2009ko aldaketa puntualak ere barne hartzen ditu. Hala ere, nabarmentzekoa da bere onarpenetik indarrean sartu den hirigintza legediarekiko (2/2006 Legea) eta lurralde zein arloko antolamenduarekiko plangintzak duen egokitze falta.

Ondorengo koadroak 0 hautabideko aurreikuspenak laburbiltzen ditu, erabilera orokorretan banatuak, aurrez edo indarreko Arau Subsidiarioen babesean jada gauzatutakoak baztertuz.

Beraz, hautabide honen parametro orokorrak hurrengoak dira:

HJE	AZALERA GUZTIRA	0 HAUTABIDEA. ERABILERA OROKORRAK									
		Bizitegiak			Jarduera ekonomikoak		Zuzkidurak		Espazio libreak + ibai ibilguak		Komunik. sarea
		Azalera	+		Azalera	+	Azalera	+	Azalera	+	Azalera
		m ² (l)	m ² (l)	Kop. (*)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)		m ² (l)
1 ZUBIKOETA	17.384	0	0 (0)	17.384	0	0	0	0	0	0	
2 AJARRESTA	20.561	0	0 (0)	20.561	10.553	0	0	0	0	0	
3 ELBARRENA E	78.486	67.648	70 (53)	0	0	1.886	640	3.269	0	5.683	
4 ELBARRENA M	24.180	18.043	0 (0)	0	0	682	0	1.302	0	4.153	
5 ASTIGARRAGA	41.003	24.936	20 (6)	0	0	15.877	0	0	0	190	
6 ARRONDO	29.326	26.947	0 (14)	0	0	0	0	365	0	2.014	
7 S.GREGORIO E	17.219	11.675	0 (7)	0	0	1.770	0	1.373	0	2.401	
8 S.GREG. M	18.833	14.815	14 (5)	0	0	1.711	1.130	635	635	1.672	
9 AIA	6.709	4.807	8 (6)	0	0	677	0	364	0	861	
OROTARA	253.701	168.871	112 (91)	37.945	10.553	22.603	1.770	7.308	635	16.974	

(*) A6.0 atalean adierazitako irizpidearen arabera, bizitegia-ahalmenaren gehikuntza gisa zenbatzen ez diren etxebizitzak.

Beharrezkoa da azpimarratzea indarreko antolamendu orokorrak egun eremu hiritarlean aurreikusitako 203 etxebizitzetatik 91 jarduketa isolatuei edo zuzkidura jarduketei dagozkiela, eta arrazoi horregatik 0 hautabidean zenbatutako bizitegi-programa 112 etxebizitzakoa da, hau da, LAGek ezarritako gehieneko bizitegi-ahalmena baino 66 etxebizitza txikiagoa.

Dena den, 0 alternatibak indarreko plangintzaren lurralde eredua finkatzen du eta, azken hamarkadako bilakaera ikusita, bizitegi programa hau ere nekez justifika daiteke.

1 Hautabidea

Adierazitako helburu eta irizpideak erdietsi asmoz, hautabide honek indarreko antolamenduan aldaketak ezartzen ditu, ondorengo antolamendu proposamen orokorretan zehazten direnak:

- **Zubikoeta** eremua (AIU1) egungo ezaugarri berberetan finkatzen da, baina **Ajarresta** eremuan aurreikusitako lurzoru urbanizagarria (AIU2), jarduera ekonomikoetara bideratua, bertan behera uzten da eta lurzoru ez-urbanizagarri bezala sailkatzen da berriz ere, proposatutako lurralde ereduaren zuzenketarekin bat ez datorrelako.
- **Elbarrena ekialdea** eremuak San Martin auzoko herrigunearen zatirik handiena barne hartzen du, Agauntza ibaitik ekialdera kokatzen dena hain zuzen, eta indarreko AIU3, AIU4, AIU6, AIU7, AIU8, AIU9, AIU11, AIU12 eta AIU13 biltzen ditu.

Hautabide honek eremuko ekipamendu eta espazio libreak, udalerriko esanguratsuenak bestalde, finkatzen ditu, baita plazako bizitegi garapena ere (50 etxebizitza), lurzorua udal jabetzakoa izanik, zeresan garrantzitsua izan behar baitu udalerriko biztanleria gaztea errotzeko helburuari begira.

Bestalde, bizitegirako zuzkidura-jardun gehienak finkatzen badira ere, indarreko AIU11 unitatea (*Kerejeta, Urbitarte* eta *eskeletoa*) adineko pertsonen zaintza integralerako ekipamenduaren kokagune gisa proposatzen da, eta esku-hartzearen bideragarritasuna bermatu asmoz, indarreko AIU13 unitateko bizitegi-garapena indartzen da, tipologia aldatu eta 32 etxebizitza antolatuz, besteren artean, AIU11ko etxebizitzaren birkokatzeari aurre egin asmoz. Modu honetan, Elbarrena ekialdea eremuko bizitegi programak 117 etxebizitza berri aurreikusiko lituzke, 86 jardun integratuetan eta 31 zuzkidura-jardunetan. Bide batez, *Aitzarte* errekaen ertza espazio libreen sistema orokor gisa izendatzen da, proiektu honetan berebiziko garrantzia duen *bidegorria* edo Elbarrena eta San Gregorio auzoak lotuko dituen ardatz nagusiaren abiapuntu bilakatu asmoz.

- **Elbarrena mendebaldea** eremuak San Martingo herrigunearen gainontzeko zatia barne hartzen du, Agauntza ibaitik mendebaldera kokatzen dena, eta indarreko AIU5 eta AIU10 biltzen ditu. Eremu hau guztiz finkatutzat jotzen da, bertan kokatzen diren ekipamenduen eta espazio libreen sistema orokorrak barne, eta ez da inolako esku-hartze berezirik proposatzen.
- **Astigarraga** eremuak indarreko AIU14, AIU15 eta AIU16 unitateak biltzen ditu, eta funtzio erabakigarria betetzen du proiektu honek proposatzen duen lurralde ereduaren intentsitate ezberdinez bada ere, udalerriko bizitegi-programaren kokagune nagusitzat ageri baita hautabide berri guztietan.

Eremuak ingurumen- eta gizarte-baliabide apartak ditu egun, San Martingo herrigunetik gertu udalerriko hezkuntza eta kirol ekipamendu nagusiak barne hartzen ditu, eta hainbatetan aipatu dugun “habitat alternatiboa” sustatzeko eta bizi-proiektu berritzailea eraiki nahi duen biztanleria erakartzeko kokagune egokia dirudi, gure ustez.

Horretarako, “garapen baxuko” 48 etxebizitza berriren eraikuntza aurreikusten da (7 errepide ertzeko etxebizitzaren birkokapenetara bideratzen badira ere) egungo eraikinen atzealdea baliatuz, eta tartean jada aipatu *bidegorria* edo ardatz nagusia txertatzen da.

Gainera, eremuari atxiki gabea bazegoen ere, indarreko plangintzak izendatzen duen espazio libreen sistema orokorra (2.695 m²) baztertzen da, eta haren ordean 11.235 m² inguruko sistema orokor berri bat izendatzen da, eremuaren garapenari atxikia, *Elbarrena ekialdea* eremuarekiko “harrotzea” bermatuz, baina hiri-bilbean guztiz txertatua eta udalerrira osoko herritarren zerbitzura dagoen zuzkidura moduan.

- **Arrondo** eremuak indarreko AIU17 unitatea hartzen du, eta bertako garapenaren helburu nagusia Elbarrena eta San Gregorio auzoak lotuko dituen ardatz berriari jarraipena ematea da. Aipatu ardatz nagusiaren bokazioa guztiz “hiritarra” da eta, bestelako arrazoirik ezean (Astigarraga eremuko, adibidez), bere trazadura errepideari paraleloa izango da. Beraz, eremuan zuzkidura-jarduneko 16 etxebizitza aurreikusten dira soilik, bizitegi-ahalmenean zenbatzen ez dutenak eta *bidegorria* gauzatzea beste helbururik ez dutenak.

- **Arinberriaga** eremuan indarreko izen bereko landa-gunearen azalera handitzen da zertxobait, kasu honetan hiri-lurzoru gisa sailkatua gainera.

Helburu eta irizpideen atalean aipatu bezala, nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta basogintzaren sustapena da proposatzen den herri-proiektuaren zutabeetako bat, eta horregatik, agrologiako balio altua duen lurzorua hiri-eremuaren egituratzaile gisa irudikatzen da agiri honetan.

Beraz, arestian aipatu lehen sektorearen garapenak behar dituen azpiegiturak aurreikustea da plangintza orokor berriaren helburua eta, gure ustez, *Arinberriaga* eremua da azpiegitura horien kokagune egokia. Ondorioz, horrela jasotzen da proiektu honetako hautabide berri guztietan. Izan ere, eremuaren bilakaerak (*Sara* eremuko ekipamenduen sistema orokorrarekin batera) jarraipena ematen baitio San Martin eta San Gregorio arteko lurraldean antolatu nahi den nukleo nagusiari, eta hiri- zein landa-erabilerak mosaiko gisa elkarren segidan txertatzeko eta baten zein bestearen funtzioak elkar indartzeko (sinergiak sortzeko) beharrezkoa den ikuspegi bateratua indartzen du.

Bertan gainera zuzkidura-jarduneko 4 etxebizitza aurreikusten dira soilik.

- **San Gregorio ekialdea** eremuak izen bereko auzoko herrigunearen erdia barne hartzen du doi doi, Agauntza ibaitik ekialdera kokatzen dena hain zuzen, eta indarreko AIU18, AIU21 eta AIU23 unitateak biltzen ditu. Eremu hau guztiz finkatutzat jotzen da, bertan kokatzen diren ekipamenduen eta espazio libreen sistema orokorrak barne, eta ez da inolako esku-hartze berezirik proposatzen, eremuko mugaren erregularizatu eta ibai ertzeko sistema libreen sistema orokorra izendatzeaz gain. Indarreko plangintzak aurreikusten dituen zuzkidura-jarduneko 7 etxebizitzak finkatzen dira.
- **San Gregorio mendebaldea** eremuak auzoko herrigunearen beste erdia hartzen du, Agauntza ibaitik mendebaldera kokatzen dena, eta indarreko AIU19, AIU20 eta AIU22 unitateak biltzen ditu. Eremuan indarreko plangintzak aurreikusitako 19 etxebizitza berriak finkatzen dira, 14 jardun integratuetan eta 5 zuzkidura-jardunetan, eta gainera, beste 8 etxebizitza berri ere proposatzen dira, 2005eko jatorrizko plangintzaren jardun integratua berreskuratuz. Izan ere, hautabide honek hiri-lurzoruko ekipamenduen sistema orokor gisa izendatzen baitu J.M. Barandiaran museoaren eta interpretazio zentroaren ingurune osoa, *Olearratibelerdikoa* baserria barne, eta garapen berriak bertako bizitegien birkokapenak berma ditzake, besteren artean.
- **Aia** eremuak indarreko AIU24 eta AIU25 unitateak biltzen ditu, eta bertan 10 etxebizitza berri proposatzen dira, 4 jardun integratuan eta 6 zuzkidura-jardunetan. Izan ere, indarreko plangintzak aurreikusitako 4 etxebizitza jarduera ekonomikoez ordezkatu baitira, ostalaritzara eta ostatu ematera bideratutako ekimenak sustatu asmoz.

Gauzak horrela, alternatiba honen parametro orokorrak hurrengoak izango dira:

HJE	AZALERA GUZTIRA	1 HAUTABIDEA. ERABILERA OROKORRAK									
		Bizitegiak			Jarduera ekonomikoak		Zuzkidurak		Espazio libreak + ibai ibilguak		Komunik. sarea
		Azalera	+		Azalera	+	Azalera	+	Azalera	+	Azalera
		m ² (l)	m ² (l)	*Kop.	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)		m ² (l)
1 ZUBIKOETA	17.384	0	0 (0)	17.384	0	0	0	0	0	0	
2 ELBARRENA E	76.281	57.668	86 (31)	0	0	4.491	4.560	8.439	3.387	5.683	
3 ELBARRENA M	24.180	18.043	0 (0)	0	0	682	0	1.302	0	4.153	
4 ASTIGARRAGA	66.837	31.873	41 (0)	0	0	17.379	900	12.397	12.397	5.188	
5 ARRONDO	29.326	26.947	0 (16)	0	0	0	0	365	0	2.014	
6 ARINBERRI.	22.121	8.038	0 (4)	10.887	2.400	0	0	0	0	3.196	
7 S.GREGORIO E	19.068	10.679	0 (7)	0	0	1.770	0	3.241	1.868	3.378	
8 S.GREG. M	21.785	16.468	22 (5)	0	0	2.943	0	702	702	1.672	
9 AIA	6.709	3.464	4 (6)	1.343	720	677	0	364	0	861	
HIRI EREMUA	283.691	173.180	153 (69)	29.614	3.120	27.942	5.460	26.810	18.354	26.145	

(*) A6.0 atalean adierazitako irizpidearen arabera, bizitegia-ahalmenaren gehikuntza gisa zenbatzen ez diren etxebizitzak.

Ikus daitekeen moduan, aurreikusten den bizitegi programa 19 etxebizitzetan handitzen da 0 hautabidearekin alderatzen bada, batik bat, jardun integratuetan aurreikusitakoak, hau da, bizitegi-ahalmenean zenbatzen direnak, 41 etxebizitzetan handitzen direlako. Aldiz, zuzkidura-jardunetan aurreikusitakoak 22 etxebizitzetan murrizten dira, bizitegi-ahalmenean zenbatzen ez diren arren.

Bizitegi-ahalmenari dagokionez, hazkundera batik bat **Astigarraga** (+21) eta **Elbarrena ekialdea** (+16) eremuetan gertatzen da, azken honetan bizitegi-programa osoa murrizten (-6) eta zuzkidurak zein espazio libreak nabarmen handitzen diren arren.

Laburpen gisa, hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzoruaren ia 3 hektareako handitzea azpimarratu behar da (+29.990 m²), jarduera ekonomikoetara bideratutako lurzorua (-8.331 m²) murriztu bada ere, bizitegi-lurzorua (+4.309 m²), zuzkidurako lurzorua (+5.339 m²), eta batik bat espazio libreen lurzorua (+19.502 m²) zein komunikazio sarearena (+9.171 m²) hazi egin baitira. Azken honen hazkundera *bidegorri* edo ardatz nagusi berriaren egitasmoak arrazoitzen du.

Zentzu horretan, proposatzen den lurralde ereduaren aldaketan ezinbesteko funtzioa jokatu behar duen oinezkoen, bizikleten eta beste garraiobide jasangarrien ardatz nagusia edo, labur esanda, San Martin eta San Gregorio auzuneak lotuko dituen *bidegorria* aipatu behar da. Bere bokazioa guztiz "hiritarra" izanik, agiri honetan egiten den proposamena guztiz behin-behinekoa da, baina trazaduran bi atal bereizi ahal dira:

- **Elbarrena ekialdea** eta **Arrondo** eremuen artean ardatzaren trazadura hiri-lurzorutik doa etengabe, errepideari paralelo edo **Astigarraga** eremuko bizitegi-garapenari atxikia, baina beti jardun integratuen babespean.
- **Arrondo** eta **San Gregorio ekialdea** eremuen artean aldiz, ardatzaren trazadura errepideari paralelo doa eta, **Arinberriaga** eremuan izan ezik, lur ez-urbanizagarriko jardun isolatu gisa ageri da; honek, zailtasun fisikoez harago, ardatza gauzatzeko kudeaketa zaildu dezake.

2 Hautabidea

Hautabide honek indarrean dagoen lurralde ereduaren zuzenketarako aukera ezberdinak eskaintzen ditu, aldaera hauen txertaketarekin:

- **Zubikoeta** eremua (AIU1) egungo ezaugarri berberetan finkatzen da, hautabide guztietan bezalaxe, eta kasu honetan **Ajarresta** eremua (AIU2) ere finkatu egiten da, baina orain ekipamendu publikoen zuzkidurara bideratua, adineko pertsonen zaintza integralerako ekipamenduaren ordezeko kokaleku gisa.
- **Elbarrena ekialdea** eremuan adinekoen zaintzarako ekipamendua desagertzen da ondorioz, eta oro har 0 hautabideko aurreikuspenak finkatzen dira, baina indarreko AIU13 unitateko bizitegi-garapena murrizten da (24tik 8ra), indarreko aprobetxamenduaren zati handiena merkataritzako jarduerara bideratu asmoz.
- **Elbarrena mendebaldea** eremuan 0 eta 1 hautabideetako ildoak finkatzen dira osotasunean.
- **Astigarraga** eremuan 1 hautabideko ildoak finkatzen dira, baina kasu honetan bizitegi-programa nabarmen handitzen da (48tik 72ra), orain ere horietako 7 errepide ertzeko etxebizitzaren birkokapenetara bideratu behar diren arren, eta tipologia “eraikuntza irekikoa” da. Horrela, espazio libreen sistema orokorraren azalera ere gehiago handitzen da (+3.509 m²).
- **Arrondo** eremuan 1 hautabideko ildoak finkatzen dira osotasunean.
- **Arinberriaga** eremuan 1 hautabideko ildoak finkatzen dira osotasunean.
- **San Gregorio ekialdea** eremuan 1 hautabideko ildoak finkatzen dira osotasunean.
- **San Gregorio mendebaldea** eremuan 1 hautabideko ildoak finkatzen dira eta gainera, hiri-lurzoruaren hazkunde neurtua proposatzen da *Lauzti* erreko errepidearen abiagunea baliatuz.
Horrela, “garapen baxuko” 10 etxebizitza berri proposatzen dira bertan, guztiak jardun integratuan, auzoarentzat 7.552 m² inguruko espazio libreen sistema orokorra eta 1.596 m² inguruko aparkalekua eskuratu asmoz.
Aipatu bi zuzkidurak auzoaren beharrak eta eskakizunak asetzerara datoz, baita *Lauzti* erreko oinezkoen ibilbide turistikoari zerbitzu ematera ere.
- **Aia** eremuan indarreko AIU24 unitatea ezabatzen da eta eremua egungo egoeran finkatzen da, zuzkidura-jardunean aurreikusitako 6 etxebizitzak barne.

Beraz, alternatiba honen parametro orokorrak hurrengoak izango dira:

HJE	AZALERA GUZTIRA	2 HAUTABIDEA. ERABILERA OROKORRAK									
		Bizitegiak			Jarduera ekonomikoak		Zuzkidurak		Espazio libreak + ibai ibilguak		Komunik. sarea
		Azalera	+		Azalera	+	Azalera	+	Azalera	+	Azalera
		m ² (l)		Kop. (*)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (l)	m ² (l)
1 ZUBIKOETA	17.384	0	0 (0)	17.384	0	0	0	0	0	0	
2 AJARRESTA	20.561	0	0 (0)	0	0	18.412	3.920	0	0	2.149	
3 ELBARRENA E	76.281	58.563	58 (53)	3.988	1.600	1.886	640	6.161	1.272	5.683	
4 ELBARRENA M	24.180	18.043	0 (0)	0	0	682	0	1.302	0	4.153	
5 ASTIGARRAGA	66.837	28.364	65 (0)	0	0	17.379	900	15.906	15.906	5.188	
6 ARRONDO	29.326	26.947	0 (16)	0	0	0	0	365	0	2.014	
7 ARINBERRI.	22.121	8.038	0 (4)	10.887	2.400	0	0	0	0	3.196	
8 S.GREGORIO E	19.068	10.679	0 (7)	0	0	1.770	0	3.241	1.868	3.378	
9 S.GREG. M	34.576	19.624	32 (5)	0	0	2.943	0	8.254	8.254	3.755	
10 AIA	2.758	1.393	0 (6)	0	0	728	0	364	0	273	
OROTARA	313.092	171.651	155 (91)	32.259	4.000	43.800	5.460	35.593	27.300	29.789	

(*) A6.0 atalean adierazitako irizpidearen arabera, bizitegia-ahalmenaren gehikuntza gisa zenbatzen ez diren etxebizitzak.

Ikus daitekeenez, hautabide honek 1 hautabidearen bizitegi-ahalmena errepikatzen du ia (+2 etxebizitza), nahiz eta zuzkidura-jardunetan aurreikusitako etxebizitzak dezente handitzen diren (+23, 0 hautabideko kopuru berbera), batik bat, **Elbarrena ekialdea** eremuan indarreko AIU11 unitateko bizitegi-garapena finkatzen delako.

Laburbilduz, hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzorua ia beste 3 hektarea handitzen da 1 hautabidearekiko (+29.401 m²), batik bat **Ajarresta** eremua berreskuratu delako eta ondorioz, zuzkidurako lurzorua (+15.858 m²) eta espazio libreen lurzorua (+8.783 m²) dezente hazi baitira. Jarduera ekonomikoetara bideratutako lurzorua (+2.645 m²) eta komunikazio sarearena (+3.644 m²) apalago hazi dira, eta bizitegi lurzorua murriztu egin da (-1.529 m²).

Kasu honetan ere, San Martin eta San Gregorio auzuneak lotuko dituen ardatz nagusirako 1 hautabideko irizpideak errepikatzen dira.

3 hautabidea

Alternatiba honek indarreko lurralde ereduaren zuzenketa prozesuan sakontzen du 1 eta 2 hautabideei txertatzen zaizkien ondorengo aldaeren bidez:

- Hautabide guztietan bezala, **Zubikoeta** eremua (AIU1) egungo ezaugarri berberetan finkatzen da eta, 1 hautabidean bezala, **Ajarresta** eremuan aurreikusitako lurzoru urbanizagarria (AIU2) bertan behera uzten da eta lurzoru ez-urbanizagarri bezala sailkatzen da. Beraz, 1 hautabideko ildoak errepikatzen dira.
- **Elbarrena ekialdea** eremuan 2 hautabideko ildoak finkatzen dira oro har, baina bi aldaketa proposatzen dira:
 - batetik, indarreko AIU8 unitatean bizitegi-programa handitzen da (60 etxebizitza);
 - bestetik, indarreko AIU13 unitatean ekipamendu publikoen zuzkidura aurreikusten da, adineko pertsonen zaintza integralerako ekipamenduaren ordeko kokaleku gisa, 2 hautabideko jarduera ekonomikoen orde.
- **Elbarrena mendebaldea** eremuan 0, 1 eta 2 hautabideetako aurreikuspenak finkatzen dira.
- **Astigarraga** eremuan 2 hautabideko ildoak finkatzen dira, baina kasu honetan bizitegi-programa muturrera eramaten da (72tik 84ra), orain ere “eraikuntza irekikoa” tipologian eta horietako 7 errepide ertzeko etxebizitzaren birkokapenetara bideratu behar dira. Kasu honetan, espazio libreen sistema orokorraren azalera 1 hautabidekoa da.
- **Arrondo** eremuan 1 eta 2 hautabideetako ildoak finkatzen dira osotasunean.
- **Arinberriaga** eremuan 1 eta 2 hautabideetako ildoak finkatzen dira osotasunean.
- **San Gregorio ekialdea** eremuan 1 eta 2 hautabideetako ildoak finkatzen dira osotasunean.
- **San Gregorio mendebaldea** eremuan 0 eta 2 hautabideetako ildoen nahasketa proposatzen da, izan ere, indarreko plangintza finkatzeaz gain, hiri-lurzoruaren hazkunde neurtua proposatzen baita, 2 hautabidean bezala, **Lauzti** erreka errepidearen abiagunea baliatuz.
- **Aia** eremua, aukera osagarri gisa, lurzoru ez-urbanizagarriko landa-gune gisa izendatzea proposatzen da, Plan Berezi baten bidez mugatu eta auzoaren beharrei modu xehatuagoan erantzun asmoz.

Beraz, alternatiba honen parametro orokorrak hurrengoak izango dira:

HJE	AZALERA GUZTIRA	3 HAUTABIDEA. ERABILERA OROKORRAK									
		Bizitegiak			Jarduera ekonomikoak		Zuzkidurak		Espazio libreak + ibai ibilguak		Komunik. sarea
		Azalera	+		Azalera	+	Azalera	+	Azalera	+	Azalera
		m ² (l)		Kop. (*)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (s)	m ² (l)	m ² (l)	m ² (l)
1 ZUBIKOETA	17.384	0	0 (0)	17.384	0	0	0	0	0	0	
2 ELBARRENA E	76.281	58.563	68 (53)	0	0	5.874	2.240	6.161	1.272	5.683	
3 ELBARRENA M	24.180	18.043	0 (0)	0	0	682	0	1.302	0	4.153	
4 ASTIGARRAGA	66.837	31.873	77 (0)	0	0	17.379	900	12.397	12.397	5.188	
5 ARRONDO	29.326	26.947	0 (16)	0	0	0	0	365	0	2.014	
6 ARINBERRI.	22.121	8.038	0 (4)	10.887	2.400	0	0	0	0	3.196	
7 S.GREGORIO E	19.068	10.679	0 (7)	0	0	1.770	0	3.241	1.868	3.378	
8 S.GREG. M	31.624	17.971	24 (5)	0	0	1.711	1.130	8.187	8.187	3.755	
OROTARA	286.821	172.114	169 (91)	28.271	2.400	27.416	4.270	31.653	23.724	27.367	

(*) A6.0 atalean adierazitako irizpidearen arabera, bizitegia-ahalmenaren gehikuntza gisa zenbatzen ez diren etxebizitzak.

Beraz, hautabide honek bizitegi-programa handiena proposatzen du, 260 etxebizitza berri, bai jardun integratuetan (169), baita zuzkidura-jardunetan ere (91, 0 eta 2 hautabideetan bezala). Bizitegi-ahalmenaren handitzea, kasu honetan, **Elbarrena ekialdea** (+10) eta **Astigarraga** (+12) eremuetan burutzen da, **San Gregorio mendebaldea** eremuan aldiz bizitegi-ahalmena murriztu egiten baita (-8).

Laburbilduz, hautabide honetan hiri-lurzoru gisa sailkatutako lurzoruaren azalera murriztu egiten da 2 hautabidearekiko (-26.271 m²), eta 1 hautabideko hedapenera hurbiltzen da berriz ere. Izan ere, **Ajarresta** eta **Aia** ezabatuz, eremu kopuru txikiena baitu hautabide honek, eta gainera, **San Gregorio mendebaldea** eremuan ere sailkatutako azalera murriztu egiten baita.

Ondorioz, zuzkidurako lurzoruaren azalera nabarmen murrizten da 2 hautabidearekiko (-16.384 m²), baita gainontzeko erabileren lurzoru ere, askoz modu apalagoan izan arren.

Azkenik, hautabide honek ere San Martin eta San Gregorio auzuneak lotuko dituen ardatz nagusirako 1 hautabideko irizpideak finkatzen ditu.

A6.2 PROPOSAMEN ETA ALTERNATIBAK LURZORU EZ URBANIZAGARRIAN

Ataungo udalerrriaren kasuan, lurzoru ez urbanizagarriaren antolamendua baldintzatua dago udal barrutiaren zati handiena (%76) Aralar Parke Naturalaren barnean egonagatik eta, ondorioz, beronen antolaketa eta kudeaketarako onartutako era askotariko udalaz gaindiko araudiak aplikatu beharko dira.

Zentzu honetan, gaur egun indarrean dagoen legeria azpimarratu behar da:

- 168/1994 Dekretua, apirilak 26koa, Aralar aldeko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana (NBAP) onesten duena.
- 169/1994 Dekretua, apirilak 26koa, Aralar aldea parke naturaltzat jotzen duena.
- 146/2004 Dekretua, uztailak 13koa, Aralarko Parke Naturaleko Natur Baliabideen Antolamendurako Plana aldatzen dena.
- 84/2016 Dekretua, maiatzaren 31koa, Aralar (ES2120011) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzen duena.
- Aralar Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP)

Dena den, udalerrriaren garapen sozio-ekonomikoarentzat oztopo bat izatetik urrun, parke naturala Plan Orokorrek sustatzen duen lurralde eredu berriaren funtsezko eragile bat bihurtu behar da. Are gehiago, Aralarko Parke Naturalaren Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Planak (EKZP) berak bere eremuan kokatutako udalerrien tokiko garapena ezartzen du helburutzat, honela azalduz (gazteleraz soilik aurkitu da):

4.2.7. Desarrollo local

4.2.7.1. Directrices y criterios de gestión

1. Contribuir desde el Parque, en la medida de sus posibilidades, a la diversificación de la economía de su entorno inmediato, favoreciendo el desarrollo de actividades económicas compatibles con los objetivos del Parque Natural.

2. Promover la formación de la población rural de la zona para perfeccionar y complementar una mejora del manejo y de las buenas prácticas ambientales.

3. Promover la formación de la población de la zona para establecer una oferta de servicios ligados al uso público: guías de montaña, espeleología, agroturismo...

4. Implicar a la población del entorno del Parque en la gestión del mismo, favoreciendo su integración en aquellas actividades económicas ligadas a los servicios que el Parque deba ofrecer: hostelería, servicio de guías, promotores turísticos.

Begi-bistakoa helburu horiek bat egiten dutela, neurri handi batean, Ataungo Plan Orokorrerako dagoeneko aurreratuta daudenekin. Beraz, Parke Naturalean integratuta ez dagoen eta, ondorioz, Plan Orokorraren eskumena den lurzoru urbanizaezinaren antolamenduak alderdi horietan eragin behar du, eta gainera, bateragarria izan behar du aplikagarria zaion indarreko plangintza sektorialarekin, batez ere EAEko Nekazaritza eta Basogintzako LAPEkin eta Ibai eta Erreka Ertzak Antolatzeko LAPEkin.

Gauzak horrela, eta Plan Orokorraren ordenantzek barne hartuko dituzten bestelako zehaztapenak alde batera utzita, Aurrerapen agiri honek lurzoru ez-urbanizagarriako antolamendu-aukera ezberdinak aurkezten ditu, hiri-lurzorurako eta urbanizagarriako aurkeztutako proposamenekin bat etorritz.

Horretarako, antolamendu-kategoria hauek hartzen dira aintzat, aipatu plangintza sektorialean oinarrituta:

- Babes bereziko eremua.

Fauna, flora eta oreka ekologikoa babesteko aukera ematen duten lurrak dira. Lurralde intereseko basoak eta batasuneko intereseko habitatak dira zehazki kategoria honetan sailkatzen direnak.

- Nekazaritza-abeltzaintza eremua.

Ondorengo kategoriak berezitzen dira:

- Balio estrategiko altua: Laborantzarako lur estrategikotzat kontsideratuak dauden lurrak dira. Hori dela eta, bere mantenua eta zaintza lehentasunezkoak dira eremu hauetan beste erabilerekin aurrean.
- Trantsiziozko Landa Paisaia: Nekazaritza eta abeltzaintzara zuzendutako malda ertaineko lurrek osatzen dute. Lursail hauek belardiez eta zuhaitz masa txikiez osatuta daude. Balio estrategiko altua duten lurrekin edo baso eremuekin kontaktuan daude, orokorrean, hauetako joera batera bideratuak.

- Basoa.

Orokorrean basoek osatuta dagoen lur eremua. Basoaren balioa zaindu eta sustatu nahi den lur saila.

- Ibai ibilgua eta bere ertzak babesteko eremua.

Ibai ibilgua eta bere babeserako ertzak osatzen duten eremua. Lur ez urbanizagarriari kokatzen diren ibaiaren zatiak, kanpo utziz hiri lurra eta lur urbanizagarria. Ertzak ibaiaren mailaren araberako babes tarteak dute, Ibai eta Erreken Ertzak Antolatzeko Lurralde Plan Sektorialak agintzen duen moduan.

- Ingurumen hobekuntzarako eremua.

Landaredi inbaditzaileak nabarmentzen diren eremuak eta lurren higadura handia behatzen den lursailak.

- Sistema Orokorrak.

Zuzkidura erabilerara bideratutako lurzorua, besteak beste, espazio libre eta ekipamenduko kolektibo publikoak, ekipamendu kolektibo pribatuak eta komunikazio-azpiegiturak eta -sareak, beti ere, hiritargo osoari zerbitzu ematen diotenak.

Aipatu beharra dago, Ataunen ez dela identifikatu landatutako zein naturalizatutako landare inbaditzaileen masa nabarmenik (*Robinia pseudoacacia*, *Eucalyptus sp.*, etab.), ezta higadura handia jasaten duen lurrik ere. Ondorioz, ez da bertan ingurumen hobekuntzarako eremurik irudikatzen.

Bestalde, batasuneko intereseko habitatak eta lurraldean interes handia duten bertako basoak masa sakabanatuak eratzen dituzte. Horregatik, eta lurzoru ez urbanizagarriaren antolaketa lurraldeko eskala maila handiago batera egokitzeko, aipatutako habitatak, *Basoa* zein *Nekazaritza-Abeltzaintza* eremuei atxikitu zaizkie. Hala ere, duten garrantziagatik, baldintzatzaile gainjarri bezala grafiatu dira, eta beraien babes eta hobekuntza bertan ezarritako araudi espezifikoarekin bermatuko da.

Izan ere, aukeratutako antolamendu kategorien gainean baldintzatzaile gainjarriak ezartzen baitira. Baldintzatzaile gainjarriak lurraldearen ingurumen-sentsibilitatearen ezaugarri bereziak dira, eta antolamenduan aplikatzean, muga erantsiak ezartzen dira, antolamendu-kategorietako lurzoruaren okupazioaren eta erabileraren erregulazioari eragiten diotenak.

Nolabait, baldintzatzaileak lurzoruaren kategorien gainean gainjartzeak ingurumen-arriskuen "prebentzio" printzipioa aplikatzea dakar (LAG). Beraz, Plan Orokorraren eremuan aintzat hartutako baldintzatzaile gainjarriak hiru ataletan banatzen dira, eta honako hauek dira:

Arrisku naturalak eta klima aldaketa:

- C.1. Uholde arriskua duten eremuak. Birgertatzealdiak
 - C.1.a. Ibaiaren lehentasunezko fluxu eremua
 - C.1.b. Birgertatzealdiak: 10, 100 eta 500 urte
- C.2. Akuiferoak kutsatzeko arriskua duten eremuak
- C.3. Higadura arriskua duten eremuak (%50etik gorako maldak)
- C.4. Sute arrisku handia edo oso handia duten eremuak
- C.5. Kutsatuta egon daitezkeen eremuak
- C.6. Eremu akustikoak

Azpiegitura berdea:

- C.7. Erreserba eta nukleo guneak
 - C.1.a Aralarko Kontserbazio bereziko Eremua (KBE)
 - C.1.b Oria garaiko Kontserbazio bereziko Eremua (KBE)
- C.8. Intereseko landaredia
 - C.2.a Lurralde intereseko basoak
 - C.2.b Interes komunitarioko habitatak
- C.9. Ibai korridoreak

Beste baldintzatzaileak:

- C.10. Faunaren babes eremuak
 - C.10.a Bisoi europarra
 - C.10.b Elur-lursaguaren IBE
 - C.10.c Ferra-saguzar handiaren IBE
 - C.10.d Muturluze piriniarraren IBE
 - C.10.e Hegazti nekrofagoen IBE eta elikatzeko babesgunea
- C.11. Onura publikoko mendia
 - C.11.a 2015.1
 - C.11.b 2015.2
 - C.11.c 2015.3
- C.12. Interes geologikoko eremuak
 - C.12.a Ataungo domoa
- C.13. Interes hidrogeologikoko eremuak
- C.14. Plan hidrologikoaren eremu babestuak
 - C.14.a Hiri-hornidurarako hartuneen babes eremua
 - C.14.b Babes bereziko ibai tarteak
- C.15. Katalogatutako ikus-arroak
- C.16. Ondare kulturala

Lurzoru ez-urbanizagarrian antolamendu kategoriek eta baldintzatzaile gainjarriek ezarritako markoan, Aurrerapen honek proposamen ezberdinak egiten ditu **Arinberriaga**, **Ergoiena** eta **Aia** auzuneen antolaketari dagokionez, hiri lurzoruaren eta urbanizagarriaren antolaketa alternatibekin batera aurkezten direnak grafikoki.

Indarreko plangintzaren arabera, **Arinberriaga** eta **Ergoiena** landa-gune gisa izendatuak daude (2/2006 Legearen 29. artikulua) eta **Aia** hiri-lurzoru gisa sailkatua dago.

Bada, Aurrerapen honetan **Arinberriaga** auzunea hiri-lurzoru bezala sailkatzea proposatzen da, esan bezala, eremuaren bilakaerak jarraipena ematen baitio San Martin eta San Gregorio arteko lurraldean antolatu nahi den nukleo nagusiari, eta bertan lehen sektorearen garapenak behar dituen azpiegiturak aurreikusten dira.

Ergoiena auzunea aldiz landa-gune gisa mantentzen da hautabide guztietan, proiektu honetan mugatzen den hiri-eremutik kanpo kokatzen delako batetik, eta bere landa-izaerak erantzun berezituak eskatzen dituelako bestetik. Horretarako, landa-gunearen garapena Antolamenduko Plan Bereziaren bidez egitea proposatzen da, bere eskumenen artean eremuaren hedapena bera eta haren antolamendu xehatua izango lituzkeena, bizitegi-programa barne, auzokideen eskakizunei erantzun eta auzunearen beharrei konponbidea eman asmoz.

Azkenik, **Aia** auzunearentzat bi aukerak aurreikusten dira, hau da, hiri-lurzoru gisa garatu ahal izateko hautabide ezberdinak edo, **Ergoiena** auzunean bezala, landa-gune gisa Antolamenduko Plan Bereziaren bidez garatzeko aukerak jasotzen dira.

Ondorengo taulan landa-guneen antolaketakarako hautabide ezberdinen arteko alderaketa aurkezten da:

Auzunea	Hautabidea							
	0		1		2		3	
	Azalera	Bizitegiak	Azalera	Bizitegiak	Azalera	Bizitegiak	Azalera	Bizitegiak
	m²(l)	Kop.(*)	m²(l)	Kop.(*)	m²(l)	Kop.(*)	m²(l)	Kop.(*)
ARINBERIAGA	15.979	(9)	Hiri-lurzorua		Hiri-lurzorua		Hiri-lurzorua	
ERGOIENA	41.935	(7)	41.935	(7)	41.935	(7)	41.935	(7)
AIA	Hiri-lurzorua		Hiri-lurzorua		Hiri-lurzorua		6.709	(8)
LANDAGUNEAK	57.914	(16)	41.935	(7)	41.935	(7)	48.644	(15)
HIURI-LRZ. + LANDAG.	311.615	112 (107)	325.626	153 (76)	355.027	155 (98)	335.465	169 (106)

(*) A6.0 atalean adierazitako irizpidearen arabera, landa-guneetako etxebizitzak ez dira bizitegia-ahalmenaren gehikuntza gisa zenbatzen.

Gainera, Aurrerapenak Lizarrusti ingurua *Aisialdiko eta ingurumen-zabalkundeko gunea* gisa izendatzea proposatzen du, eta Antolamenduko Plan Bereziaren bidez garatzea.

Horrek guztiak Lizarrusti inguruan egun aurki eta etorkizunean proposa daitezkeen azpiegitura turistikoak antolatzea du xede, eskualdeko izaera izango duen (LAG) eta lurraldeari atxikia egongo den jarduera turistikoa sustatuz, udalerriko eredu sozio-ekonomikoa dibertsifikatzea helburu izango duena.

Nolanahi ere, Lizarrusti ingurua Aralar Parke Naturalaren barnean kokatzen da eta, arestian esan bezala, bertan proposatzen den edozein jarduerak haren antolaketa eta kudeaketarako onartutako era askotariko araudia bete beharko du.

A6.3 ANTOLAMENDU ALTERNATIBEN LABURPEN KONPARATIBOA

Ondoren atxikitako koadroan hiri lurzoruaren eta lurzoru urbanizagarriaren antolamendu hautabideetan jaso diren aukera ezberdinak alderatzen dira, lurzoru ez urbanizagarriko landa-guneetan aurreikusitako proposamenak gehituz; beraz:

Udal barrutiaren azalera m ² (l)		58.362.286						
		Hautabidea						
		0	1		2		3	
		Prop.	Prop.	+/-	Prop.	+/-	Prop.	+/-
Hiri Lurzoruaren azalera m ² (l)		253.701	283.691	111,82%	313.092	123,41%	286.821	113,05%
Bizitegiak								
Azalera m ² (l)		168.871	173.180	102,55%	171.651	101,65%	172.114	101,92%
Bizitegi ahalmena (*)		112 (91)	153 (69)	136,61%	155 (91)	138,39%	169 (91)	150,89%
Jarduera ekonomikoak								
Azalera m ² (l)		37.945	29.614	78,04%	32.259	85,02%	28.271	74,51%
Eraikigarritasun-hazkundera m ² (s)		10.553	3.120	29,57%	4.000	37,90%	2.400	22,74%
Ekipamenduak								
Azalera m ² (l)		22.603	27.942	123,62%	43.800	193,78%	27.416	121,29%
Eraikigarritasun-hazkundera m ² (s)		1.770	5.460	308,47%	5.460	308,47%	4.270	241,24%
Espazio libreak + ibai ibilguak								
Azalera m ² (l)		7.308	26.810	366,86%	35.593	487,04%	31.653	433,13%
Komunikazio sarea								
Azalera m ² (l)		16.974	26.145	154,03%	29.789	175,50%	27.367	161,23%
Lurzoru ez urbanizagarria								
Landa-guneak	Azalera m ² (l)	57.914	41.935	72,41%	41.935	72,41%	48.644	83,99
	Etxebizitzak (*)	(16)	(7)	-	(7)	-	(15)	-
Espazio libreen S.O. m ² (l)		32.281	0	0,00%	0	0,00%	0	0,00%
Ekipamenduen S.O. m ² (l)		34.783	34.783	100,00%	34.783	100,00%	34.783	100,00%

(*) A6.0 atalean adierazitako irizpidearen arabera, bizitegia-ahalmenaren gehikuntza gisa zenbatzen ez diren etxebizitzak.

Arestiko laburpen taulatik ondorioztatu daiteke, lehenik eta behin, Aurrerapen honetan proposatzen diren hautabide guztiek bizitegi-lurzoruaren dentsifikazio nabarmena dakartela, azaleraren %2 inguruko hazkunderari bizitegi-ahalmenaren %35etik gorako hazkundera dagokiolako kasu guztietan.

Aldiz, jarduera ekonomikoko erabileraren aurreikuspenak uzkurto egiten dira hautabide guztietan, lurzoruari zein aurreikusitako eraikigarritasunari dagokionez.

Bestalde, ekipamendu publikoei eta espazio libreei dagozkien aurreikuspenak hedakorak dira kasu guztietan. Horren harira, azpimarratu behar da indarrean dagoen plangintzak lurzoru ez-urbanizagarrian metatzen duela udalerriko sistema orokorren zatirik handiena.

Horrela, **Sara** eremuko ekipamenduen sistema orokorra (34.783 m²) lurzoru ez-urbanizagarrian kokatzen da, eta Aurrerapen honetako hautabide guztiek finkatu egiten dute.

Aldiz, lurzoru ez-urbanizagarrian kokatzen diren espazio libreen sistema orokorrak, **Astigarraga** (2.695 m²) eta **Iturritza** (29.586 m²), ezabatu egiten dira, eta hiri-bilbean txertatuko eremu berriez ordezkatzeko dira, laburpen taulak adierazten duen bezala.

Izan ere, bistakoa da indarreko espazio libreen azalerak aise gainditzen dituela 2/2006 Legeak 78. artikuluan ezartzen dituen gutxieneko estandarrak, kalifikatutako 32.281 m² inguruko azalerak 6.456 biztanle dituen herri bati eman ahal diotelako zerbitzu, udalerraren egungo populazioa baino askoz handiagoa beraz, baita esleitutako bizitegi-ahalmenaren arabera aurreikusitakoa baino askoz handiagoa ere.

Hala ere, egia da ereduaren iraunkortasunak murriztu den zuzkidura-azalera ordezteko eskatzen duela, nahiz eta modu zatikatuagoan izan eta Plan Orokorra proposatutako jarduera bakoitzari lotuago egon, baina beti *“funtzionaltasunez eta zerbitzuz plangintza-eremu bat baina gehiago hartzen duten”* espazio libreen bidez.

2/2006 Legearen 54. artikulua definizioa subjektiboa izan badaiteke ere, zuzkidura-sarearen izaera "orokorra" plangintza-eremu batean edo gehiagotan kokatzeaz harago doa gure ustez, eta udalerriko biztanleriaren multzoak erabilia izateari lotua dago. Hau da, bere *“funtzionaltasuna eta zerbitzua”* dira eremu bat baino gehiago hartu behar dituztenak, eta ez hainbeste bere azalera.

Beraz, espazio libreen sistema orokorra lurzoru ez-urbanizagarriko lursailetan metatzeko joeraren aurka, nagusiki udal jabetzakoak direnak eta hiri bilbetik aldenduak daudenak, zuzkidura-sareak, edozein aldaera duela ere, aipatu hiri-bilbean txertatua egon behar du gure ustez, baita horrek lursail txikiagoak eta sakabanatuagoak aurreikustera eta izendatzera behartzen badu ere.

Nolanahi ere, hemen jasotako proposamenen atariko izaera gogorarazi behar dugu. Proposamen horiek pixkanaka garatu eta doitu beharko dira, beharrezko oreka lortu arte haien zehaztapen guztietan.

A6.4 ONDAREAREN KATALOGO IREKIA

Plan Orokorra formulatzeko akordioan eskumendun administrazioei galdegindako eta orain arte jasotako txostenen artean bi dira ondareari dagozkionak:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuko Ondare Historiko-artistikoko Zerbitzuak helarazi duena, 2024ko apirilaren 10ean sinatua (2024-000001961).
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak eta Euskal Kultura Ondarearen Zentroak helarazi dutena, hurrenez hurren, 2024ko maiatzaren 16an eta 15ean sinatua.

Beraz, atal honetan ondare arkitektoniko eta arkeologikoko elementuen zerrenda orientagarria jasotzen da, maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak, eta hura aldatu zuen azaroaren 30eko 14/2023 legeak ezarritako babes mailetan sailkatuak; horrela:

A6.4.a Ondare arkitektonikoa

Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan inskribatutako higiezinak.

Fitxa zk.	Izena	Auzoa	Babes-maila	Boletina
8	Zubikoeta jauregia	San Martin	Berezia (hasitakoa)	BOE 1980/11/29
41	Errota eta Errotatxo	San Gregorio	Ertaina	EHA 2003/09/11
43	Errotatxo	Aitzartealdea	Ertaina	EHA 2003/09/11

«6/2019 Legearen ondorioetarako Oinarrizko babes duen Kultura-ondasun» deklaratzeko proposatutako higiezinak (art. 6/2019 Legearen 8.1.c artikulua, 14/2023 Legeak aldatua).

Fitxa zk.	Izena	Auzoa	Esku-hartzeko araubidea
8	Zubikoeta jauregia	San Martin	Zaharberritze kontserbatzailea
17	San Gregorio eliza	San Gregorio	
19	Tourseko San Martin eliza	San Martin-Elbarrena	
23	Aranburu Enea baserria	Arrondo	
25	Bazterrika baserria	Arrondo	
30	Aialde Haundi baserria	Aia	
34	Izaate Haundi baserria	Urretsu-Mendialdea	
39	Errota Goikoa	Aia	
50	San Martin iturria	San Martin-Elbarrena	

Udal hirigintza-plangintzan udal-babeseko kultura-ondasun gisa sartu eta tratatzeko proposatutako elementu arkitektonikoak (14/2023 Legeak aldatutako 6/2019 Legeko art. 8.2).

Fitxa zk.	Izena	Auzoa
1	Taberna Berri	San Martin-Elbarrena
3	Sankristaune	San Martin-Elbarrena
4	Apaiz-etxea	Aia
5	Angulunea etxea	San Martin-Elbarrena
6	Graziña Berri etxea	San Martin-Elbarrena
7	Bidarte etxea	San Martin-Elbarrena
9	Juanikonea etxea	San Martin-Elbarrena
11	Done Juane Txikia	San Martin-Elbarrena
12	Visitación de Nuestra Señora eliza	Aia
13	Santo Calvario baseliza	Astigarraga
14	Urbitate Enea etxea	San Martin-Elbarrena
15	Upategi etxea	San Martin-Elbarrena
16	Don Juane Haundia etxea	San Martin-Elbarrena
18	Artzubi etxea	San Martin-Elbarrena
20	Goalde baserria	San Martin
21	Zeberio Enea baserria	Aitzartealdea
22	Arratibel Erdikoa baserria	San Gregorio
24	Iturralde baserria	Arrondo
26	Tzemoa baserria	Arinberriaga
27	Matxitxu baserria	Arinberriaga
28	Urrutsu baserria	Urretsu Mendialdea
29	Erraiondo Zahar baserria	Aia
31	Insekantzeluz baserria	Aitzartealdea
32	Begiristain baserria	Aia
33	Lauzti Iturrieta baserria	Lauztierreka
35	Iturritza Zaharra baserria	San Gregorio
38	Camineros etxea	Aia
40	Beheko errota	Aia
49	Zelearn	San Gregorio
51	Lazkaotegi etxea	Arrondo
52	Iturria	San Gregorio
54	Zelai pilotalekua	San Gregorio
57	Eskola zaharra	San Gregorio
62	Kerejeta Enea	San Martin
63	Ataungo etxea	San Martin
64	Helbarrena II etxea	San Martin
65	Helbarrena I etxea	San Martin
66	Goikoetxea Enea	San Martin
67	Helbarrena IV etxea	San Martin
68	Helbarrena III etxea	San Martin

A6.4.b Ondare arkeologikoa

Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan inskribatutako eremu arkeologikoak.

Fitxa zk.	Izena	Babes maila	EHAA
Gipuzkoako Estazio eta Monumentu Megalitikoen Monumentu-multzoa:		Berezia	EHAA 133 zk. (2003/07/08) ²
4. Aralarko Estazio Megalitikoa:			
42	Tourseko San Martin eliza		
43	Aranburu Enea baserria		
6. Ataun-Burundako Estazio Megalitikoa:			
44	Argonitzeko trikuharria		
45	Igartza ekialdeko tumulua		
46	Igartza mendebaldeko trikuharria		
47	Intxusburuko trikuharria		
48	Bernoako trikuharria		
49	Aitxuko trikuharria		
50	Muñaango trikuharria		
51	Larreluzeko trikuharria		
55	Atxurbiko trikuharria		

² 137/2003 D, ekainaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan dauden eta I. eranskinean zerrendatu diren Estazio Megalitikoak Monumentu Multzo izendapenaz, Kultura Ondasun gisa deklaratzeko eta babes-araudia ezartzeko dena.

Fitxa zk.	Izena	Babes maila	EHAA
Gipuzkoako haitzuloetako aztarnategiak:		Ertaina	EHAA 215 zk. (2015/11/11) ³
29	Allekoaitz haitzuloa		
30	Armontaitz haitzuloa		
36	Pikandieta haitzuloa		
37	Sarastarri II haitzuloa		
38	Sarastarri IV haitzuloa		
39	Troskaeta haitzuloa		
40	Usategieta haitzuloa		
56	Agaotz haitzuloa		
57	Lokatza haitzuloa		

³ AGINDUA, 2015eko azaroaren 2koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, zeinaren bidez II. Eranskinean zerrendatzen diren Gipuzkoako Lurralde Historikoko haitzuloetako aztarnategiak Kultura-ondasun gisa sartzen diren, Monumentu Multzo kategoriarekin, Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Nagusian.

Deklaratutako balizko arkeologia-eremuak.

Fitxa zk.	Izena	Mugaketaren gakoa
1	Zubikoeta baserria	A
2	Arratinea baserria	A
3	Arrizabalaga baserria	A
4	Etxeberriaundi baserria	A
5	Okarizti baserria	A
6	Elizalde errota (ez zaio egiturarik ikusten)	E
7	San Martin eliza	B
8	Urdangarin baserria	A
9	Santiago ospitalea	A
10	Lauztigaraikoa baserria	A
11	Larratze baserria	A
12	Agirretxiki baserria	A
14	Astigarretxea baserria	A
15	Andresenea baserria	A
16	Espilla baserria	A
17	Bazterrika baserria	A
19	Arin Aundia baserria	A
20	rinetxeberri baserria	A
21	Matxintxu baserria	A
22	Peruenezar baserria	A
23	Tellerierdi baserria	A
24	Telleriazpi baserria	A
25	San Gregorio basiliza	B
26	Zelaibar baserria	A
27	Olea baserri eta burdinola	D
28	Lauzti edo Aiesondo teileria	E
31	Arrateta kobazuloa	C
32	Azarikobatxo kobazuloa II	C
33	Intxusaeta kobazuloa II	C
34	Kobazar kobazuloa	C
41	Ubegaine Leizeako kobazuloa	C
52	Maomendi asentamentua	E

ERABAKIA, 1997ko urriaren 14koa, Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordearena, Ataungo (Gipuzkoa) Balizko Arkeologia Guneen Aldez Aurreko Izendapena egiten duena. (EHAA, 220. zk. 1997/11/17).

Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen babesean babesteko proposatutako interes arkeologikoko eremuak.

Fitxa zk.	Izena
13	Jentilbaratza gaztelua
58	Ola mendiko burdinola

A7. GARAPEN ETA EXEKUZIO BALDINTZAK

A7.0 SARRERA

Ataungo Hiri Antolatzeko Plan Orokorraren behin betiko proiektuan zehaztuko diren antolamendu proposamenak, kasu bakoitzean egokiak eta beharrezkoak izan daitezkeen garapen, exekuzio eta programatze neurriekin osatu beharko dira, bere momentuan.

Mota horretako aurreikuspenen zehaztaperen zehatza hau bezalako Aurrerapen baten zereginetik haratago doa eta behar besteko zorrotasunez aurre egin beharko zaio Planaren aipatu behin betiko proiektuan edo bera garatuz landu eta bideratu beharreko dokumentuetan; hori guztia Aurrerapen honetan aurkeztutako proposamenean edota hautabideen kalterik gabe, gai horietako batzuetan eragina dutenak.

Orain proposatutako helburua xumeagoa da orokorrean, eta testuinguru horretan kontuan hartu beharko diren zenbait gai aipatzean eta gogoratzean datza.

A7.1 HAPO-AREN GARAPENERAKO HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAREN ZEHAZTAPENA

Plan Orokorraren behin betiko proiektuak eragindako eremuen egiturazko antolamendua zehaztu beharko du. Zeregin horrek dagokien kalifikazio edo zonifikazio orokorraren erregimena zehaztea barne hartzen du, besteren artean.

Era berean, finkatu gabeko hiri lurzoruen eta lurzoru urbanizagarriaren antolamendu xehatuaren zehaztapena hurrengoetan definitu daiteke:

- Plan Orokorrean bertan, egoki jotzen bada. Hori da aipatu proiektuan antolaketa zehatza ezartzea egoki eta posible jotzen den hiri lurzoruen kasua, besteak beste.
- Aipatu behin betiko proiektua garatuz landu eta bideratu beharreko planeamendu berezian edo partzalean ere gauzatu daiteke.

A7.2 HIRIGINTZA EXEKUZIOA

Bai Plan Orokorraren behin betiko proiektuak, bai hura garatzeko sustatu behar den plangintzak, planteatutako antolamendua gauzatzeko beharrezkoak diren hirigintzako egikaritze- eta kudeaketa-aurreikuspenak zehaztu beharko dituzte.

Hori dela eta, segidan aipatzen diren gaiak kontuan hartu beharko dira, besteen artean:

- Proposatutako garapenen xede diren eremuak jarduketa isolatuen, zuzkidurakoen edo integratuen berezko baldintzekin lotzeko irizpideak zehaztu beharko dira. Horrelako aurreikuspenen zehaztapena, aipatutako jarduera-modalitateen xede diren eremuen mugaketa barne, eremu horien antolamendu xehatuaren zehaztapenarekin lotuta edo baldintzatuta dagoela ulertu behar da.
- Garapenak jarduketa integratuen berezko baldintzak bete behar baditu, jarduketa integratuko eremuak mugatu edo identifikatu beharko dira.
- Zuzkidura publikoak antolatzeko proposamenak kudeatzeko eta gauzatzeko irizpideak zehaztu beharko dira, proiektatutako sistema orokor berriak barne. Irizpide horiek, besteak beste, zuzkidura publiko horien eraginpeko lurak lortzera zabaldu behar dira.

A7.3 HIRIGINTZA ANTOLAMENDUAREN PROGRAMAZIO NEURRIAK

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren behin betiko proiektuak planteatutako antolamendua garatu eta gauzatzeko prozesuaren programazio-neurriak zehaztuko ditu.

A8. PROIEKTUA ETA HAREN INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA

10/2021 LEGEA, abenduaren 9koa, Euskadiko Ingurumen Administrazioarena, eta 211/2012 DEKRETUA, urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena, delakoek ezarritakoa jarraituz, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra izapidetzeko eta onartzeko, ingurumen-ebaluazio estrategikoa burutu behar da.

Agindu hori besteren artean segidan aipatzen diren irizpideen bidez betetzea aurreikusten da:

- Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoaren Hasierako Agiria Aurrerapen agiri honekin batera lantzea eta bideratzea.
- Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren hasierako onespeneren dokumentua egitea, ingurumen-organoak Hasierako Agiriari erantzunez emandako Erreferentziazko Agiriaren edukian oinarrituta. Gainera, hasierako onarpeneko dokumentu hori dagokion ingurumen-iraunkortasunari buruzko txostenarekin osatu behar da.
- Ingurumen-organoak eman behar duen Ingurumen-memoria eskatzea.
- Plan Orokorraren behin betiko proiektuan Ingurumen-memoria tratatzeko eta/edo txertatzeko irizpideak zehaztea.

A9. AZKEN ONDORIOA. AURRERAPENAREN LABURPEN OROKORRA

Ataunek, bere ingurune hurbil zein urruneko osoak bezala, une erabakigarria bizi du. Gainbehera demografikoa oso handia izan zen joan den mendeko azken 4 hamarkadetan zehar, eta udalerriak bere populazioaren ia erdia (%46) galdu zuen 1960. urtetik (2.807 biztanle) 2003. urtera (1.514 biztanle). Azken 20 urteetan gainbehera moteldu edo eten egin da, azken datu estatistikoen arabera Ataunek 1.660 biztanle ditu egun, baina hurrengo hamarkadetako aurreikuspenak kezkarriak dira, eta beraz, berehalako neurri ausart eta irmoak hartzea ezinbestekoa da.

Udalerriko ekonomia eta, hein handi batean, ongizatea Goierriko industria jardueren menpeko dira ia erabat, eta beronek krisialdi garaietan ere izan duen ibilbide sendoak ez ditu ezkutatu behar manufaktura-sektorearen gain mundu mailan dauden zalantza ugariak, ez eta eskulan espezializatuago eta prestatuago baten alde, haren jatorria aintzat hartu gabe, derrigorrez egin beharko duen apustua.

Gainera, ukaezina da udalerriko ehun ekonomikoaren ahuldadeak biztanlegoaren atal esanguratsuen lan-txertaketa oztopatzen duela, batik bat emakumeena eta formakuntza maila altueneko gazteena, eta horrek eragin negatiboa du udalerrriaren saldo migratzailean, egungo gizarte garatuek hain ohiko duten metabolismo demografiko berez dagoeneko ahulduari batzera datorrena.

Horren guztiaren aurrean, Ataunek aldagai erabakigarriak ditu erronkari baikortasunez aurre egitera laguntzen dutenak, eta bi multzo handitan sailka daitezkeenak:

- batetik, hiritargoaren kultur-nortasun nabarmena eta partaidetza zentzu sakona, etorkizunari begira engaiamendu eta ekimen bilakatu behar direnak;
- bestetik, gutxiren pareko ingurune naturala, udalerrriaren garapenaren motore nagusi bihurtu behar dena, bere sorrerarena eta mendeetako bizirautearena izan zen bezalaxe, bere ezohiko baliabideekiko begirada berri baten bitartez.

Testuinguru horretan landua, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak agertoki egokia sortzeko erronka du aurrez aurre; batetik, biztanleria errotzeko eta erakartzeko gaitasuna izango duen hiri-nukleo nagusi bat garatuz, eta bestetik, iraunkortasun paradigma oinarri hartuta, herri-nortasun berri baten ardatza izango den eredu sozio-ekonomikoa sustatuz.

Edonola, aipatu agertokiak hiritargoaren konplizitatea eskuratu behar du ezinbestean, azken batean, hura baita hemen proposatzen den eraldaketa eta garapen prozesuaren benetako protagonista.


Ondorioz, Aurrerapen agiri honek jarraipena ematen dio Ataungo udalerriko plangintza orokorraren berrikuspen prozesuari, egungo egoeraren diagnostikoarekin abiarazi zena. Aipatu diagnostikoa eta *Ataun egin elkarrekin* herritarren partaidetza prozesua oinarri hartuta, erdietsi nahi diren helburuak proposatu dira, beraien lorpena gidatu behar duten irizpideak ezarriaz gainera.

Behin helburu eta irizpide orokorrak zehaztuta, ikertutako alorrak asebetetzera zuzendutako jarduketak multzo bat aztertu da, hautabide ezberdinak tarteko, egungo egoerari erantzun anitza ematen zaiolarik.

Eraginkortasun handiagoa lortzeko, jarduketak lau antolaketa hautabideetan sailkatzeari ekin zaio, indarreko plangintza jasotzen duen 0 hautabidea barne. Hala ere, hautabide hauek ez dira itxiztat hartu behar, eta azkenean aukeratutako ereduak irtenbide egokienak jaso ditzake, iraunkortasun txostenaren ondorioak aintzat hartuz gainera.

Honekin guztiarekin haserako diagnostikoari konponbideak eskaintzea bilatu da, nahiko askotarikoa eta malgua udalerraren antolaketarako eredu integrala sortzea ahalbidetzeko.

Oiartzunen, 2024ko maiatzean



Eñaut Muñoa Artola



Hektor Espin Larreta



Aitor Iztueta Garaikoetxea